# Euskaldunen irudia Antzinaro eta Erdi Aroko testu historiko eta literarioetan:

## Egile klasikoen garaitik Errege-Erregina Katolikoen garaiko kroniketara arte

***Olatz Gamboa Uriarte***
***Maria Ruiz Torrado***

***EHUko historia ikasleak***

## Aurkibidea


Sarrera…………………………………………………………………………………………………...................... 3. or.

I. Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko historiografia greziar eta latindarra …. .................................... 5. or.

I. 1. Historiografia greziarra eta latindarra: alde etnografikoa. Barbaroen kontzeptua............…… 5. or.

I. 2. Inperio Erromatarraren herriak: Mendebaldea eta Ekialdea…………………………………… 9. or.

I. 3. Hispania erromatarra: Iparraldeko herriak…………………………………………………… 18. or

I. 4. Antzinaroko euskaldunak eta historiografiaren desitxuraketa……………………………….. 24. or

*I. 4. 1. Salustio*.................................................................................................... 25. or

*I. 4. 2. Estrabon*……………………………………………………………………………….. 26. or

*I. 4. 3. Tito Livio*………………………………………………………………………………. 28. or

*I. 4. 4. Plinio Zaharra*…………………………………………………………………………. 29. or

*I. 4. 5. Ptolomeo*………………………………………………………………………………. 31. or

*I. 4. 6. Historia Augusta*……………………………………………………………………… 33. or

*I. 4. 7. Aurelio Prudencio*…………………………………………………………………….. 34. or

*I. 4. 8. Avieno*……………………………………………………………………………… 34. or

*I. 4. 9. Ausonio eta Paulino Nolakoa*……………………………………………………… 35. or.

II. Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko Erdi Aroko genero historiografikoak ........................................ 38. or.

II. 1. Egile klasikoen eragina: barbaro euskaldunak……………………………………...………. 38. or

*II. 1. 1. San Isidororen lan historikoak*…………………………………...…………………. 39. or.

*II. 1. 2. Eginhardoren “Annales Regni Francorum” eta “Vita Karoli”*………………………… 40. or.

*II. 1. 3. Ravenako anonimoa*......................................................................................... 46. or.

*II. 1. 4. Alfontso III.aren kronika*………………………………………………………………. 47. or

*II. 1. 5. Liber Sancti Iacobi-Codex Calixtinus*........................................................................ 49. or.

*II. 1. 6. Historia Compostelana*……………………………………………………………… 55. or.

II. 2. Gatazka eta bando gerrateei buruzko kronikak…………………………………………………… 57. or

*II. 2. 1. Alonso de Palenciaren kronika*……………………………………………………... 59. or.

*II. 2. 1. Lope Garcia de Salazarren “Bienandanzas e Fortunas”*…………………………… 65. or.

III. Ondorioak…………………………………………………………………………………………............. 70. or

IV. Bibliografia ………………………………………………………………………………………......... 72. or

## Sarrera

Antzinaro eta Erdi Aroko testu historiko eta literarioetan azaldu den euskaldunen irudiak ez du askotan errealitatearekin bat egin. Mende luzetan, baskoien irudi basatia edo barbaroa nagusitu zen, eta horren arabera, lurralde hauetako antzinako biztanle horiek bidelapurrak, gerrazaleak eta arriskutsuak ziren. Iturri horien arabera ere, hizkuntza ulertezina hitz egiten zuten eta itxura basatia zuten. Baina, esan bezala, irudi horrek ez zuen kasu gehienetan errealitatearekin bat egiten. Gauzak horrela izanik, nola sortu eta zabaldu zen antzinako euskaldunei buruzko ikuspegi hori?

Erantzuna historiografia greziar eta latindarraren inguruan aurkituko dugu. Greziarren filosofia etnografikoaren inguruan sortu zen *barbaroa*ren kontzeptua, hots, “bestea”, greziarra ez zena, eta bide beretik, zibilizatua ez zena. Erromatarrak ere filosofia etnografiko horretan oinarritu ziren. Ikuspegi horren arabera, mendialdeko herriak abeltzainak ziren eta gizarte greziar eta erromatarrek estadio atzeratu bezala ikusten zituzten, gizakien garapen prozesuaren testuinguruan. Izan ere, nekazaritza baino lehenagoko egoera zen abelazkuntza, erromatarrentzat nekazaritza zelarik estadio kultural aurreratuena. Hiriko biztanleek ez zituzten begi onez ikusten gune ez-hiritarretan bizi ziren giza-taldeak. Izan ere, filosofia etnografiko klasiko horren arabera, mendialdeko biztanleak itsusiak ziren, hortzak belztuak zituzten, usain txarra zuten, etab. Arriskutsuak eta basatiak ziren, gaizki hitz egiten zuten latina, hizkuntza ulertezina zuten eta ilea luzea eramaten zuten. Gainera, senez, gerrazaleak, bortitzak eta bidelapurrak ziren. Irudi hori finkatu zen irudimen kolektiboan, eta horrela transmititu zuten egile klasikoek beraien lanetan: Salustio, Tito Livio, Plinio Zaharra, Ptolomeo, *Historia Augusta*, Aurelio Prudencio, Avieno, eta aipamen berezia merezi duten, Estrabon, Ausonio eta Paulino Nolakoa.

Egun ditugun aztarnek euskaldunek eta erromatarrek elkarbizitza nahiko baketsua mantendu zutela eta integratu egin zirela iradokitzen dute. Beraz, esan dezakegu egile klasikoek eskaintzen duten antzinako euskaldunei buruzko ikuspegia ez dela zuzena. Denbora luzez, irudi klasiko horrek eragin handia izan zuen egungo historiografiarengan, orduko euskaldunak nolakoak ziren eta erromatar presentzia gure lurraldean aztertzerako orduan. Baina, gaur egun, nahiko argi dago egile klasikoek zabaldutako irudi hori okerra dela.

Erdi Aroko egile merobingiar, karolingiar eta bisigotiarren lanetan sustrai klasikoak antzematen dira. Izan ere, Antzinaroko joerarekin jarraituz, baskoiei buruzko irudi barbaro, basati eta gerrazalea eskainiko dute, beraien *perfidia* deskribatuz. IX. eta XII. mendeen arteko kronikagileek ildo beretik jarraitu zuten, 778an gertatutako Orreagako Guduaren ondorioz, euskaldunen irudia are okerragoa bihurtu zelarik. Kasu honetan ere, ematen zen irudia eta errealitatea nahiko ezberdinak ziren. Egile klasikoen eragina Erdi Aroan aztertzeko lan ezberdinak erabiliko ditugu: San Isidororen lan historikoak, Eginhardoren *Vita Karoli* eta *Annales Regni Francorum* (nahiz eta ez zuen berak idatzi), *Ravenako anonimoa*, *Alfontso III.aren kronika*, Aymeric Picauden *Liber Sancti Iacobi-Codex Calixtinus* eta *Historia Compostelana.*

XIV. mendetik aurrera, lurralde hauetako antzinako biztanleei buruz hitz egiten diguten beste kronika mota batzuk izango ditugu. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan

krisiaren eta beheraldiaren ondoriozko Bando Gerrateei buruzko kronikak izango dira, hain zuzen ere. Baina, argi utzi behar da, *Bandoen Gerratea* esaterakoan, testuinguru horretan gertatutako gizarte gatazka guztiei buruz ari garela: nekazarien eta nobleen arteko gatazkak, nobleen eta hiribilduetako biztanleen arteko gatazkak, nobleek beraien artean zituzten gatazkak, etab. Testuinguru honetan, bi autore nagusiren lanak aztertuko ditugu: Alonso de Palenciaren kronika eta Lope Garcia de Salazarren *Bienandanzas e Fortunas.*

Gai benetan interesgarria iruditzen zaigulako aukeratu dugu. Gure hipotesia frogatzeko, batez ere, bigarren mailako iturriak erabili ditugu, iturri bibliografikoetara, beste egile batzuek gai honen inguruan idatzirikora, jo dugu eta esan beharra dago bibliografia ugari dagoela. Baina, era berean, lehen eskuko iturriak ahal izan dugun neurrian erabili ditugu, adibidez, Lope Garcia de Salazarren edo Alonso de Palenciaren kasuetan.

Besterik gabe, ideia nagusiak plazaratu eta azalpen orokor hauek egin ostean, gure aztergaia jorratzeari, fenomeno historiko baten bilakaera bi aroetan zehar aztertzeari, ekingo diogu.

## I. Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko historiografia greziar eta latindarra

Lanaren pasarte edo zati honetan idazle klasikoek euskaldunei buruz zeukaten iritzia landuko dugu. Honi lotuta barbaroaren kontzeptuaren argibideak eman ditugu autore greko-latindarrek agertu ohi zituzten aurreiritziak aipatuz. Ondoren, Inperio Erromatarreko mendebaldeko eta ekialdeko herriak aztertu ditugu, nolabait garai honetan testuingurua ezagutarazteagatik. Azkenik, iparraldeko herriak aztertu ditugu, kantabroak, astureak eta baskoiak.

### I. 1. Historiografia greziarra eta latindarra: alde etnografikoa. Barbaroen kontzeptua

Herodotok, historialari greziarrak, grekoak eta barbaroak aztertu zituen. Pertsiarren izaera nahiko objektiboki azaldu zuen ez zegoelako pertsiarren aurka. Herodotok ez zuen ulertzen greziarren barbaroenganako gorrotoa. Hala ere, historialari honek atenastarrak lar miresten zituen eta, behin baino gehiagotan, adierazi zuen atenastarrak izan zirela pertsiarren kontrako gerraren irabazle ukaezinak. Herodotok ez zuen onartzen espartarren parte-hartze garrantzitsua, hauek ere irabazle izan baitziren. Argi dago atenastarrak goraipatzen zituela beste guztiak alde batera utziz. Tuzidides, aldiz, Atenasetik erbesteratua izanik Esparta hiriaren aldekoa zen eta atenastarrak kritikatzen zituen. Idazle honentzat atenastarrak espartarrei esker irabazi zuten Pertsiako gerra.

Xenofontek bat egiten zuen Herodotorekin barbaroenganako irudian. Atenastarrei buruzko informazio nahiko pobrea eskaintzen zuen eta Tebasekoak gorroto zituenez, hauei buruzko informazioa ez zen oso fidagarria.

Honekin guztiarekin lotuta Platonek adierazi zuen lurralde baten ohorea handitzeko gezur batzuk esatea derrigorrezkoa zela. Filosofo honek, bada, beste idazleen chauvinismoa justifikatzen zuen.

Polibio, lehen aipatutako beste idazleak bezala, greziarren ekintzen aldekoa zen eta hauen irudia besteengandik gailentzen zuen. Hala ere, erromatarren inperioaren hasieran eta Grezia Erromaren menpe geratu zenean, ez zituen erromatarrak inbaditzaile edo erasotzaile bezala ikusten. Aldiz erromatarren politikaren gaia jorratzerakoan kontrakotasun nahiko antzematen zaio. Barbaroenganako ikuspegiari dagokionez, ezberdintasun nabariak ikusten zituen ekialde eta mendebaldearen artean. Mendebaldeko barbaroen aldekoa agertu zen behin baino gehiagotan eta honen ustez, Bigarren Gerra Punikoen eragileak Kartagotarrak izan ziren.

Salustio eta Livio Erromaren aldekoak ziren eta beraien lan guztiak Erromaren irudia goraipatzeko egin zituzten. Erromaren ekintzen aurrean guztiz subjektiboak ziren. Livioren hitzetan:

> Espero dut Erroma zaharrarenganako daukadan pasioak nire irizpidean eraginik ez izatea. Benetan uste dut ez dagoela Erroma bezalako beste herri garatuagorik. Ez da egon beste herririk lizunkeriatik eta zekenkeriatik kanpo geratu denik.[1]

[1] Grant (1995: 72).

Plutarko greziarra izanik bere herriaren aldekoa zen. Honen ikuspuntutik erromatarrak eta greziarrak berdinak ziren. Argi zeukan agintariak erromatarrak zirela baina uste zuen greziarrak behar zuten ikaskuntza jaso izan balute agintariak izango zirela erromatarren lekua hartuz. Ideia honekin Halikarnasoko Dionisiok bat egiten zuen.

Mundu greko- erromatarraren irudirik garatuena Estrabonek eman zuen. Geografo honen lana zibilizazio eta ez zibilizazioan oinarritzen zen. Mendi eta lautadaren arteko bereizketa egin zuen, batez ere. Honen aburuz zibilizazioa *polis*ean, hiri-estatuetan, oinarritutako hiri fenomenoa zen. Estrabonek irudikatzen zuen Europan mendiak eta haranak batera bizi ziren baina harana gailentzen zen agintari politikoen laguntzari esker.

> Bere osotasunean lautadaren eta mendien artean dibertsifikatua dago, era horretan nekazaritza eta zibilizazioa aspektu gerrazaleen ondoan bizi dira; bi aspektuen artean bakea maite duena gailentzen da eta, ondorioz, boterearen kontrola daukana da; gailendutako nazioak ere –lehenengo greziarrak eta ondoren mazedoniarrak eta erromatarrak– eragina izan dute honetan. [2]

Beste idazki batzuetan adierazten da nola erromatarrek mendietako gizon basatiak zibilizatu zituzten eta nola haranetara jaitsarazi zituzten nekazaritza landu zezaten. Augustoren erregealdian erromatar eragina Iberiar Penintsularen barruko aldera hedatu zen eta garaipen handitzat hartu zen mendietan bizi ziren tribuak lautadara jaitsaraztea. Ekintza honek eragina izan zuen Iberiar Penintsularen zatirik handienean. Hala ere, Hispania iparraldeko tribuak, hegoaldeko herriak eta lusitaniarrak tributan bizitzen segitu zuten mendietan, trukeak egiten zituztela, garagardoa edanez ardoaren ordez, gurina erabiliz olioaren ordez eta ezkurrak janez. Hala ere, Estrabonek bazekien mendiko tribuek elkartrukeak egiten zituztela haien lurraldeen pobretasunagatik eta ez benetan nahi zutelako. Antzinaro osoan zehar mendiko tribu hauek bandolero, basati eta barbaro izaera mantendu zuten.

Mendiez gain, Europako iparraldea ere zibilizatu gabekoa zela esaten zen. Diodoro Siculok Galiako zelatak aztertu zituen:

> Klima hotzaren ondorioz lurrak ez du ardorik ezta oliorik produzitzen eta, ondorioz, galiarrak garagarrarekin egindako edari bat egiten dute *zythos* edo garagardo izenarekin izendatzen dutena. Galiarrei ardoa asko gustatzen zaie eta merkatariek eramaten dietena laster hartzen dute, mozkor daudenean zoratu egiten dira.[3]

Diodoro Siculok galiarrei atxikitako ezaugarri hauek barbaro guztiak deskribatzeko balio zuten, erromatarrentzat ezaugarri hauek barbarotasuna adierazten baitzuten.

Erromatarren helburu espantsionistak pragmatikoak ziren eta ez kulturalak. Mugetako herriak neutralizatu eta menperatzen zituzten. Erromatarren politikan barbaroenganako gailentasuna erakustea garrantzitsua zen.

Estrabon eta beste klasiko batzuk ez zuten ondo ezagutzen ezta beraien lurraldea ere. Ondorioz, mediterraneotik at zegoen geografia ez zuten bat ere ezagutzen. Honen zergati nagusia interes falta zen.

Probintziako jendeak Inperioa nola ikusten zuen jakiteko Elio Aristides

[2] Garnsey – Saller (1991: 23).
[3] Garnsey – Saller (1991: 23).

kontutan hartzen zen. Aristides-ek Erroma goraipatzen zuen bere lanetan. Adibidez:

> Egin duzue "erromatar" hitza hiri batena bakarrik ez izatea, baizik eta arraza baten izena izatea, eta ez dago beste arrazetatik bereizita baizik eta denak orekatzen dituelako. Orain ez dira arrazak greziar eta barbaroen artean bereizten, jendea erromatar eta ez erromatarren artean bereizi duzue. Hala ere, ez dago inbidiarik zuen Inperioan. Zuek izan zarete dena komunean jarri duzuenak eta gai direnak agintari bezala jarri dituzuenak.[4]

Greziarrentzat eta Aristidesentzat, hauen ordezkariarentzat, Erromaren garaipenik nabarmenena eta garrantzitsuena hiriko kulturaren eta zibilizazio helenistikoaren goraldia lortzea izan zen. Erromaren menpeko batasuna bigarren mailako gaia zen. Nahiz eta Aristides-ek erromatar eta ez erromatarren arteko bereizketa azpimarratu, azkenean, greziar eta barbaroen arteko bereizketa egiten zuen, beste jendeak bezala. Aristides-ek beste idazle eta historialari askok bezala ez zion arretarik jartzen mundu ez mediterranearrari.

Dion Casiok panonioei buruzko informazioa eman zuen eta Tazitok Germania, Galia eta Britaniari buruzkoa. Tazitok Erromaren kontrako heroiei erromatarrek ahaztuta zituzten bertuteak ematen zizkien: askatasunerako grina. Tazito, batez ere, konkistatu gabeko herrienganako interesa izan zuen, germanoei buruzko monografia bat idatzi zuen (konkistatu gabeak ziren) eta galiarrei buruz ez (konkistatuak izan ziren).

Orokorrean, Erromara eta Greziara lotutako idazle gehienak barbaroen irudiari buruz idatzi zuten. Arrazismoa eta xenofobia gizatasunaren hasieratik zegoen. "Bestea" autodefiniziorako beharrezkoa izan da. Mugak jartzearen beharra indibidualismoaren oinarria izan da. Bestearenganako beldurra eta kontrakotasuna oinarrizkoak izan dira geroko kultura eta zibilizazioaren eraketarako.

Barbaro hitzaren historiari dagokionez, zibilizazioa grekoaren goren aldian sortu zen. Hitz honek bi esanahi mota gordetzen zituen. Alde batetik, hitz deskriptiboa zen, hots, grekoak ez ziren hizkuntza, geografia eta etniak izendatzeko erabiltzen zena. Bestalde, hitz honek kutsu ezkorra zeukan eta kontra-modelo kulturalera lotzen zen. Esanahi hau Heraklitoren garaian agertu zen. Ondorioz, greziarrak izan ziren, haien burua munduko oinarri ikusirik, beste herriak barbarotzat hartzen zituztenak.

V. mendean barbaro hitzak definizio berri bat hartu zuen, garai honetan etsai heredagarria izendatzeko erabiltzen zen. Esanahi berri hau Gerra Medikoen ostean agertu zen, pertsiarrak eta greziarrak borrokan zeudenean. Greziarrentzat despotismoa, espiritu zerbitzaria, krudeltasuna eta gehiegizko luxua pertsiarren eta, ondorioz, barbaroen ezaugarriak ziren. Pertsiarrak eta hauen bizimodua aztertuz konturatu gaitezke oso zibilizazio garatua zela eta, horregatik, badakigu greziarrek subjektibotasun osoz deskribatzen zituztela.

Greziar eta barbaroen arteko etsaitasun hau argia da bai literaturan eta bai beste tradizio artistikoetan. Antzerkian helenismoaren gailentasuna azpimarratzen zen. Ezagutzen ditugun hirurehun tragedietatik erdia lurralde barbaroetan kokatzen ziren eta pertsonaia barbaroak izaten zituzten.

---

[4] Garnsey – Saller (1991: 23).

Ikusi dugunez barbaro hitzaren jatorria greziarra da eta greziera ondo hitz egiten ez zekitenei atxikitzen zaie. Hala ere, erromatarrak izan ziren kontzepturen izaera ezarri zutenak eta mendebaldeko kulturara hedatu zutenak.

Barbaro eta erromatarren arteko gerretan erromatarrak barbaroak deskribatzen zituzten pertsona ikaragarri eta erraldoi bezala. Erromatarren aburuz, ezkutatuta, leku ilunetan (basoak adibidez) eta ordena gabe borrokatzen zuten.

Erromatarrak barbaro hitzari kutsu moral bat eman zioten. Antitesi bezala moralkiago garatuagoa zen izaki bat sartu zuten: Erromako kualitate moralak garatuenak ziren (*virtus*, *sapientia* eta *veritas*) eta iparraldeko herri basatien kontra borrokatzen zuten kualitate hauek. Barbaroak zibilizaziorako prozesuaren adar batean zeuden eta prozesu zibilizatzaile hori Erromako hedapenarekin, hots, Inperiorekin, nahasten zen.

Barbaroaren irudian garapen historiko bat zegoen. Garapen hori Erromako hedapenera lotua zegoen, errepublika garaian jarraitzen zuen, gelditu zen Teutoburg-en Augustoren garaian (non germaniarrek irabazi zuten) eta zona batzuetara mugatu zen Trajanoren Printzipatuaren garaian. K.o. II. mendetik aurrera armada profesional baten menpeko *limes* batzuk ezarri ziren zona batzutan. *Limes* hauei esker Inperio osoan *pax romana* delakoa gozatzen zen. *Limes* hauetatik at *barbari* edo *gentes externae* delakoak geratzen ziren. Erromaren hedapena eman zen heinean lehenago etsaiak ziren zenbait herri Inperioan sartu ziren. Ondorioz, barbaroaren figura nahiko mugikorra bihurtu zen. Errepublika garaian erromatarrentzat zeltak ziren barbaroek baina Inperio garaian germaniarrak hartu zuten izan hau.

Zakuraketa, migrazio eta erasoen ondoren barbaro batzuk Inperioan sartu ziren armadako kide bezala. Armada barbaroa bihurtzen da kanpoko erasoei erantzuteko. Era honetan garai baten barbaroak izandakoen integrazioa bultzatzen da eta huen maila soziala ere hobetzen da.

IV. mendeko Inperioren krisialdian barbaro berriak agertzen dira, hunoak. Hunoak izango dira lehenengo germaniar erasotzaileak. Hemendik aurrera Inperioa behin baino gehiagotan erasotua izan zen germaniarrengatik.

## I. 2. Inperio Erromatarraren herriak: Mendebaldea eta Ekialdea




Erromatar Inperioa Augustoren egunetan[5]

Mendebaldeko bizitza zibilizatua hirietan oinarritzen zen. Landa munduari dakiguna hiriko gizonei esker dakigu. Hiriko gizon hauentzat nekazariak burlarako balio zuten. Noizean behin, baina ez askotan, hirietako gizonak nekazarien beharraz eta garrantziaz hitz egiten zuten, landa mundua diru iturri garrantzitsua zelako.

Mendea askotan zehar nekazariak isilik egon ziren, batzuetan isiltasun hau hausten zuten beraien bizitza maila tamalgarria eta gobernuak eta hiriek egiten zieten erasoak salatzeko. Salaketa hauen bidez jakin dezakegu zelako legeak zituzten, enperadore eta buruzagien ediktuak zeintzuk ziren eta nolako akordioetara heltzen ziren egoera hobetzeko.

Probintzia erromatarren goi mailakoak eta hirietako biztanleak helenizatuak eta erromatartuak zeuden. Hirietan hau gertatzen zein heinean, landak garapen geldoa zeukan, baita Inperioaren bi hizkuntza ofizialen onarpenean ere. Hizkuntza hauek erabiltzen zituzten hiriko biztanleekin eta administrazioarekin baina haien artean betiko hizkuntzarekin hitz egiten zuten. Arbasoen sinesmen erlijiosoak ere ezagutzen ditugu, nahiz eta hauen jainko eta jainkosak itxura eta izen erromatarrak hartu izan. Nahiz eta izen eta itxura erromatarrak izan meneratzen zituzten jainkoak haien betiko jainkoak ziren. Horrez gain, nekazariak bizitza ekonomikoko eta sozialeko era tradizionalak mantentzen zituzten.

Mendebaldeko herrien ezaugarri orokorrak aipatu ondoren zenbait probintziaren ezaugarriak garatuko ditugu ideia osoago bat izateko. Italiarekin hasiz, hau K.o. I. mendean eta II. mendearen erdialdera arte Inperioko herrialderik landuena izan zen. Kanpotik eta probintzietatik ekarritako produktuak penintsulan landutako ardoekin ordaintzen ziren. Ardoaren produkzioa era zientifiko eta kapitalista baten antolatua zegoen eta salerosketara bideratua zegoen.

---

[5] Kinder – Hilgemann (2000).

K.o. 79. urtean Vesuvioko eztanda gertatu zen eta honek ekonomiari kalte handia egin zion. Italiako industriaren eta merkataritzaren gainbehera eman zen eta horren ondorioz burgesia pobretu zen, hau nekazaritza zientifikoaren eta kapitalistaren oinarria zelarik. Garai honetan ere kapitalistek lur jabe txikiak haien lurretatik bota zituzten.

Erromako antzinako aristokrazia desagertu zen. Aristokrata hauek probintzian zeuzkaten lurrak enperadorearen esku geratu ziren. Enperadorearen Italiako jabetzei buruz gutxi dakigu, beharbada jabetzak funtzionarioz osaturiko aristokrazia berriari transferitzen zizkien.

Burokrazia eta aristokrazia senatorialeko kideak probintziakoak ziren. Mendebaldean Espainia, Galia eta Afrikako eta ekialdean Asia Txikiko eta Siriako familia boteretsuen kideak izaten ziren. Hauen interes ekonomikoak probintzian oinarritzen ziren, gehienak probintzietako lur teniente aberatsak ziren. Hala ere, Inperioko armadan parte hartu zutenean Erromara lotu ziren probintzia alde batera utziz. Erroman ezarri ziren eta diruaren zati bat probintzian inbertitu zuten.

Aristokrazia inperialarekin batera merkatariak eta bankari aberatsak zeuden. Erromatar aberats gehienak probintzian jaiotakoak ziren. Haien diruaren kokapen ziurra izateko Italian inbertitzen zuten, hurbil zutelako eta erraz administra zezaketen.

Kapitalista handien presioaren ondorioz, nekazarien lur jabetza txikiak desagertu ziren, aristokraziaren latifundioengatik irentsiak izan zirelako. Hala ere, nekazari guztiak ez ziren desagertu. Italiako hegoaldean nekazarien zenbakia murriztu zen. Hala ere, Italiako erdialdean eta Po-ko haranean nekazariak biztanleriaren gehiengoa izaten jarraitu zuten. Gehienak ez ziren jabeak baina hiriko burgesiaren lur sailetan kolono moduan lan egiten zuten. Lur-teniente handiek kolonoen lana nahiago zuten esklaboena baino.

Siziliari dagokionez, zaila da pentsatzea hirien lurraldeetan irla banatua zegoenik. Feniziarren menpeko irlaren zatia eta barnealdeko zatia, greziarren menpe zegoena, ez zegoen horrela banatua. Erromatarrak ez zuten hirigintza sakona bultzatu Sizilian, ez zuten hiri berririk fundatu eta gainbeheran zauden hiriak gailentzeko ez zuten ezer egin.

Lehenengo mendeetan zehar Siziliako irla hiri garrantzitsuz eta *civitates* delako askoz osatua zegoen. Hala ere, bazeuden bertako jendeaz osaturiko hiri ez hain garatuak. *Civitates* bi hauek ezaugarri berdinak zituzten: nekazariz eta abeltzainez osatuak zeuden. Erromatarren eta enperadoreen jabetzak beste jabetza guztiak bezala lantzen ziren. Aberats batzuen latifundioak ziren lurrik aberatsenak eta hauen abereak esklaboengatik gordetzen ziren. Orokorrean, enperadoreek lortu zuten Sizilia gari eta larrez beteriko biltegi bezala mantentzea. Hala ere, bazeuden zona batzuk ekonomi garatuago batekin.

Sardinia hiriko bizitza nahiko motelki garatu zen, bai errepublika garaian eta baita Inperio garaian ere. Caralis eta Turris irlako hiririk garrantzitsuenak ziren eta biak gari esplotaziorako eta metalen meatzaritzarako portu handiak ziren. Barnealdean tribu banaketa mantentzen zen. Tribu hauetako batzuk unitate administratiboak osatu zituzten eta beste batzuk lur eremu handietan bizi ziren. Lur hauek kolono bezala lantzen zituzten eta jaunentzat abeltzain lanak egiten zituzten.

Kortsikari buruz oso gutxi dakigu. Inskripzio bati esker badakigu irla tribuengatik populatua zegoela. Tribu hauei Augustok antolaketa bat inposatu zien. Lurraren zatirik handiena enperadorearena zen. Beste zati bat Marioren kolonia baten esku zegoen eta geratzen zena tribuena zen.

Hispainia mendebaldeko probintziarik erromatartuena izan zela uste da. Hispainiako zona batzuk guztiz erromatartuak egon ziren, Baetica Italiartzat hartzen zen baina Hispainiaren barruan. Iberiar kulturaren antzinatasuna ezaguna da eta badakigu harreman zuzenak zituela mediterraneoko kulturekin Aldi Minoikotik. Horrez gain, badakigu greziarrak eta feniziarrak Hispainiako hegoaldean ezarri zirela eta han hirigintza grekoa eta ekialdekoa ezarri zutela. Erromatarrak azkenak izan ziren heltzen.

Hispainiako mendebaldeko eta erdialdeko zonen garapena iturri naturalen ustiaketara lotua zegoen. Nekazaritza, batez ere olioaren eta lihoaren produkzioa, eta meatzaritza (zilarra, kobrea, burdina, eztainua eta beruna) aberastasun iturri nagusienak izan ziren. Hispainia Inperioko meatzaritza gune garrantzitsuena zen.

Hispainiako hegoaldeko aberastasun eta garapenek kolonizazio gune bihurtu zuten penintsula. Aurretiko kolonizatzaileen ondorengoak eta oraingo kolonizatzaileak bertako burgesia berria osatu zuten. Lusitanian, Baetican eta Tarraconensisen aurkitutako hiri izugarrien aztarnak argi uzten dute biztanleriaren garapena nolako izan zen. Hala ere, Hispainiako hegoaldeko finka handi asko ez ziren jabetza pribatukoak. Konkistaren lehenengo urteetatik, biztanle erromatarrak lur sail handiak eta meategi gehienak izan zituzten. Finka publiko horien ustiakuntzari eta jabetza inperialari buruz ez dakigu ezer.

Lusitania eta probintzia ziteriorraren iparraldean, batez ere zelten, astureen eta galaikoen lurraldeetan, erromatarkuntza ez zen oso handi izan. Lurralde hauek ez ziren oso erakargarriak kolonizatzaileentzat. Erromatarkuntza eta hirigintza ez ziren oso sakonak izan eta klan eta tribuen antolaketa mantendu zen. Nahiz eta Vespasianok tribuei eskubide latinoak eman, horrez ez du esan nahi tribu hauek erromatartuak zeudenik. Benetan esan nahi duena da tribuetako zati bat erromatartua izan zela zerbitzu militarraren bidez eta hauek tribuetako buruzagiak izaten zirela. Lurralde hauetako bizitza soziala eta ekonomikoari buruzko informazioaren eskasiak argi uzten du Vespasianoren erreformek ez zutela lurraldea aberastu eta garrantzirik izan gabe mantendu zirela. Lurralde hauetako hiriak ez zuten kostaldeko hirien aberastasun eta garapen maila lortu. Beti bezala jarraitu zuten, erromatartu gabe.

Galiako bizitza sozial eta ekonomikoari buruzko informazio gehiago daukagu. Galia Narbonensea Akitania eta Galia Lugudunensea baino erromatartuagoa zegoen. Galian kolonia erromatarrak oso ugariak ziren eta hauengana lur saila handiak lotuak zeuden. Kolonia hauetako batzuk merkataritza eta industri hiri oso aberatsak izatera heldu ziren, beste batzuk oso ondo ustiatu ziren. Probintziako bi tribu garrantzitsuenen lurraldetan, *vocontii* eta *alóbroges*-en lurraldeetan, garapena nahiko berezia izan zen. Lurralde hauek oso landatarrak izaten jarraitu zuten denbora luzez, oso hiri gutxi zituzten. Pixkanaka *pagi* eta *vici*-ak benetako hirien itxura hartu zuten. hala ere, administrazioa ez zen guztiz hiritarra izatera heldu.

Lurren jabetza esku gutxiren esku zegoen. Enperadoreen esku hartzea ez dugu ondo ezagutzen, Narbonenseko inskribu batzuk enperadorearen funtzionarioei

buruzko aipuak agertzen dituzte. Lur teniente nagusiak hiri nagusi eta aberatsetako biztanleen artean zeuden eta italiar jatorrikoak ziren. Gainontzeko probintzia galiarrei dagokionez, hiriak oso motelki garatu ziren eta hauetako biztanleria merkataria, industriala eta funtzionarioz jositakoa zen. Lurraren ustiaketa arau zientifiko eta kapitalistetara lotua zegoen. Ekonomia honen ordezkariak lur tenienteak ziren, tribuetako aristokraziako kideak zirenak, lurraren jabeak konkistaren aurretik eta ostean, eta kanpotik etorritakoak, industria eta bankuei esker aberastu zirenak. Bertako artisau eta merkatariek ere dirua lurretan inbertitzen zuten. Frantzia eta Belgikan egindako indusketetan bi motatako finkak agertu dira: lur teniente handien *Vila* handiak eta *Vila* apalagoak.

Germaniaren kasuan, jakina da Rhin-aren inguruko bi probintziak, Germania behekoa eta goikoa, nahiko berantiarrak zirela eta Rhin ibaia denbora luzez galiarrekiko muga militarra izan zela. Vespasiano eta bere semeak Germaniaren konkista bultzatu zuten arrazoi militarrengatik, lur onak lortzearen beharragatik eta Rhin eta Danubioren arteko errepide sare labur eta onago bat eratzeagatik. Vespasiano, Tito, Domiziano eta Trajanoren lanek helburua lortu zuten, lurralde berriaren inguruan harresi berria eratu zen eta Rhin eta Danubioren arteko errepide sistema hobetu zen. Rhin inguruko herrialdeak ez ziren osotasunean Galiako muga militar bezala administratu, baizik eta bi probintziatan banatu zirela: Rhin-eko beheko probintzia eta Rhin-eko goiko probintzia. Banaketa hau nahiko teorikoa zen, benetako banaketa Rhin-eko eskuineko eta ezkerreko kostaldeen artean eman zen. Ezkerraldeko hiri nagusienak, Augusta Treverorum izan ezik, jatorri militarrekoak ziren. Hauetako guztiak gotorleku militarren inguruan sortu ziren, *canabae* izena hartzen zutenak, eta pixkanaka hiri izatera pasatu zirenak. Hiri militar eta erromatar hauek garapen propioa izan zuten, Germaniako barrualdeko zonetatik bereizita. Okupazio erromatarra eman zenean Rhin-eko ezkerraldea ez zegoen jabe barik. Zelten zati bat zen eta bere hiri, herri eta jauregi propioak zituen. Zesar osteko antolaketa berriak, tribu germaniar askoren ezarketak eta mugekiko harreman estuak garapen ekonomikoa ekarri zuten. Ikuspuntu ekonomikotik, zona hau kapitalismoaren paradisua zen. Bere aberastasuna eta emankortasuna armadaren horniketara bideratzen zen. Herrialdeak hasieratik immigrante ugari erakarri zituen eta hauek armadaren horniketan oinarritu ziren. Gizon hauek merkatari garrantzitsuak ziren. Gune garrantzitsuenak Treberi, Kolonia eta Nimega ziren. Hala ere, hauetako hiririk garrantzitsuena Treberi zen. Bertako jendeak armada hornitzera bideratu zen eta irabazitako dirua bertako enpresatan inbertitzen zuten. Berehala gari, abere eta ardo inportaziorako enpresak sortzeko nahia piztu zen eta herrian artilezko eta metalezko produktuak egiteari ekin zioten. Hau lortzeko nekazaritza, abeltzaintza eta ardogintza eskala handian eta metodo kapitalistekin bultzatu ziren. Era honetan Rhin-eko ezkerraldea enpresa kapitalisten gune garrantzitsuena bihurtu zen. Lurralde hauetako kapitalistak merkataritza eta nekazaritza ekintzei diru maileguak batzen zizkieten. Gizarte berriaren bankariak ziren. *Vilak* ez ziren enpresa industrial eta nekazariak bakarrik, bankuak ere izaten ziren.

Rhin ibaiaren eskuinaldean egoera desberdina izan zen. Erromatarrek hartutako zona hau aberatsa eta emankorra zen, baina ez zeuzkan biztanle askorik. Erromatar eta germaniarren arteko gerren gunea izan zen. Egoera honengatik ez zen oso leku ziurra eta ezta leku erakargarria bertan ezartzeko. Erromatarrek bakea ezarri zuten lehenengo aldiz zona honetan. Gotorlekuak eraiki zituzten, batez ere ibaiaren ondoko leku estrategikoetan eta bide gurutzetan. Indigenak lurra gehiago lantzen hasi ziren, armadako kide ohiak gotorlekuen ondoko lur sailak eskuratu zituzten eta lur hauek soldaduei alokatu zizkieten. Herrialde osoa Estatuarena zen

eta administrazio inperialak antolatzen zuen. Domeinu hauek natiboen esku geratzen ziren edo beteranoei ematen zitzaizkien edo inmigrante aberatsei saltzen zitzaizkien.

Bakea guztiz ezarri zenean lurralde hau oso erakargarria bihurtu zen, nekazal gune eta herri berriak agertu ziren eta herrialdea azpibanatu zen, *civitates*-etan, Galiaren eredua jarraituz. Hauetako batzuk, *limes*-etik hurbil zeudenak, soldadu aktiboei eman zitzaizkien. *Vila* ohikoenak etxe handi eta eroso, baina ez luxuzko, bat izaten zuen. Jabeak jende dirudunak izaten ziren baina ez lur-teniente aberats okituak. Etxe edo baserri hauek abeltzaintza eta gariaren ustiaketa lantzen zuten. Natiboak kolono edo lur-tenienteen abeltzainak izatera pasatu ziren.

Britainiak Galiaren luzapen bat suposatzen zuen. Beheko lurren mendekotasuna, mendebaldeko lurren okupazio militarrengatik ziurtatua, eta Eskoziaren konkistarako ezeztapenak, *limes* baten eraikuntza ekarri zuena, suposatzen zuen Galia eta Germaniaren luzapena iparralderantz. Garapen sozial eta ekonomikoan, Britainiak antzekotasun handiak zeuzkan Rhin inguruko herrialdeekin, batez ere ezkerraldeko lurraldeekin.

Mugen ingurutako lurretan bizitza Rhin inguruaren antzekoa zen. Beheko lurraldeetan hirietako bizitza konkistara oso lotua egon zen. Britainiako lau koloniek (*Camalodunum*, *Glevum*, *Eburacum* eta *Lindum*) jatorri militarra zeukaten eta Germaniako kolonien antzekoak ziren. *Londinium* merkatal hiririk garrantzitsuena zen eta *Treberi*-k Galian betetzen zuen paper berdina betetzen zuen. Britainiako beste hiri erromatarrak zelten lurraldeak ziren, nekazariei merkatu onak ematen zizkietenak, tribuen hiriburuak ere izaten ziren eta bizitza administratibo, industrial, merkatal eta erlijiosoaren guneak.

Britainia ez zen hiriz beteriko herrialdea, *Vilaz* eta lur teniente handiz osatutako lurraldea zen. Lur-teniente handi hauetako batzuk emigrante erromatarrak ziren eta, beste batzuk, indigenen arteko aristokratak.

Britainiako garapen sozial eta ekonomikoa Galiaren eta bi Germanien antzekoa izan zen. Okupazio militarrak bizitza eta bakea eman zion herrialdeari. Lur ez oso emankorrak asko hobetu ziren eta honek onura asko ekarri zituen. Kontsumitzaile nagusiena armada izan zen. Lur jabe gehienak ez zituzten beraien lurrak lantzen, esklaboak eta natiboak izaten ziren lurrak landu eta animaliak zaintzen zituztenak. Zonarik pobreenetan baserritarrek jabetza txikiak izaten zituzten, baina zonarik emankorrenetan lur jabea jende aberatsa izaten zen. Hirietako jendeak latina ikasi zuen baina, hala ere, zibilizazio greko erromatarreko hirietatik eta harremanetatik aldenduak geratu ziren.

Mendebaldeko herrialdeekin bukatuz, Mazedonia aipatu behako genuke. Mazedonia ez zen inoiz, ekialdeko kostaldea kenduta, hiriz beteriko herrialdea izan. Mazedoniako indarra nekazarien mailan oinarritzen zen, hots, herrietan. Mazedoniako gerretan herrialdeak galera handiak izan zituen. Errepublika erromatarraren eskuetan zegoenean barbaroen inbasio ugari jasan zituen. Ondoren, gerra zibilen lekukoa izan zen. Ondorioz, ez da harritzekoa garai honetan lehen baino populazio gutxiago izatea. Populazioaren beherakadagatik eta zeukan garrantzi estrategikoagatik Augustok erromatarkuntza bultzatu zuen. Helburu honekin beterano eta hiritar zibil ugari bidali zituen eta lurralde erromatarrek zituzten eskubideak eskaini zizkion. Etorritako jende berria nekazaritzarako lurren jabeak izatera pasatu ziren eta oso paper garrantzitsua betetzen zuten bai hiri eta bai

herrietan. Hala ere, ekonomia tribu indigenetan oinarritzen jarraitu zuen.

Mendebaldetik Egeo itsasoa gurutzatzen dugunean mundu desberdin batean sartzen gara, ekialdeko zibilizazioan sartzen gara. Hemen ere, ekialdeko egoera hobeto ulertzeko herrialdeka aztertuko dugu. Asia Txikiarekin hasiz, hau oso zona aberatsa eta emankorra zen. Asia Txikiko probintzietan lurraren jabetza ezberdin ugari aurkitzen ziren. Lehenengo eta behin, jabetza handi eta txikiaren sistema zegoen, nagusia zena hiri grekoetan eta erromatarrengatik errekonozitua izan zena. Horrela ustiatutako lurrak jabeek edo esklaboek eta kolonoek lantzen zituzten. Hiri greziarrak indigenek landutako lur ugari zeuzkaten. Lur hauek indigenen etxebizitzak izaten ziren. Terminologia erromatarraren arabera lur hauek hirietara atxikiak zeuden eta ez zuten hirietako eskubideez gozatzen. Herrietako biztanleek hirietako eskubideak aldarrikatzen zituzten baina aristokraziak ez zuen ezer egiten hauei laguntzeko.

Nahiz eta hiriren kopurua asko handitu, lur ugari ez ziren hiri hauen jabetzakoak. Lur hauek, enperadorearenak eta bere familiarenak, aristokrazia senatorialarenak eta antzinako santutegi indigenenak izan al ziren. Santutegi hauetako batzuk hiriengatik zurgatuak izan ziren baina, beste askok, lurralde bereziak osatzen zituzten, hirietatik oso independenteak zirelarik. Lur hauetan bizitzak baserritar kutsua mantentzen zuen. Lur hauek lantzen zituzten nekazariak hirietatik urrun bizi ziren. Herri hauetako batzuek garapen ekonomikoa izan zuten eta hauetako biztanle batzuk aberastu ziren. Hauek salbuespena osatzen zuten. Asia Txikiko herri gehienak lehengo moduan jarraitu zuten, etxe pobrez eta txikiz osatutako herriak ziren, merkaturako plaza batekin, ostatu batekin eta funtzionario eta agintarien lokalekin. Azkenik, mendi basatietan abeltzain tribuak bizi ziren. Hauek ez ziren arduratzen zergak nori ordaintzeari buruz eta bizitza nahiko nomada zeramaten.

Siriako bizitza ekonomiko eta soziala ezagutzea oso zaila suertatzen da. Siriaren barnean azpi zatiketa bat egin behar da: Siriako iparraldea, Asia Txikiarekin muga egiten zuena, Feniziako kostaldea, Palestina eta basamortuko zonak. Jordaniaren ekialdean kokatutako herrialdeak, *Decapolis* izena hartzen zutenak, eta Petreako Arabia unitate bereziak izaten ziren. Erromak ez zuen behar beste indar herrialde guztiaren antolaketa eta bizitza aldatzeko eta, horregatik, aldaketa txikiak sartzen saiatu zen.

Antiokia, Erromatar Inperioko hiriburua Sirian, Inperioko hiri nagusienetariko eta ederrenetarikoa izan zen. IV. mendean lur komunal gehienak aberats batzuen esku zeuden. Hiri honetako aztarnak nahiko ondo kontserbatu dira eta aurkitu ditugun eraikuntzak izugarriak ziren. Beheko solairuan kortak eta esklaboen logelak zeuden. Goiko solairuan dirudunak bizi ziren.

IV. mendeko idazleen arabera garai honetako nekazariak oso pobreak ziren eta guztiz menperatuak bizi ziren.

Tenplu gehienek immunitate osoz gozatzen zuten. Lur jabeak ziren eta ez zituzten zergak ordaindu behar. Bertan bizi zirenek feriak kontrolatzen zituzten. Leku sakratu batzuk askoz independenteagoak ziren.

Inperio garaiko hiri feniziarrei buruzko informazioa eskasa da. Palestinari dagokionez, kostaldeko hiri grekofilistearrak (Gaza, Anthedon, Ascalona, Joppe,

Ptolemais-Ake) eta Neapolis-eko hiri erromatarra bereizi behar ditugu. Guzti hauek lur sail handiz osatuak zeuden eta indigenek populatzen zituzten. Judea, Galilea eta Samaria herriz beteriko nekazaritza lurraldeak izaten jarraitu zuten. Judeako hiriak deitutakoak gune erlijiosoak ziren. Judeako aberatsak lurren edo artaldeen jabeak izaten ziren. Hala ere, judeako pertsona normalak, diru kontuei begiratuz, nekazariak edo artisau txikiak (zapatagina, arotza, zurgina...) izaten ziren.

Jordan, Transjordania eta Hauran aldeak, basamortuekin batera, oso itxura berezia izaten zuten. Hauetan tribu arabiarrak bizi ziren. Helenismo garaian kolonizazio guneak izan ziren. Alexandrok eta bere ondorengoek hiri ugari, nekazal gune handiak eta lur-tenientez osatutako populaketa ekarri zuten. Inperio Seleuzidaren beheraldian zakuratze ugari jasan zituzten eta errege indigenak berrezarri ziren. Erromatarrekin garai berri bat hasi zen. Erromatarrak Sirian egon ziren urteetan bakea eta garapena eman zen. Hala ere, Siriako ekialdea lehengo antolaketarekin mantendu zen eta orokorrean Siria ez zen helenizatu. Hiri erdi greziar berriak agertu ziren baina, hala ere, populazioaren gehiengoa lehengo eran bizitzen jarraitu zuen.

Egipto, erromatarrek Ekialdetik konkistatutako azken herrialdea izan zen. Erromatarrak laster konturatu ziren Egiptoko antolaketa soziala eta ekonomia aldatzea ezinezkoa zela, horregatik sistema administratiboa bertako erara egokitu zuten. Sistema hau bizitza erlijiosoan, sozialean eta ekonomikoan oinarritzen zen. Egipton, erromatarrek gizarte banaketa eta bakoitzaren betebeharrak aurkitu zituzten, hots, klase sozial bakoitzak bere betebeharrak zituen Estatuarengan. Estatua indigenen lanean oinarritzen zen, batez ere. Indigena hauek nekazariak, langileak, arrantzaleak... izaten ziren. Esklabotzak, bizitza ekonomikoan, bigarren mailako papera betetzen zuen.

Herrietan indigenak taldetan banatzen ziren, lanbidearen araberako banaketa zen. Talde hauek lan egiten zuten Estatuarentzat eta Estatuak kontrolatzen zituen. Talde hauetako kidea izatea derrigorrezkoa zen eta taldez aldatzeko ikerketa gogorrak jasan behar ziren.

Indigenentzat, Estatua, erregearengatik ordezkatua, erlijioaren oinarria zen. Indigenen interesak etxeko bizitzan oinarritzen ziren eta baita jainko eta Estatuarenganako lanean. Hala ere, Estatuak eta jainkoak asko eskatzen zieten eta ez zuten askorik ematen trukean. Batzutan bete beharreko lanak jasanezinak ziren eta horregatik langileak lana egiteari uzten zioten. Greba hauetarako jainkoen auzia egiten zen eta horretarako tenplu batera joan behar ziren. Agintariek arazoa konpondu edo indarraren bidez lan eginarazten zieten.

Natiboak aberatsak edo pobreak izan zitezkeen. Hauetako abilenak eta jakintsuenak egoera hobetzen saiatzen ziren, eta horretarako apaiz edo funtzionario bihurtu behar ziren. Hasieran, apaizak familia zehatzen kideak izaten ziren eta ez zuten kanpoko inor onartzen. Erromatarrekin apaizen paperak garrantzia galdu zuen eta dirua zeukan edonor apaiz bihur zitekeen. Erregearen funtzionario bihurtzea lan zailagoa zen. Kanpotarren domeinuaren aurretik, nahiko erraza zen lan hau betetzera heltzea: hezkuntza ona izatea, idazten eta irakurtzen jakitea, inskribu ofizialen hizkuntza ulertzea eta Estatuaren norakoak ezagutzea nahikoa zen. Erregea egiptiarra izateari utzi zionean eta greziarrak kargua hartu zutenean egoera okertu zen.

Greziarrek Egiptoren jabea bezala ikusten zituzten haien buruak eta ez zuten haien gailentasuna bertako indigenekin banatu nahi. Indigenak guztiz menpekoak ziren eta erregearen "etxea" haien lanarekin mantendu behar zuten. Beraz, erregearen laguntzaileak greziarrak ziren, erregearen jatorri eta kultura berdinekoak. Ondorioz, egiptiarrentzat funtzionario lanak eskuraezinak ziren. Egiptoko administrazioa greziarra zen.

Egiptoko industria, merkataritza eta jarduera ekonomiko guztiak erregearen kontrolpean zeuden. Erregearen monopolioa oso handia zen.

Populazio greziarraren gorakadak eragin handia izan zuen Egipton. Hala ere, bertakoak ez ziren inoiz guztiz helenizatu greziarren kopurua oraindik oso handia ez zelako. Greziarrek ez zuten hiri berririk eraiki, Alexandria eta Ptolemais ez ziren hiri greziarrak izatera heldu. Alexandria errege greziarren bizilekua zen.

Greziar biztanleria erakartzeko programak arrakasta izan zuen. Nekazaritzara lotutako finka ugari sortu ziren. Finka hauetan olibondoak eta mahatsondoak lantzen ziren, besteak beste. Egipton ohikoa egin zen greziera entzutea. Hala ere, ondorioak ez ziren nahi bezain onak izan. Greziar hauek ez zuten lurra lantzen, lan hau bertako indigenek betetzen zuten. Laster konturatu ziren sistema hau ez zela oso errentagarria eta onuragarria. Horrez gain, Egipto barruko egoera geroz eta kaskarragoa zen. Egiptok kanpoan zeukan ospeak behera egin zuen; gerrek dirutza handiak hartu zituzten, administrazioaren funtzionamendua gero eta txarragoa zen, eta egiptiarrek ustelkeria handia jasan zuten. Greziarren egoera ez zen askoz hobeagoa. Alexandriako greziarren altxamenduak eman ziren eta barrualdean, indigenen altxamenduak. Apaizen korporazioak, erregeen ahulezia eta bertako jendearengan zeukaten influentzia aprobetxatuz, gero eta indartsuagoak bihurtu ziren. Geroz eta pribilegio gehiago eskatzen zituzten eta lortu egiten zituzten.

Egoera honetan zegoen Egipto lehengo enperadore erromatarra heldu zenean. Augustok herrialde indartsu eta aberats bat aurkitu zuen: alexandriar indartsuak, funtzionarioz greziarrez osatutako ejertzitoa, era guztietako lur jabeak eta burgesia nekazari bat soldaduz osatutakoa. Horrez gain, tenplu aberats eta eraginkor batzuk zeuden. Hala ere, egoera ekonomikoa ezberdina zen. Biztanleriak ezin zituen funtzionario eta lur jabeen zamak jasan, apaizgoa gero eta indartsuagoa zen, nekazari eta artisauak esklabo bezala bizi ziren eta lehen garatutako eta landutako finka ugari abandonatuak zeuden.

Augustok gogor lan egin zuen Egiptoko ekonomia indartzeko. Zergen sisteman eta antolaketa finantzarioan ez ziren aldaketak burutu: bizitza ekonomikoaren oinarria nekazaritzan, industrian eta garraioetan lan egiten zuten indigenak ziren. Indigenak administraziotik at jarraitzen zuten. Greziar eta erromatarren ekonomia garatzeko saiakera handiak egin ziren eta burgesia garatu bat sortzeko lehenengo pausua eman zen.

Ordena senatorialeko eta equestreko partaideak lurren jabetzan parte hartu zuten enperadorearekin batera. Senatore eta equites hauen aurka enperadorearen liberto gogokoenak zeuden. Azken maila honetan familia judutar garrantzitsuak sartzen ziren.

Latifundio ugari sortu ziren kolono militarrei lurrak erosteari esker. Latifundio hauetako batzuk zergak ordaintzeaz libratzen ziren. Lur hauek mahastiz, olibondoz

eta ortuz beteak egoten ziren eta “erositako lurrak” izena hartzen zuten. Alexandrinoek diru ugari inbertitu zuten lur hauetan.

Augusto eta ondorengo enperadoreen lanek erantzun edo ondorio oso onak izan zituzten. Lur asko ongarritu ziren eta finka askok beraien jabeei errenta oso onak eman zizkieten. Neron eta Flabiotarren garaialdian politika inperiala aldatu zen. Jabetza pribatu hauek bultzatzen jarraitu zuten, baina erosleak burgesia lokalaren kideak izatea nahi zuten, hots, greziar edo erromatarrak. Era horretan, greziar edo erromatarrak ez zirenak ezin ziren aberastu eta horrela ez ziren arrisku bat, ez baita erreza administraziorako jende aberatsari zergak ordaintzean exijitzea.

Garai honetako enperadoreek gari eta diru eskariak handitu zituzten eta, horrez gain, gobernuak presioa areagotu zuen, batez ere, nekazari eta artisauengan. Ondorioak oso txarrak izan ziren. Zorpetuak zeudenak, larriturik, alde egin zuten, ondorioz, hiri eta herrien biztanleria murriztu zen.

Flabiotarrak egoera honi irtenbidea ematen saiatu ziren eta lantzen ez ziren latifundioak debekatu ziren. Era horretan enperadoreek lur emankor asko lortu zituzten. Politika honetan ere zergak ordaintzeaz libratu ezin ziren jabeen zenbakia ugaritzen saiatu ziren. Latifundioak desagertzen joan ziren eta ez ziren berriak agertu. Tito izan zen Egipton jabetzak izan zituen azken enperadorea.

Hala ere, lur-tenienteen maila gero eta ugariagoa zen. Burgeseriak, soldadu beteranoak, administrazio inperialeko funtzionarioak eta maila antzekoko jendeak olibondoak eta mahastiak erosten jarraitu zuten.

Egipton ere, Inperioko beste probintzia askotan bezala, K.o. II. mendea garai oparoa izan zen. Garai honetan hiriak asko garatu ziren. Egiptoko “hiriek” gune administratiboak izaten jarraitu zuten, ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik benetako hiriak ziren. Arauz, nekazaritzara lotutako burgesia ez zen herrietan bizi. Lur jabe gehienak hirian bizi ziren eta dirua haien lurretan inbertitzen zuten.

Egipto pixkanaka isolamendutik alde egin zuen eta probintzietako bizitzara egokitu zen. Hala ere, aldaketa hau gainazaleko izan zen. Egipton hiriek ez zuten inolako garrantzirik hauen sorrera bertako jendearen lanean oinarritzen zelako. Hauetako bizitza ez zen askorik aldatu. Artisau eta nekazariek bizitza landetan eta herrietan egiten jarraitu zuten. Hauentzat burgesia hiritar baten sorrerak ez zeukan garrantzi handiegirik. Lan gogorra egiten zuten Inperioarentzat eta ez zuten babesik aurkitzen ezta tenpluetan ere. Iraultzarako saiakera guztiak erromatar ejertzitoagatik zapalduak izan ziren.

Cirene eta Kretari buruzko informazioa oso urria da. Bi hauen batuketa probintzia bakarra osatzeko azaldu daiteke, biak Ptolomeon esku egon zirelako era berdinean. Kretako hiriburua, Gortina, industua izan da azken urteetan. Monumenturik garrantzitsuena basilika da. Zoritxarrez IV. mendekoa da eta bertan aurkitutako epigrafeek ez dute informazio handiegirik ematen bizitza ekonomiko eta sozialari buruz. Cireneri dagokionez, Ptolomeoren menpe, herrialde honetako hiriek garapen handia izan zuten. K.a. 96. urtean Ptolomeo Apionek herrialdea erromatarren esku utzi zuenean, Senatuak hiri greziarrei aliatuen eskubideak eman zizkien. Honek ondorio latzak ekarri zituen: gerra zibilak, tirania… K.a 86. urtean ordena eta bakea ezartzen saiatu ziren baina ez zuten lortu. Ondorioz, K.a. 74. urtean Cirene, probintzia erromatar erregularra bihurtu zen. Ondoren, K.a. 67. urtean

Kreta batu zitzaion.

Cireneko biztanleria erromatar biztanle askoz osatua zegoen. Erromatar hauek oso aberatsak ziren, batzuk immigranteak ziren eta beste batzuk erromatar hiritartasuna lortu zuten greziarrak ziren. Horrez gain, indigena libiarrak zeuden.

## I. 3. Hispania erromatarra: Iparraldeko herriak

Antzinaroan eta ondorengo mendeetan, esan izan zen Euskal Herria historia gabeko herria zela. Erromatar Inperioaren krisialdiarekin, lurraldearen hustuketa, hiri-sareen hondamendia... eman zen. Aurreko formetara itzuli zirela dirudi, Erroma aurreko tribuetara. Benetan erromatartua egon balitz, hori ez da posible. Esan izan da, Euskal Herriko gizartea erromatartua egon arren, ezaugarri propioak gorde zituela. Politikoki, ez zen independentea, baina gizartea independentea zen. Boterea erortzean, gizarte hori agerian gelditu zen.

Gizarte berezi horri *gentilitas* gizartea esaten zaio. A. Barberok eta M. Vigilek azaldu zuten gizarte hori. Beraien ustez, baskoiek, kantabroek eta astureek mantendu zuten gizarte mota hori.

Zeintzuk dira gizarte horren ezaugarriak? Berdintasuna zen nagusi, ez dago esklaborik, buruzagitza tribala dago, batez ere, krisialdietan. Bestalde, jabego kolektiboa daukate, beraz, jabego hori erabiltzeko eskubidea odolekoa izan behar da (senideen artean, tribukoa). Ez dute hiria entitate bezala ezagutzen. Ibiltariak direnez, ez dute mugaren kontzeptua. Ekonomiaren arloan, abeltzaintza da nagusi. Nekazaritza oso primitiboa da eta fruitu bilketarekin osatzen da. Erlijioa berezia da, bertako sinesmenak (ez erromatarra) nagusi dira. Azkenik, matriarkatua ere aipatu izan da, baina gaur egun ez da onartzen, eta beste ezaugarriak ere, zalantzan daude. Hala ere, Barbero eta Vigilek jada baztertu zuten matriarkatuaren ideia.

Baskoien lurraldea Ebro haraneko iparraldean kokatua zegoen. Ebro harana Iberiar Penintsulako ipar-ekialdean kokatzen zen eta muga nahiko argiak zituen: iparraldean, Pirinio mendiak; hegoaldean, Iberiar sistema; ekialdean Kataluniako kosta.

Antzinatean oso ibai garrantzitsua izan zen. Iturrietan *Hiberus, Hiberus flumen*, *Hibero* eta *Iberus* bezala agertzen da.




Ebro harana erromatarren ekintza militarren parte garrantzitsua izan zen, hemendik okupazio erromatarraren kontra zeuden herrietara heltzen ziren. K.a. 202 eta 170 bitartean kokatzen dira, gutxi gorabehera, Ebro haraneko konkista ekintzak, hauek zentzu estuan harturik. Beren bilakaeran, ekintzak Kalagorri eta Alfaro inguruko Zeltiberiarrei eragin zieten, baita substratu ibero-pirinear zaharrago bati egotzi beharreko beste zenbait herriri ere, *Iaccetani* delakoei zehazki. Iturburuek, ordea, ez dute hitzik esaten Baskoiei buruz. Hortik sortu dira susmoak, iturrien bidez nekez argitu ahal direnak: Baskoiak, Erromatarren adiskideak izan ote, edo pasiboki jokatu, erromatar konkistatzaileen aurrez-aurre? Gauza bat dago argi: hasiera batean, *Calagurris*, *Graccurris* eta *Cascantum* zeltiberiartzat jotzen direla iturri klasikoetan, eta gero, Inperio aldian, baskoitzat; era berean, *Iacca* edo *Segia* iaketaniar edo suesetaniartzat, eta, denboraren harian, baskoitzat. Zenbaiten iritziz, ordea, baskoien hedatze prozesu hori beren antzinako larreen eta ezarmendu eremuaren birrokupazio bezala interpretatu beharko litzateke, egoeraren nagusi berriak, zeltiberiar hedatzaile eta baskoi artzainen arteko tirabira etengabean, taktikoki ahulenaren interesak defendatu nahi izan balitu bezala. Autore hauen arabera, baskoi eta erromatarren arteko harremanak adiskideen gisakoak izan ziren. Hala ere, beste autore batzuk ez daude ados ideia horrekin.

Susmoak susmo, erromatarrak hego-ekialdeaz jabetu zireneko lehen etapa honetan bi gertaera azpimarratuko genituzke: *Graccurris*-en fundazioa (K.o. 178. urtean) eta, konkista kanpainen edo hauen ondorengo gobernatze eta baketze ekintzen ondorioz, *fides* pertsonalean oinarritutako *klientela* edo bezaria sistema konplexu baten ezarpena. Zeina garrantzi handikoa agertuko baita eremuaren hurbileko historia sozio-politikoan. Izan ere, K.a. II mendean, Erromak ez du oraindik denbora izan bere kontrol egiturak ezartzeko: lurraldea kontrolatzeko egiturak ahulak ziren (funtzionario asko behar ziren eta hori lortzea ez zen hain erraza). Baina, buruzagi militarrek botere handia zuten eta buruzagi militarrek bertako biztanleekin

(eliteko pertsona batzuk) zituzten harreman pertsonaletan oinarritu ziren. Instituzionalizazioa Zesarrekin hasi zen, baina, batez ere, Augustok gauzatu zuen.

Hurrengo urteetan, geldialdi batetan dirudi erromatarrak barneraldiak egin zituztela Ebro bailaran barrena, geldialdi hori Kantabriar Gerrateen egunetara arte luzatzen delarik. Ez dirudi urte horietan baskoien gune honek arazo handiegirik sortu zionik erromatar administrazioari. Hala ere, garrantzi handia izango dute, erromatar eragina eremua sendatzeko orduan, hainbat gertakarik: erromatar gerra zibilen izenez ezaguturiko gatazka prozesuen garapenak, *Pompaelo* eta *Lugdunum Convenarum* hirien fundazioak...

K.a. 38 eta 15 bitartean, gutxi gorabehera, Kantabriar gerra bezala ezaguturiko gatazka prozesua garatu zen. Ez dirudi Pirinio inguruko munduak tradizio historiografikoak aspaldi honetan egotzi izan dion paper pasiboa jokatzen duenik. Iritziak iritzi, ez dago zalantzan jartzerik, gerra prozesu zabal horrek eremua (Euskal Herri historikoa barne) erromatartzeko prozesua zabalagoan izango duen eragina apartekoa. Izan ere, erromatar presentzia eta ekimena aniztu eta trinkoturik suertatuko da. Orain da, dirudienez, erromatar administrazioak eskualdean bidegintza serioski ekiten dionekoa (adib. Pompaelo-Oeasson delako bidea).

Kantabriar gerrateen amaierak eta Augustoren gobernaldiak berrantolaketa administratibo sakona ekarriko dio eremu guztiari (menperatzaileen helburu politikoen araberakoa, noski, eta luzarora ohiko leinu egiturak eta ordenamendu sozio-politiko zaharra ukitu eta are aldatu ere egingo dituena). *Hispania Citerior* Tarrakonenseari atxikituriko penintsulako aldean, ekialdeko herriak (jaketaniar, baskoi eta beroiak) Caesaraugustako *conventus* juridikoari egotziak izango dira, eta mendebaldekoak (barduliar, karistiar eta autrigoiak), aldiz, Cluniakoari; Iparraldeko zatian, Zesarrek deskribaturiko Akitania etnografikoa (orain, Narbonensetik bereiziriko *Lactorates*, *Convenae* eta *Consoranni* delakoek berrosatua) Pirineoetatik Loiraraino zabaltzen den augustar Akitania handiaren zati bihurtuko da, ez, ordea, bere behinolako nortasuna murrizturik ikusi gabe, nahiz eta, dirudienez, zenbait arlotan (zehazki, zerga eta finantza arloan eta, agian, lerrotze militarrari dagokionez) nolabaiteko autonomia gordetzen duen.

Kantabroen lurraldea Iberiar Penintsulako iparraldeko kostaren erdian eta Pirinioetatik Galiziara heltzen zen mendizerran kokatua zegoen. Bere bizilagunak Autrigoiak, Karistiak eta Barduloak ziren ekialdetik eta Astureak mendebaldetik.

Estrabon eta Silioren arabera, Kantabroen maila kulturala Numantziako Zeltiberiarrena baino baxuagoa zen. Zeltiberiarrak eta Kantabroak, Astureak eta Kallaikoak, Penintsulako triburik basatienak ziren. Basatiak izatearen arrazoi nagusiena haien lurren pobretasuna zen. Lurrak ez zien elikagai gehiegirik ematen eta gainera ez zeukaten trukerako ahalmenik. Garia eta ezkurrak jaten zituzten, azken hauek lehortuz eta zapalduz ogia egiten zuten. Ahuntza, ardi eta txerri haragia jaten zuten. Ura eta garagardoa izaten ziren edaririk ohikoenak. Hala ere, ardoa asko gustatzen zitzaien eta lortzen zutenean arin bukatzen zuten. Edateko egurrezko edalontziak erailtzen zituzten, Zelten moduan. Normalean jesarrita jaten zuten, etxeen hormak harrizko jesarlekuz beteak izaten zituzten. Jesartzeko ordena berezia mantentzen zuten, adina eta maila sozialaren arabera.

Emakumeen bezalako ile luzea eramaten zuten eta gerran zeudenean zinta batekin lotzen zuten. Artilezko tunikak janzten zituzten gerriko batekin. Horrez gain,

linozko “koraza” eta artilezko kapa beltza janzten zuten. Oinetan botak edo abarkak eramaten zituzten. Janzten zuten arropagatik esan dezakegu Kantauriko klima oso hotza izaten zela. Herriak txikiak izaten ziren eta mendizerraren goiko aldean kokatzen ziren.

Pobretasunaren ondorioz inguruko lurraldetara joaten ziren zakuraketak egitera. Ekintza hauen ondorioz Erromatarren kontrako gerra izan zuten.

Nahiz eta larruzko ontziak izan ez zuten arrantza lantzen. Emakumeak landa lanak betetzen zituzten. Gizonezkoak gerra egiten edo etzanda egoten ziren. Oso emakume gogorrak ziren, esaten da haurdun zeudenean eta erditzeko zeudenean alde baten jartzen zirela, umea izaten zutela eta, ondoren, berriro lanera bueltatzen zirela. Beste kasu batzuetan umea izaten zutenean senarra zaindu behar izaten zuten.

Estrabonen aburuz, emakumezkoak gizonezkoak baino garrantzitsuagoak ziren. Alde batetik dotea senarrak ordaindu behar zuen eta ez emakumezkoak, herentziak emakumeek jasotzen zituzten eta, azkenik, anaien ezkontza haiek erabakitzen zuten. Estrabonen hitzetan oinarrituz, matriarkatua aipatu izan da. Baina, gaur egun ez da onartzen, eta Barbero eta Vigilek ere ukatzen zuten.

Sinesmenei dagokionez, Estrabonen uste zuen iparraldeko tribuak sakrifizioak egiten zizkiotela jainko gudari bati. Sakrifizio hauetan zaldiak, ahuntzak eta presoak hiltzen ziren. Ilbete gauetan ilargiaren jainko baten aldeko festak ospatzen zituzten. Horrez gain, orakuluak ere ezagutzen zituzten.

Siliok esaten zuenaren arabera agureak gudarako zahar zeudenean buruaz beste egiten zutela. Beste ikerle batzuen ustez, tribu basati askotan 60 urtetik gorako agureak hiltzen zituzten lanerako gai ez zirelako.

Gudaren arloan gerrillak ziren nagusi. Leku zabaletako batailak ekiditen zituzten. Armarik esanguratsuena dardoak ziren. Honda deituriko beste arma bat ere erabiltzen zuten eta iberoen antzeko armarria zeukaten. Aurrez aurreko borroketarako sastagaia erabiltzen zuten. Lantzak ere izaten zituzten baina inoiz ez, ezpata luzeak. Kaskoak larruzkoak izaten ziren. Nahiz eta zalditeria izan oinez borrokatzen zuten.

Hizkuntzaren arloan duda handiak daude, ez dakigu iberiera edo zeltera hitz egiten zuten bi herrialdeen eragina oso handia zelako.




Asturia Kantauriko mendilerroko mendebalde aldean kokatzen da ekialdean Kantabria usten duelarik. Asturia ez dago bakarrik mendiz inguratua, Leonera heltzen den lautada ere hartzen du eta han bere hiri garrantzitsuenak kokatuak dauzka: Asturika eta Lantzia.

Tesi tradizionalaren arabera, astureen ezaugarriak kantabroen antzekoak dira. Gotorlekuetan bizi ziren eta hauetako bakoitzean klan bat bizi zen. Etxeak gotorlekuaren inguruan ezartzen ziren borobil bat marraztuz eta normalean harresituta egoten ziren. Abeltzaintza zen ekintza ekonomiko nagusia oraindik artoa, sagarrondoa eta gaztainondoa ezagutzen ez zutelako. Ehiza ere lantzen zuten eta horretarako lantza erabiltze zuten.

Janzkerari dagokionez, tunika bat eramaten zuten gerriko batekin lotuta. Tunika horren azpiak galtza laburrak janzten zituzten hotza ekiditeko.

Kantauri aldean bezala, Estrabonek esandakoan oinarrituz, matriarkatuari buruz hitz egin da. Baina, esan bezala, gaur egun guztiz ukatzen da ideia hori.

Baskoi, kantabro eta astureei buruzko teoria tradizional hauek zenbait frogatan oinarritu dira. Gaur egun froga hauek deuseztatu egin dira edo ez dira baliozkotzat hartzen.

Vadiniar epigrafeetan oinarritu ziren; izan ere, pertsonak izendatzeko era berezi bat zuten, adibidez:

BOVECIO, BODERI FILIO
CIVES ORGENOMESCUS
EX GENTE
PEMBELORUM[6]

[6] Barbero – Vigil (1988: 175).

Baina, hori ez da baskoien epigrafea; erromatar epigrafia arrunta jarraitzen zuten baskoiek. Beraz, ez dago frogarik.

Beste froga bat Paulino eta Ausonioren gutunak izan dira. Paulino eta Ausonio bi lagun ziren, kultuak, eta bata betearen irakaslea zen. Gutun horietan beraien eztabaida agertzen da, helburua ez da baskoiak deskribatzea. Horregatik ezin da froga moduan erabili. Ikusten den gauza bakarra da baskoiak ezberdinak direla, eta barbaroen “klitxe” guztiak jarri zizkieten.

Julio Caro Barojak *Ager* eta *Saltus*aren teoria sortu zuen. Teoria honen arabera baskoien lurraldea bi zatitan bereizi zen erromatarren eraginaren ondorioz. Eremuok, ordea, ez ditugu bi unibertso itxi eta bata bestearen ukatzaile bailiren bezala ulertu behar, baizik eta elkarren osagarri diratekeen mundu gisa: bakoitza bere kultur sistema edo kultur eredu berezi samarrekin, bai jarduera ekonomiko, nahiz antolamendu politiko eta sozialari ere dagokionez, baina beti ere elkarrenganako nolabaiteko zerikusian, batak soberan duena besteari eskaini eta falta zaiona trukean harengandik lortzeko, noski. *Ager* deituak (Baskoien populamendu-eremuaren hegoaldeko zatian kokatzen dena) molde aurreratu samarrak erakusten ditu ekonomi jarduerari dagokionez (labore nekazaritza, burdin metalurgia, tornu zeramika, moneta zirkulazioa), ukaezineko hierarkizazio maila bere gizarte antolaketan eta are hasiberritako urbanismoa ere, batzutan, leinu-irizpide hutsak gaindituz. *Saltus* gisa karakterizatua, aldiz, Pirinio inguruko Nafarroako iparrean eta “ozeanotik hurbil” kokatzen dena, erkidego funtsean abeltzainek populatua dateke, hauei labore hazkuntzen nolabaiteko praktika eta produkzio ekonomiaren bestelako ezaugarriak ere (metalurgia, eltzegintza, trukea...) ukatzen ez bazaie ere. Ekoizpen sistemari eta antolaketa politiko sozialei dagokionez, *saltus* horrek, orohar, kultur portaera berezi samarrak agertzen bide ditu, greziar-erromatar munduak bere eginikoekiko eta Ebro arroan eta akitaniar lautadan une berean egiaztatzen diren haiekiko ere arrotz gertatzen diren kultur portaerak, hain zuzen, Estrabonek adierazpen orokor samarrak (baina, edonola ere, ikerlan arkeologiko eta etnolinguistikoek eta antzinate beranteko testigantzek ere neurriz bederen egiaztatzen bide dituztenak) aintzakotzat hartu beharko badira, behinik behin.

Caro Barojak erromatar garaiko mapa hartu zuen eta aztarnategiak non zeuden begiratu zuen. Batez ere, hegoaldean zeuden. Baina, normala da mendialdean ez agertzea hainbeste aztarnategi. Beraz, hori ezin da froga moduan erabili. Bestalde, Caro Barojak esaten zuen horrela izendatuak agertzen zirela testuetan. Baina, *saltus*ak basoari erreferentzia egiten dio, termino geografikoa da; *ager*ek lurrari erreferentzia egiten dio. Ez dira kontzeptu administratiboak. Beraz, ez dago frogarik.

Beste froga bat *limes* edo mugaren teoria da. Barbero eta Vigilen teoria bat da. Proposatzen dutena da erromatarrek germaniarrekin *limes* bat zuten bezala, baskoi, kantabro eta astureekin beste bat zutela: *limes hispanicus*. Testu batean oinarritu ziren: *Notitia dignitatum* (IV. mende bukaera). Testu horretan Inperio osoan armadak zituen pastuak agertzen dira. Bi mota zeuden, *Comitatenses* edo arruntak eta *Limitanei*ak edo muga zaintzen zituztenak. Dirudienez, Penintsula iparraldean (Leon, Lugo...) egon ziren *Limitanei* horiek. Veleia eta Lapurdumen ere egon ziren. Benetan baskoietaz babesteko muga izango balitz, Iruñea inguruan egon beharko zen. Beraz, ez dirudi *Limes* horretan ezer babesteko zeudenik. Logikoagoa da pentsatzea Veleiak galtzada babesten zuela eta Lapurdumek, kostaldean egonda,

piratetatik babesten zuela. Egia esan, *Notitia dignitatuma* kontabilitateaz arduratzen zen, administrazioaren kontua zen. Seguruenik, ez zuen errealitatea benetan islatzen, teorikoagoa zen.

Honi lotua, badago teoria bat defendatzen duena Erromatar Inperioa erortzean, baskoiek hedapenerako joera izan zutela, Pirinio iparraldera eta hegoaldera (autrigoi, karistiar, barduliar... izenak desagertu ziren eta baskoi izenaren erabilera areagotu zen). Egileek, gaur egun, zakuraketarako joera onartzen dute. “Baskonizazio” prozesu bat eman zela egia dirudi. Akitania aldean, euskararekin zerikusia duten onomastikak eta toponimiak aurkitu dira.

Bestalde, aipatu izan da baskoiak bagaudetan parte hartu zutela. Bagauda[7] fenomenoa Galian sortu zen, III. mendean. Erromatar Inperioa krisian zegoen (gerra zibilak, ekonomia gero eta okerrago...). Mende bukaeran, Diokleziano enperadore bihurtu zen eta erreformak burutu zituen Erroma krisitik ateratzeko: administrazioa bikoiztu, botere-banaketa... Horrela, militarrak eta zibilak banatu zituen, jendearekiko kontrola areagotuz. Administrazioa bikoiztean, zerga bikoitzak behar ziren funtzionarioei ordaintzeko. Nekazarien gaineko presioa areagotzen zen horrela. Bestalde, herri barbaroen erasoak hasi ziren, eta ondorioz, gero eta gehiago inbertitu behar zen armadan. Ezegonkortasuna nagusi zen eta krisialdian gero eta latzagoa zen. Gainera, izurriteak ematen ziren. Nekazari pobretuak, esklabo iheslari eta hirietako biztanle pobretuak ziren Bagauda-etako partaideak.

III. mendean, Ebro haranean, aipatzen dira berriz Bagaudak. Baskoiekin lotu izan dira Bagauda horiek. Nola interpretatu da baskoiak Bagaudetan egotea? Erromatar boterearen kontra matxinatzen ziren *saltus*eko indigenak zirela dio tesi tradizionalak (beraz, ez dago inolako loturatik Galiako Bagaudekin). Beste egile batzuek proposatzen dute elementu baskoia ez zela oso garrantzitsua izan eta nekazari pobretuak izan zirela, batez ere, matxinatu zirenak. Bisigodoek zapaldu zituzten bagaudak, erromatar armadaren laguntzaile gisa. Azkenaldian hobesten den tesiaren arabera, bandolerismo sozialarekin lotuak egon ziren Bagauda horiek eta baskoiak elementu bat gehiago izan ziren. Sayas Abengoecheak aztertu du gai hau.

Beraz, hipotesiak zaharrak dira, froga berriak agertzen dira... Zalantza handiak daude.

## I. 4. Antzinaroko euskaldunak eta historiografiaren desitxuraketa

Aurreko ataletan historiografia greziar eta latindarraren alde jakin bat, alde etnografikoa, aztertu ondoren, eta baskoiei buruzko ezaugarri orokor batzuk ikusi ostean (nahiz eta, ikusi bezala, ez dakigun gehiegi eta zalantza handiak dauden), antzinako euskaldunen eta erromatarren arteko harremana eta historiografian ematen den deformazioa aztertzen saiatuko gara.

Testuinguru honetan, galdera ugari ditugu: nola ikusi zituzten erromatarrek baskoiak? Zer irudi izan zuten? Zergatik garatu zen baskoien irudi hori? Zer balio du horrek historialariarentzat? Zein punturaino mugatu du irudi jakin horrek historiografia, erromatar presentzia gure herrian aztertzerako orduan? Analisi historiografikoko arazoa dugu hau: nola eta zergatik eratzen den idazle erromatarren artean “bestearen” irudi hori, horrek dakartzan ondorioekin.

[7] Bagauda hitzaren esanahia “*Basoko gizona*” da.

Lehenik eta behin, beharrezkoa da gauza bat ondo azpimarratzea: erromatarrek ez zuten inoiz ezer edo inor erromanizatzeko asmorik izan. R. Syme historialariak argi hitz egin du kontu horren inguruan: “Erromanizazioak – eskuliburuetan sarri erabiltzen den kontzeptua- politika jakin baten erabilera iradokitzen du. Baina, hori Erromaren esperientzia gaizki interpretatzea izango litzateke, esperientzia errepublikarra edo inperiala izan. Gobernu erromatarrak hiri-bizimodua bultzatu zuen, tribuak hiri bihurtuz, batez ere, administrazioa errazteko. Ez zuen, inola ere ez, latinaren erabilera leku guztietan inposatzeko asmorik izan. “Erromanizazio” hitzaren erabilera anakronikoa eta nahasgarria da”[8]. Adibide ugarik baieztatzen dute iritzi hau. Egia da gerrek eta inmigrazioek latina eta erromatarren ohiturak eta erakundeak lurralde honetan sartzea ahalbidetu zutela. Beranduago, erromatarren eta bertakoen bategitea ondorio logikoa izan zen[9], baina ez zen beti gertatu, ez zen leku guztietan gertatu eta ez zen inposaketa-prozesurik egon, salbuespenak salbuespen.

Esan bezala, baskoien eta inguruko herrien lehen harremanak erromatarrekin, K.a. III. mendearen azken laurdenean eman ziren. Dirudienez, iparraldeko herriak izan ziren erresistentzia gogorrena erakutsi zutenak erromatarren konkista asmoaren aurrean. Azkenean, hala ere, erromatarrek *pax romana* ezartzea lortu zuten. Garrantzitsua da, testuinguru honetan, gertakari bat ondo azpimarratzea: *bellum cantabricum* bat egon zen, baita *bellum asturicum* bat ere, baina ez zen *bellum vasconicum*ik egon. Ez da baskoien kontrako gerrarik edo baskoien lurraldean gertatutako gerrarik ezagutzen. Gertakari nahiko interesgarria da hau. Lehenik eta behin, erromatar iturrietan agertzen den baskoien fama independiente eta menperaezinarekin kontraesanean dagoelako; eta, bigarrenik, tribu horien historia erromatarren presentziapeko hurrengo mendeetan azaltzen duelako.

Augustoren garaian, esate baterako, K.a. 27. eta 19. urteen artean, baskoiak ez zeuden erromatar kontrolaren eremuan guztiz integratuak. Ez ziren kezkarako arrazoi izan, ez orduan, ezta hurrengo laurehun urteetan ere, K. o. IV. mendearen hasierara arte.

Besterik gabe, antzinako euskaldunei buruz hitz egiten duten egile klasiko aipagarrienak aztertzera pasako gara.

### *I. 4. 1. Salustio*

Baskoiei buruz idatzi zuen lehen egileetako bat Cayo Salustio Crispo izan zen. Dirudienez, Amitermon jaio zen K.a. 83. urtean eta K.a. 35an hil zen. Politikari nahiko txarra izan zen arren (senatu erromatarretik bota egin zuten), entzute handiko historialari izatera iritsi zen. Zesarren adiskide izateagatik, Numidiako prokontsul izendatua izan zen, bere nahien arabera zakuratu zuelarik probintzia. Ondoren, Erromara erretiratu egin zen bere aberastasun guztiekin eta gertakizun historikoak idazten jardun zuen. Historia garaikidea egin zuen eta esaten zuenez, soilik gogoratu behar zena kontatzen zuen, “exemplum” delakoaren bidez.

[8] Syme (1988: 64).
[9] Syme (1988: 64).

Salustioren bi obra iritsi dira gure e*gunetaraino: Katalinaren* kon*jugazioa eta Yugurtaren* aurkako *gerra. B*ere Historiak obretik, K.a. 78-67. urteen arteko gertakariak jasotzen zituena, soilik pasarte batzuen zatiak iritsi zaizkigu.

Aztergai dugun gaira itzuliz, Sa*lustiok b*ere Historiaken baskoiei buruz egiten duen aipamena interesatzen zaigu: Erromatar armada, Pompeioren zuzendaritzapean, baskoien lurraldera erretiratzen da gariz hornitzeko. Honela dio zehatz-mehatz aipatutako testuak:

> (…) baldin setiotik libratzen bazituzten, leialtasun osoz beteko zituztela akordioko hitzak; zeren lehen, bake ziurrik ezean, zalantzaka ibili ziren Pompeio eta beraren (Sertorius-en) artean. Armada erromatarrak, orduan, alez hornitzeko asmoz, baskoien lurraldera jo zuen, eta denbora berean, Sertorius abian jarri zen, oso interesaturik baitzegoen, normala denez, Asiak eta Galiak era berean eskutik alde egin ez ziezaioten. Pompeio etsaiengandik haran txiki batez bereiziriko kanpamendu batean egon zen zenbait egunez, eta Mu*tudurum* eta …eoren auzo-hiriek ez zuten janariez hornitu ez bata, ezta bestea ere. Gosea nabari egiten zen bietan. Pompeio, azkenean, abian jarri zen lauki erakuntzan.[10]

Testua Pompeiok hiri keltiberiarrei jarritako setioaz eta haiek libratzeagatik Sertoriok egindako ahaleginetaz ari da. K.a. 75. urtearen bukaera aldera kokatzen dira gertakariak. Egia esan, baskoiei buruz ez digu gehiegi esaten eta testu honetan, behintzat, ez da ondoren arrunta bihurtuko den irudi basati hori agertzen.

### *I. 4. 2. Estrabon*

Estrabon K.a. 64. urte inguruan jaio zen Amasian, Asia Txikiko iparraldeko kostaldean. Erregearekin harremana zuen familia noble bateko partaidea izanik, hezkuntza aberasgarria jasotzeko era guztietako erraztasunak izan zituen. Bidaiari handia izan zen arren, badirudi ez zela inoiz Iberiar Penintsulan egon.




Akitania eta Ebro harana, Estrabonen arabera.[11]

---

[10] C. Sallustius: *Hist.,* 2, 93. Badirudi birrosatutako zati bat dela, esan bezala, *Historiak*en zati gehiena galdua dago eta.
[11] Perez de Laborda (1996).

Historialari baino, geografoa izan zen Estrabon, zehazki, geografo grekofonoa. Horrela, bere obra Geografia izan zen, hamazazpi liburuz osatutakoa. Topografikoki antolatua dago obra, mendebaldetik (Iberiar Penintsulatik) ekialdera (Indiara), historiografia greziarraren ezaugarri izan zena. Unibertsaltasuna ikusiko dugu bere obran: Inperio erromatarraren zabalera handia izanik, ikuspegia zabaldu egin zen. Greziak epizentroa izateari utzi zion, Erromaren mesedetan. Estrabon azalpen geografiko bat egiten saiatu zen, Erromari azaltzeko nolakoa zen menperatzen zuen mundua. Nolabaiteko inbentarioa egin zuen, Augustoren zerbitzuan, eta bere helburua propagandistikoa izan zen, pax augustaren abantailak argi uztea. Deskribapenak oso ugariak izango dira Estrabonen obran.

Bere iturri nagusiak bidaiak, beste geografoen obrak (batez ere, geografo helenistikoen lanak), irudiak eta mapak izan ziren. Gainera, autopsia edo azterketa zuzena erabili zuen. Gainontzeko geografo helenistikoei ez bezala, eikoagoa izan zen.

Esan bezala, badirudi Estrabon ez zela inoiz Hispanian egon eta idazle zaharragoek idatzitakoan, zeharkako informazioan, oinarritu zen: Posidonio, Artemidoro, etab. Autore horiek ikuspegi jakin eta berezi batetik ikusten zituzten herri ez-italikoak; barbariean bizi ziren herri ziztrinak ziren, baina onginahiez tratatuak izatea merezi zuten. Baina, Estrabonek bazekien erromatarrek ez zutela inolako interesik edo errukirik sentitzen herri horien inguruan. Are gehiago, beraien izen tribalen zerrendatzea aspergarria iruditzen zitzaien. Edonola, Estrabonek gure lurraldean bizi ziren herriei buruz idatzi zuen. Historialariek Estrabonen obrarekin eskuan idatzi dute baskoien historia, horrek egoera nahasgarrietara eraman duelarik.

Kontua da, erromatarrak grekoen filosofia etnografikoan oinarritu zirela, eta horren arabera, mendialdeko herriak abeltzainak eta bidelapurrak ziren. Garaiko pentsamoldeekin, abelazkuntza estadio atzeratu bat zen gizakien eboluzio prozesuan; nekazaritza baino lehenagoko egoera zen, erromatarrentzat estadio kultural aurreratuena zelarik nekazaritza. Hiriko biztanleek begi ezkorrekin ikusten zituzten gune ez-hiritarretan mugitzen ziren giza-taldeak. Mendialdeko biztanleak itsusiak ziren, hortzak belztuak zituzten, ahuntz edo baratxuri usaina zuten, eta gainera, arriskutsuak eta basatiak ziren. Gaizki hitz egiten zuten, bai latina eta bai beraien hizkuntza ulertezina, eta horrek barrea eragiten zuen. Ilea luze eramaten zuten. Hiriko biztanleak, berriz, kultuak ziren eta dignitasa erakusten zuten, jantzterakoan adibidez. Ilea motza eramaten zuten eta ordenatuak ziren hitz egiterakoan.

Erromatarren aburuz, mendialdeko biztanleak gerrazaleak ziren senez. Klimak eta lurraren pobreziak eragiten zien izaera bortitz hori. Mendia eta bidelapurreta lotuak zeuden beti. Horrela finkatu zen irudimen kolektiboan, eta horrela transmititu zen tratatu eta liburuetan, herrien deskribapena egiterako orduan. Beraz, zibilizazioa altitudearen araberakoa zen.

Ikus dezagun Estrabonek bere Geografia obran idatzi zuena Iberiar P*enintsulak*o iparraldeko herrien inguruan:

> Menditar hauek neurrikoak dira guztiak. Ez dute ura baizik edaten, eta lurrean egiten dute lo. Adats luzea eramaten dute emakumezkoen erara, nahiz eta gudukatzeko orduan zirrindara batez lotu kopetean. Aker-okela jaten dute gehien bat. Aresi

sakrifikatzen dizkiote akerrak, baita gatibu eta zaldiak ere. Biktima-espezie bakoitzeko hekatonbeak egin ohi dituzte, greziarren usadiora, eta Pindaroren eran esateagatik, “espezie bakoitzeko, ehuneko bat inmolatzen dute”. Tropa arin, hoplita eta zaldizkoentzat lehiaketak *antolatz*en dituzte halaber, pugilatu, lasterketa, guduxka eta zelaiko konbaterako trebatzen. Menditarrak urtearen lautatik hirutan ez dira ezkurrez baizik elikatzen: ihartu eta birrindu ondoren, irin bihurtzen dituzte, denbora luzez irauten duen ogi moduko bat egiteko. Arruntki garagardoa edaten dute, inoiz gutxitan ardoa, eta lortzen duten urria, berehala ahitzen da, senideen arteko orritsetan. Olioaren ordez gurina erabiltzen dute. Eserita egiten dituzte euren oturuntzak: kide bakoitzari pareten luzeran eraikitako eserlekuetan toki bana gordetzen zaio, bertan adinaren eta duintasunaren arabera lerrokatzen direlarik; gero, janariak eskuz-esku pasarazten dituzte. Edaten hasi orduko, gizonezkoek dantzari ekiten diote, orain goraka jauzi eginez eta belauniko eroriz, arteka. Bastetanian emakumezkoak ere dantzatzen dira gizonezkoekin nahasian, elkarri aurpegia emanez, eskutik helduta. Gizonezkoak beltzez jantzita ibiltzen dira guztiak, gehez jantzita ibiltzen dira guztiak, gehienek *sagos* delako daramatelarik. Honetaz estaltzen dira lo egiteko ere beren lastozko etzantzetan. Keltatarren antzera, argizarizko ontzietaz baliatzen dira. Emakumezkoek arruntki soin-gainekoak eramaten dituzte eta kolore biziez brodaturiko soinekoez janzten dira. Herri batzuk, moneta gisa, (…) baliatzen dira; oso barrukaldean aurkitzen direnek, aldiz, produktuen trukea praktikatzen dute, edota zilarrezko xaflak ematen ebakita ordain bezala. Hiltzera zigortuak amildu egiten dituzte, eta parrizidak harrika hiltzen, baina mendi eta iturburuetatik kanpo. Ezkondu, greziarren antzera ezkontzen dira. Eriak, antzina egipziarren artean egiten zen legez, bideetan jartzen dituzte, lehenago eritasun bera nozitu dutenengandik tratamendu aholkuak jaso ditzaten. Brutusen konkista aurretik, larruzko txalupetaz baino ez ziren baliatzen itsas gorak uzten zituen lakuak eta zingirak zeharkatzeko; orain, ordea, apenas ikusten diren zuhaitz-enbor batez egindako piraguak ere. Beren gatza kolore gorrikoa da, baina, ehotuz gero, zuri bihurtzen da. Halan bizi dira, esan bezala, menditar horiek, alegia. Iberiako ipar itsasaldean kokaturiko horiek hots: Callaici direlakoak, Astureak eta Kantauriarrak, Baskoinen lurralde eta Pirineoraino, guztiak bizimolde berekoak baitira. Ez naiz herrion zerrenda luzeagotzen arriskatuko, izenen transkribaketak suposatuko lukeen asperrari amore emanez; izan ere, nori suerta dakioke atsegin, Pleutauroi, Bardietes, Allotriges eta antzeko beste zenbait izen oraindik itsusiago eta ezezagunagorik entzutea?

Beren zakartasun eta basatitasuna ez zaizkie zor beren gerra-ohiturei soilik, baita beren urruntasunari ere, zeren lur horietara daramaten bideak luzeak baitira, eta harreman zailtasun honek galerazi baitie soziabilitate eta gizatasun guztia. Halere, gaur egun gaitza ez da hain larria, bakeari eta erromatarrekin duten eguneroko tratuari esker, nahiz eta bi abantailok eman ez direneko tokietan izakera uzu eta basatiagoa mantentzen den. Ulertzen da, bestalde, lurralde hauen urrunari eta mendien presentziari darraion premia horrek izan duela zerikusirik ohituren bitxikeria hori areagotzeko orduan.[12]

Gure aztergairako oso interesgarria da azpimarratzea Estrabon iritsi arte, barbaroak soilik ekialdean zeudela. Baina, Estrabonen obrarekin, barbaro berriak sortu ziren, mendebaldeko barbaroak. Horien artean, baskoiak zeuden, iturrien arabera lapurrak eta barbaroak zirenak. Luze iraungo du irudi horrek, ondorengo egile klasiko eta Erdi Aroko kroniketan ikusi ahalko dugun bezala.

### *I. 4. 3. Tito Livio*

Tito Livio gaur egungo Paduan jaio zen K.a. 64. urtean; bere bizitza Erroman egin zuen, K.o. 17. urtean, hil zen arte. Ez dakigu gehiegi bere bizitzari buruz, baina badakigu herrikoia izan zela, hau da, ez zela aristokrata. Arrakasta handia izan du urteetan zehar historiagile moduan.

[12] Estrabon, *Geogr.* III, 3, 7-8. Koldo Larrañagaren (1988) itzulpena.

*Ab urbe condita* idatzi zuen, hots, “hiria fundatu zenetik”; beraz, Erromaren fundazioarekin hasten zen liburua. 30 urterekin hasi zen liburu hori idazten eta hil arte jarraitu zuen historia idazten. 142 liburu inguru idatzi zituen, baina 35 inguru kontserbatzen dira (beste obrenak zatiak gorde dira soilik). *Periochae* delakoak bereziki garrantzitsuak dira, Tito Livioren liburu askoren laburpenak biltzen direlarik.

Historialari latindar honek ez zituen inoiz iturri zuzenak erabiltzen; artxiboetara joaten zen eta sinesgarriena erabiltzen zuen, egiaztatu gabe. Horrela, batzuetan Tito Liviok esaten duena zalantzagarria da (batez ere, monarkiaren historia egiten duenean).

Tito Liviok antzinako euskaldunei buruz egiten dituen aipamenak, gerrate sertoriarraren testuinguruan kokatu behar ditugu; honakoa dio historialariak:

> Hark bere gisa erabaki zuen armadarekin beroi eta autrigoien aurka ateratzea, ohartu baitzen, Keltiberiako hiriak setiatzen zen bitartean, horiek laguntza erregutu ziotela Pompeiori, gidariak igorri zituztela armada erromatarrarengana eta maiz beren zaldizkoekin aztoratu zituztela bere (Sertoriusen) soldaduak, Contrebia setiatu bitartean, kanpamendutik zuhain eta hornimendu bila ateratzen ziren aldietan (…).
> Gogoeta hauetan ari zela, Sertoriusek bakean eta kalterik gabe gidatu zuen bere armada lurralde lasaietan barrena, Ebro baino areago. Ondoren, *Bursaones, Cascantini* eta *Gracuritani* direlakoen lurretara joanik, guztiak suntsitu zituen eta, haien uztak hondaturik, Calagurris Nasicara abiatu zen; pasatu zuen hiritik hurbileko ibai bat eta, zubi bat eraiki ondoren, bertan ezarri zuen bere kanpamendua. Hurrengo egunean, Marcus Marius *quaestor*ea igorri zuen *Arevaci* eta *Cerindones* direlakoen herrietara tropa-biltzera, eta handik Contrebia Leucadara gari-hornimendua jasotzera; hiri honetatik erabat erraza zen beroien lurraldera irtetea, armada noranahi eramatea pentsaturik ere; halaber, Caius Insteius zaldieriako prefektuak igorri zuen Segoviara eta *Vaccaei* direlakoen herialdera zalditeri-indarrak biltzera, berauei agindu zielarik itxaron zekiotela Contrebian. Hauek igorri ondoren, bera baskoien lurraldean barrena sartu zen bere armadarekin eta beroien mugaldean ezarri zuen kanpamendua. Hurrengo egunez, zaldieriarekin aurreratuz bidea ikuskatzera eta oinezkoei aginduaz jarrai ziezaiotela lauki-eraikuntzan, Vareiako hirira iritsi zen, lurralde hartako indartsuenera. Ez zen izan ustekabekoa bere etorrera, gauean zehar; eta nonnahitik bere zaldunekin eta autrigoiekin…[13]

Egia esan, Tito Liviok ez digu gehiegi esaten antzinako euskaldunen irudi basati eta barbaro horren inguruan. Kontuan hartu behar dugu hori ez dela bere asmoa, gerra sertoriarra eremu honetan nola garatu zen kontatzea baizik. Edonola, informazio interesgarria eskaintzen digu, antzina lurralde honetan bizi ziren taldeak eta beraien kokapena (gutxi gorabehera) aipatzen dituelako.

### *I. 4. 4. Plinio Zaharra*

Cayo Plinio Bigarrenaren, *Zaharra*ren, izaera ondo islatzen da bere iloba Plinio Gazteak bere lagun bati idatzitako eskutitzan; horrela dio: “harrigarria da ikustea nola hain lanpetua zegoen gizon batek hainbeste liburu idatzi ahal izan zituen, liburu gehienak gai oso zailak lantzen dituztelarik. Are harrigarriagoa da dakizunean denbora batez foroan jardun zuela, 56 urterekin hil egin zela, funtzio garrantzitsuenak bete zituela eta enperadoreen adiskidea izan zela. Izpiritu nekaezina zuen, ikerketarako irrika izugarria eta gainera, goiz esnatzea gustoko zuen”[14]. K.o. 79. urteko abuztuaren 25ean hil zen, bere jakinmin zientifikoak

[13] Tito Livio, *Fragm.,* 91.
[14] Perez de Laborda (1996: 79).

Vesubiora eramatearen ondorioz, Pompeya eta Herkulano hiriak suntsitu zituen sumendiaren leherketa famatua gertatu zenean.

Pliniok xehetasun handiekin idazten zuen. Bere *Naturalis Historia* osatzen duten 37 liburuetan, naturaren historia egiteaz gain, ezaugarri historiko eta etnografiko ugari bildu zituen. Izan ere, obraren lehen liburuetan orduan ezagutzen zen munduaz jarduten da eta gizadiaren historia egiten du, xehetasun handiekin. K.o. 77. urtean bukatu zuen bere obra eta Titori eskaini zion.

Plinio Zaharrak mendebaldeko Pirinear ingurunean bizi ziren herrien berri emango digu, herri ezberdinen izenen eta kokapenaren berri emanez, eta hiri nagusiak aipatuz. Antzinako euskaldunei buruz, zehazki, honakoa aipatzen du:

> Haien ondotik, eta adierazten dudan norabideari jarraiki, Pirineo mendiaren oinean eta lurraldearen barruan sartuta aurkitzen dira Ausetanoak eta Iacetani direlakoak, eta Pirineoan bertan Ceretani deituak, haien ondotik Baskoiak jarraitzen direla (…)[15]

> Cluniako konbentura Varduli deituek 14 herri eramaten dituzte, zeinetarik Alabanaenses direlakoak aipatzeaz aski baita; Turmogidi deituek 4 eramaten dituzte, Segisamonenses eta Segisamaiulienses direlakoak barne. Konbentu berera joaten dira Carietes eta Vennenses direlakoak 5 hiri-barrutirekin, hauen arteko bat Velienses direlakoena delarik. Bertara joaten dira halaber Pelendones direlako Keltiberiarrak, 4 hiri-barrutirekin, beraien artetik Numantini direlakoak famatuak izan zirelarik. Vaccaei direlakoen 17 hiri- barrutiren artetik nabarmentzen dira Intercatienses, Palantini, Lacobrigenses eta Caucenses direlakoenak. [16]

> Kantauriarren 7 (9?) herrien artetik Iuliobrica soilik aipa bedi, eta Autrigoien 10 hiri-barrutietatik, Tritium eta Virovesca. Arevaci direlakoek Areva ibaitik hartu zuten beren izena. Sei gotorleku dituzte, eta honako hauek dira: Secontia eta Uxama (beste toki askok ere hartu zituen izenok), Segovia, Nova Augusta, Termes eta Clunia bera, Keltiberiako muga dena. Geratzen den guztia Ozeanoruntz dago, hala nola iada aipatuak izan diren Varduli direlakoak, eta Kantauriarrak.[17]

> (…) Hispania Pirinioetako itsasmuinoan hasten da; estuago da alde honetatik, ez soilik Galia baino, baita bera baino ere, zeren, lehen esan dugunez, bertan barneratzen batzaizkio sakonki Ozeanoa, alde batetik, eta Itsas Iberikoa, bestetik. Pirineoko mendilerro horiek eragiten dute Hispaniak estuagoak suertatzea ekinozioko sortaldetik neguko sartalderako norabidean, hegoko aldean baino. Lehenik aurkitzen den itsasegia Citerior edo Tarrakonensekoa da. Pirineotik abiatuz eta Ozeanoaren erriberei jarraiki, aurkitzen ditugu Baskoien oihana[18], Olarso, Varduli direlakoen gotorlekuak, Morogi, Menosca, Vesperies eta Portus Amanum, non Flaviobrica kolonia baitago gaur egun.[19]

Plinio Zaharraren helburua zona horren berri ematea zen, herri nagusiak eta beraien hiriak aipatuz, ingurunearen topografía eta orografiari buruzko datuak eta azalpenak emanez. Horrela izanik, Plinio Zaharrak ere ez digu gehiegi esango antzinako euskaldunen irudi barbaroari buruz, nahiz eta, ikusi bezala, gure lurraldean bizi ziren herrien berri ematen duen.

---

[15] Plinio, *Nat. Hist.,* 3, 22.
[16] *Ibid.,* 3, 26.
[17] *Ibid.,* 3, 27.
[18] Jatorrizko esaldiak honela dio: *a Pyrinaeo per Oceanum Vasconum saltus, Olarso, Vardulorum oppida, Morigi, Menosca, Vesperies, Amanum portus ubi nunc Flaviobrica colonia.* “Vasconum saltus” hori baskoien oihana bezala itzultzea hobetsi dugu, aurreko ataletan azaldu bezala, “saltus” hori ez delako seguruenik unitate administratibo bat, termino geografikoa baizik.
[19] Plinio, *Nat. Hist.,* 4, 110.

*I. 4. 5. Ptolomeo*

Claudio Ptolomeo K.o. I. mendearen azken herenean jaio zen, dirudienez, Alexandrian, non bere lana burutu zuen eta non, seguruenik, hil egin zen 78 urte bizi ondoren. Bere obra zabala izan zen eta gai ezberdinak landu zituen, bere garaiko ezaguerak eta ideiak bilduz.

Bere lan nagusia *Mathematike syntaxis* edo *Almagesto* da; bertan, astronomia teoria bat asmatu zuen zeruko argizagien higidurari buruz. Ptolomeok uste zuen Lurra zela unibertsoaren erdigunea eta haren inguruan ibiltzen zirela biraka Ilargia, Eguzkia, planetak eta izarrak. Horrez gain, optikako obra bat idatzi zuen eta astrolabio bat asmatu zuen, angeluak neurtzeko.




Baskoiak eta beraien bizilagunak, Ptolomeoren arabera.[20]

[20] Perez de Laborda (1996).




Iberia iparraldeko hiri garrantzitsuenak, Ptolomeoren “Gida Geografikoa”ren arabera.[21]

Astronomoa eta matematikaria izateaz gain, bere garaiko geografo handiena izan zen. Zazpi liburuz osatutako *Geographike hyphegesis* edo “Gida Geografikoa” idatzi zuen; lehen liburuan, mapak egiteko arauak eta argibideak eman zituen, eta besteetan kartografia mapak egin zituen. Egin zituen mapen artean Pirinioetako eta Euskal Herriko lekuak aipatu zituen, eta hiri batzuen kokalekuen berri eman zuen. Erdi Aroan, idazlan hura geografiako oinarritzat hartu zen.

Ikus dezagun Ptolomeok aztergai dugun eremuari buruz eskaintzen dizkigun datuak:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 7. *Autrigoienak* | | | | |
| Nerva ibaiaren bokalea | 13º | 10´ | 44º | 40´ |
| Flaviobriga | 13º | 30´ | 44º | 15´ |
| 8. *Karistiarrenak* | | | | |
| Deba ibaiaren bokalea | 13º | 45´ | 44º | 25´ |
| 9. *Barduliarrenak* | | | | |
| Menosca | 14º | 20´ | 44º | |
| 10. *Baskoienak* | | | | |
| Oeasso hiria | 15º | 10´ | 45º | 5´ |
| Oeasso, Pirineoko lurmuturra | 15º | 10´ | 45º | 50´ |

(53) Horiengandik eta Kantauriarrengandik aurrera, ekialderantz begira, *autrigoiak* (bizi dira) eta bertako hiriak hauek:

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Uxama Barca | 13º | | 44º | 15´ | |
| Segisamoncolum | | 13º | | 43º | 50´ |
| Virvesca | | 12º | 30´ | 43º | 50´ |
| Antecuia | | 13º | | 43º | 40´ |
| Deobriga | 13º | 15´ | 43º | 30´ | |
| Vindeleia | 12º | 40´ | 43º | 15´ | |

[21] Perez de Laborda (1996).

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Salionca | | 13º | | 43º | 15´ |

(55) Autrigoien azpian, *beroiak,* eta beren hiriak hauek:

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Tritium Megallum | | 13º | | 42º | 50´ |
| Oliba | 13º | | 42º | 40´ | |
| Varea | 13º | 30´ | 42º | 45´ | |

(65) Ebro eta Pirinioen artean dagoen lur zati hartan, autrigoien ondoan –zeinen lurren artetik bait doa aipatu ibaia-, *karistiarrak* aurkitzen dira ekialdera eta beren hiriak hauek:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Suestasium | 13º | 40´ | 44º | |
| Tullica | 13º | 40´ | 43º | 45´ |
| Velia | 13º | 55´ | 43º | 20´ |

(66) Ekialdera horiekiko, *barduliarrak* (bizi dira) eta beren hiriak hauek:

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Gebala | 14º | | 43º | 50´ | |
| Gabalaeca | 13º | 30´ | 43º | 45´ | |
| Tullonium | 13º | 50´ | 43º | 30´ | |
| Alba | 14º | 35´ | 43º | 30´ | |
| Segontia Paramica | 14º | 30´ | 43º | 15´ | |
| Tritium Tuboricum | 13º | 40´ | 43º | 10´ | |
| Thabuca | | 14º | | 42º | 50´ |

(67) Horien ondotik *baskoiak,* eta beren hiriak hauek:

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Iturissa | 15º | 25´ | 43º | 55´ | |
| Pompaelo | 15º | | 43º | 45´ | |
| Bituris | 15º | 30´ | 43º | 45´ | |
| Andelus | | 15º | | 43º | 30´ |
| Nemanturista | 15º | 35´ | 43º | 25´ | |
| Curnonium | 15º | 50´ | 43º | 15´ | |
| Iacca | 15º | 30´ | 43º | 15´ | |
| Graccuris | 15º | | 43º | | |
| Calagorina | 14º | 40´ | 42º | 55´ | |
| Cascantum | 14º | | 42º | 45´ | |
| Ergavica | | 14º | 30´ | 42º | 35´ |
| Tarraga | 14º | 45´ | 42º | 30´ | |
| Muscaria | 14º | 20´ | 42º | 25´ | |
| *Segia* | 14º | 40´ | 42º | 15´ | |
| Alavona | | 14º | 40´ | 41º | 55´[22] |

## *I. 4. 6. Historia Augusta*

Ez dakigu nork idatzi zuen *Historia Augusta*, baina badirudi egile ezberdinen artean idatzitako obra dela. 117-285. urteen arteko 30 enperadoreen biografiak biltzen dira aipatutako obran. Liburu garrantzitsu eta konplexua da; politika, gizartea, etab. nahasten ditu eta zaila da jakitea zer gertatu zen benetan eta zer asmatu zuten autoreek.

*Historia Augusta*ren autoreek ez digute gehiegi esaten interesatzen zaigun lurraldeari eta herriei buruz. Horrek adierazten digu eremu honek ez zuela interes gehiegirik sortzen Erroman. Batez ere ekialdeak eta Rhin ibaiko mugak kezkatzen zien erromatarrei, bertan herri germaniarrak zeuden eta. Germaniar horiek, aukera zuten guztietan, hegoalderantz hedatzen saiatzen ziren eta zenbaitetan, Hispaniaraino iristea lortu zuten.

[22] Ptolomeo, *Geogr.,* II, 6, 7-10, 53, 55, 65-67.

Esan bezala, obra honek ez digu ia ezer esaten baskoiei buruz, baina esaldi batek Antzinaroan euskaldunei buruz zuten irudia iradokitzen digu. Honakoa da aipatutako esaldia:

> Alejandro Severo oso jakintsua zen igarkizunaren artean eta aditua ornitomanzian; hain zen trebea kontu horietan, baskoiak, hispaniar augureak eta Panoniakoak zientzian gainditu zituela.[23]

Pasarte honetan, Alejandro Severo enperadoreak (222-235) igarkizunerako zuen trebetasuna azpimarratu nahi zuen autoreak, Hispaniako eta Panoniako augur eta baskoiekin erkaketa bat burutuz. Pentsa dezakegu baskoiek igarle oso onak izatearen fama handia zutela Inperio Erromatarrean zehar.

### *I. 4. 7. Aurelio Prudencio*

Aurelio Prudencio Clemente, latinez idatzi zuen poeta kristau handiena izan zen. Kalagorrin jaio egin zen 348. urtean, abokatua izan zen eta Teodosio enperadoreak prokontsul izendatu zuen. Bere bizitza, 405. urte aldera amaitu zen, bere egunak fede kristauari eskainita.

Aurelio Prudencioren obra nagusia *Peristephanon* deitutakoa da. Literatur balio handiko lana da, baina guri interesatzen zaiguna, idazlea kalagorritarra izanik, Euskal Herriarekin lotutako informazio ugari eskaintzen duela da.

Ondorengo pasartean, Prudenciok Ebro inguruko baskoiak kristautu egin zirela iradokitzen du, beraien basakeria utziz. Hala ere, baskoien kristautzearena Erdi Aroaren hasieran oraindik eztabaidatuko den kontua izango da. Honela dio kalagorritarrak:

> Sinesten duzu, beste garai bateko baskoien jentilitate barbaroa, zenbat odol sakratu isuri zuen akats krudelak? Uste duzu biktimen arimak Jainkoarengana eramanak izan zirela berriz? Ikus ezazu nola denon ikusgarri, deabru anker eta basati hauek hezten ari diren (…) eta izpiritu eta zentzuetan murgiltzen diren.[24]

### *I. 4. 8. Avieno*

Dirudienez, Rufius (edo Rufus) Festus Avienus K.o. IV. mendearen bukaeran bizi izan zen maila senatorialeko gizona izan zen. Bi prokontsulatu izan zituen eta bidaiari handia izan zen, berak esandakoaren arabera, Delfoseko orakulua eta Kadiz hiria, mundu greko-erromatarraren bukaeran, bisitatu baitzituen.

Avienoren obren artean, Aratoren *Phaenomena*ren eta Dionisio Periegetaren *Descriptio Orbis Terrae*ren latinezko itzulpenak nabarmendu behar ditugu. Aipatutako obrak itzultzeaz gain, Avienok osatu egin zituen. *Ora marítima* bezala ezagutzen dugun obra ere idatzi egin zuen, bere lagun Proboren eskaera zela eta. Bertan, Ponto Euxinoren deskribapena egin zuen. Azken liburu honen pasarte batzuk soilik mantendu dira.

Gure aztergaiarekin lotuz, Avienok *Ora maritima*n idatzitako esaldi bat interesatzen zaigu. Ibero ibaiari buruz hitz egiten ari delarik, “baskoi egonezinak” (edo “urduriak”) aipatzen ditu. Honela dio aipatutako pasarteak:

---

[23] *Historia Augusta*, II, 27, 6. Elidio Lampridio aipatua izan da pasarte honen egile moduan.
[24] Aurelio Prudencio, *Peristephanon,* I, 94.

> Ondoren, Hibero ibaia isurtzen da eta bere urekin lurrak emankortzen ditu. Gehinek diote hiberoek harengandik jaso dutela izena, eta ez baskoi egonezinen artetik igarotzen den ibaiarengandik (…)[25]

Badirudi “baskoi egonezinak” esamoldea beranduago Avieno berak gehitutako zatia dela. Edonola, baskoien gerrazaletasunari erreferentzia egiten dio. Aipatu bezala, erromatarren ustez, gerrazaletasuna herri barbaro eta basatien ezaugarrietako bat zen eta, hein handi batean bortizkeri hori senez bazetorkien ere, beraien lurren pobreziak eta klimak gerrazaletasun hori areagotu egiten zuen.

### *I. 4. 9. Ausonio eta Paulino Nolakoa*

Decimo Magno Ausonio IV. mendean bizi izan zen; Bordelen jaio zen eta probintziako familia on bateko kide zela esaten zuen. 30 urtez maisu izan zen eta bere ikasleen artean, Graciano enperadorea (367-379) nabarmendu dezakegu, zeinak, behin boterean, gramatika eta erretorika irakatsi zionari sari garrantzitsuak eman zizkion.

Ausonioren obrak oso interesgarriak dira gure aztergairako. Bordeleko irakasle honek probintziako aristokraziarekin harremanak zituen eta 379an kontsulen *dignitasa* lortu zuen. Hortaz gain, idazle ona izan zen eta poeta moduan ere, lan nahiko onargarria egin zuen; bere senide eta adiskideei eskutitz luzeak idazteko ohitura zuen, horietako asko, akitaniar edo novempopulaniar zonan bizi zirelarik. Horrela, Ausonioren eskutitzei esker, informazio ugari lor dezakegu mendebaldeko Pirinear inguruneko herriei buruz, IV. mendearen bigarren erdialdean.

Paulino tradizio kristau handiko goi mailako familia batean jaio egin zen. Bertutetsua izatearen fama zuen gizon honen familiak ondasunak eta lurrak zituen, ez soilik Nolan, Italian, non gotzain izatera iritsi zen, baita Akitanian ere. Hain zuzen ere, Akitanian izan zen non Ausonio eta Paulinoren adiskidetasuna jaio egin zen. Gure aztergairako interesatzen zaiguna, Ausonio eta Paulinok mantendutako gutun-elkartrukea da. Kontuan hartu behar dugu edukin poetiko handiko epistolak direla, eta ondorioz, ezin dugu hitzez hitz ulertu idatzi egiten dutena.

Ondorengo gutunean, Ausonio kexatu egiten da, Paulinori bidalitako hainbat eskutitzek ez dutelako oraindik erantzunik jaso, eta, itxura denez, geroz eta gehiago luzatzen ari delako Hispanian dagoen bere lagun Paulinoren itzulera. Honela dio aipatutako epistolak:

> Aldatu egin al dituk, Paulino arras eztia, hire portaerak? Hori eragin al diate Baskoiaren basoak[26] eta Pirineotako ostatu elurtuek eta gure zeruaz ahaztu izanak? Eta, zer ez dinat ba arnegatuko hitaz, eta ondo merezita gainera, oi Iberiako lurra! Suntsi hazatela Kartagotarrek, eman diezanala su Hannibal gaizkileak, Sertorio deserriratuak hauta hazala berriz bere gerraren gudalekutzat! Hortaz, nere eta sorterriaren harrotasunari eta Senatuaren sostenguari Bilbilisek eman behar ziok ostatu, edota haitz batzuei atxikiriko Calagorrisek, edota Ilerda idorrak, bere hondakinak muino malkartsuetan barreiaturik dituela, Sicoris erreka goitik kontenplatzen duenak, alegia? Hemen lortu dituk, Paulino, hire kontsul-mantua eta hire aulki latinoa, eta han eman behar diek lur hire sorterriko ohoreei? Baina, nor izan huen hain isilaldi luzea egiteko gomendatu zian kupidagabeko hura?[27]

---

[25] Avieno, *Ora marítima,* VII, 250.
[26] Jatorrizko testuan, *saltus* hitza erabiltzen zen, baino aurreko kasuetan bezala, ez dugunez uste barruti administratibo bati erreferentzia egiten dionik, “oihan” edo “baso” bezala itzuli dugu.
[27] Ausonio, *Epist.* 29, 50-63.

Ikusten denez, Ausonio benetan haserre zegoen eta mesprezuzko adierazpenak egin zituen hispaniar lurrei eta baskoien lurrei buruz, non Paulino bizitzen ari zen une horretan. Horrelako gutunaren aurrean, Paulinok noski erantzun egin zuen, Baskonia, baskoien basoa, etab. aipatuz. Honela dio Paulinoren erantzunak:

> (…) Itxurak besterik badio ere, ez dut ahaztua sorterriko zerua, nik, hain goian Aita gorenari begiratzen diodan honek, hura bakar-bakarrik adoratuz batek ezin baitu zerua gogoratu baino. Sinets iezadazu, bada, oi aita, ez garela zeruaz ahazturik edo burutik galduak bizi, giza-arte batean gabiltzala baizik. Asaldatzen nauten ardurek berek ere gizakume bihozberen portaerak testigatzen dituzte; izan ere, gizakume errukigabe batek nekez jakingo baitu jainko gorenaren berri. Egia da tokiotarik eta gizaseme hauetarik anitz bizi dela ardura horietatik bazter eta legearen ezjakinean. Baina zein herri libratzen da erritu basatitik?[28] Edo, zer kalte datorkio bati toki horietan bizitzetik, besteren gaiztakeriaren kariaz? Ordea, zuk aurpegiratzen dizkidazu Baskoien oihan zabalak eta Pirineotako aterpe elurtuak, Hispaniako lehen lur muturrean gelditu banintz bezala, ez landan ez hirian niretzat tokirik ez balego bezala, nondik, aberastasunez gainezka, mundu unibertsoari irekirik baitagoen, eguzkiak ozeanoan murgiltzen ikusten dituen Hispania. Baina demagun patuak ezarri zituela gauzak, gaizkileen mendietan bizi izan banintz bezala: esan nahi al du horrek harri bihurtu naizela barbaroaren etxolan, basatasun berberaren ukituz bizilagun izan nituen haietakoren baten pareko bihurturik? Arima guztiz garbiak ez du onartzen gaizkia, ezta zuntz arinei ere ez diete erasaten lohiduren zipristinek; baldin gaiztakeriaren ukitugabekorik bizi bada oihan baskoian, haren jiteak, lehen bezain kutsagabeak, ez du kalterik nozitzen bere ostatariaren gizagabeagatik. Baina, zergatik, haien erruz, suertatu naiz akusatua ni, hala iraganean nola egungo egunean, toki diferenteetan bizi izan naizena, hiri aberatsez nabarmenduak eta beren biztanleen harreman landuengatik arras ospetsu diren tokietan, hain zuzen? Eta neure bizitza Baskoien lurretan iragan balitz ere, zergatik, nere jokaeraz pitin bat kutsaturik, ez lituzketen jende haiek bazterrera utziko, bada, beren ohitura basatiak, geureetara etorriz?[29]

Ausonio eta Paulino Nolakoaren epistola hauetan antzinako euskaldunen irudi basati, barbaro eta zibilizatugabe hori agertzen da, batez ere, baskoien basoari dagokionean. Historialari askok (Julio Caro Baroja, Marcelo Vigil, Abilio Barbero, etab.) bi idazle horien arteko gutun elkartrukea erabili zuten, baskoien bizimodua Estrabonen egunetatik ez zela aldatu frogatzeko. Testu horietan oinarrituz, baskoien herria menperaezina, barbaroa eta Erromarentzat arriskutsua zela eta erromatarren eragina oso ahula zela defendatu nahi izan zen. Baina, ikuspegi hori oso urruti aurkitzen da errealitatetik. Ausoniok orduko tradizio etnografikoaren araberako ezaugarriak ezarri zizkien baskoiei; testuan ikusten den gauza bakarra baskoiak ezberdinak direla da, eta horren aurrean, barbaroen “klitxe” guztiak ezarri zizkieten.

Edonola, kontuan hartu behar dugu bi idazle horien asmoa ez dela, inondik ere, baskoien deskribapen bat egitea; bi adiskideak haserretu egin dira eta batak besteari gauzak aurpegiratzen dizkio. Bien arteko eztabaida da. Hori da, hain zuzen ere, eskutitz hauen edukinaren oinarria, eta ez Hispania eta baskoien lurrak deskribatzea. Horrela, susmatu dezakegu zein zen garai horretan baskoiei buruz zuten irudia, baina edonola, ezin dugu Ausonio eta Paulinok diotena aintzat hartu. Era berean, aurretik aipatu bezala, gutun hauek kutsu poetiko handia dute eta ezin dugu idatzirikoa hitzez hitz ulertu.

Egia esan, garai horretako aztarnek baskoien integrazioa iradokitzen dute, irudi basati eta menperaezin hori baztertuz. Augustoren garaitik, baskoiek ez zuten

[28] Hots, zibilizatugabeko portaeratik.
[29] Ausonio, *Epist.* 29 (*Paulini Epist.* 10).

inolako kontrol berezirik behar izan. *Conventus* erromatarren sisteman integratuak egon ziren (beraien kasuan, caesaraugustanusean) eta beraien lurraldean, hiri gutxi batzuk bazeuden, hala nola, Pompaelo, Calagurris, Gracurris eta Oeasso. Hiri txikiak zirenez eta nahiko sakabanatuak zeudenez, ez ziren nahikoa idazle erromatarrek eskualde zibilizatu bat ikusteko, baina nahikoa ziren oinarrizko harremanak mantentzeko, erromatar ohitura batzuk barneratzeko eta Erromako sistema fiskalean eta militarrean integratzeko. Itxura denez, erromatarrek beraien ohituren arabera bizitzen utzi zieten lurralde hauetako biztanleei, beraien bizimodu ez-hiritarra bidelapurretarekin lotzen jarraitu zutelarik. Seguruenik, bidelapurreta hori benetan eman zen, baina ez zen Inperioko beste leku batzuetan baino nabarmenagoa.

Aurkikuntza arkeologikoak geroz eta ugariagoak dira. Txanponen aurkikuntzak aipagarriak dira. Kasu gehienetan, testuingurutik kanpo agertzen diren arren, zonalde honetan erromatar txanponen zirkulazioa ematen zela frogatzen dute. Pentsa dezakegu baskoiek elkarbizitza baketsua izan zutela erromatarrekin, eta horrela, azken horiek beraien presentziaren aztarnak utzi zituztela han eta hemen.

Baskoien integrazioa erromatarren Inperioan defendatzeko froga gehiago daude. Lehenik eta behin, 500 urtetako epean ez da ezagutzen erromatarrak kezkatu zituen inolako errebolta edo altxamendurik eremu honetan. Bigarrenik, Estrabonen testigantza dugu. Kantauriarren mugatik Pirineo arteko eremua, kantauriar gerrateen ostean Hispanian gelditu ziren hiru legatuetako baten ardurapean zegoela eta legatu horrek lejio bat bidaltzen zuela adierazi zuen Estrabonek. Hain lurralde zabala kontrolatzeko lejio bakarra egoteak eremu honetan arriskurik ez zegoela iradokitzen du. Hirugarrenik, aipatu beharra dago aski ezaguna dela baskoi eta barduliarren parte hartzea ejertzito erromatarrean, tropa laguntzaileen bidez. Tropa horietako beteranoak etxera itzultzen zirenean, erromatar kulturaren zenbait alorren garapena bultzatzen zuten, tokian-tokiko ekonomiaren produkzioan jarduten zuten eta, bidelapur eta beste arriskuetatik defendatzen zuten lurraldea. Baina, estatu erromatarrak baskoiengan zuen konfiantza K.o. V. mendeko gertakizun batean ikusten da argien. Izan ere, V. mendeko lehen urteetan arriskua eta nahasmendua nagusi izan zen, eta Pirinear ingurua Galiatik etor ziztezkeen erasoetatik defendatzearen lana, ez zen erromatar ejerzitoarena izan, baskoiena baizik. Beraz, tokian-tokiko biztanleek defendatzen zuten lurraldea, mugetako zerga eta tasak kobratzearen ardura zutelarik ere, Inperioko beste lekuetan gertatzen zen moduan. Horrela, baskoiek erromatar administrazioaren konfiantza zuten eta ez zuten inolako kontrolik ezta begiralerik ere behar.

Dirudienez, Inperioko beste lurralde batzuetan gertatu zen legez, antzinako euskaldunak menperatuak eta kontrolatuak zeuden arren, beraien hizkuntza, defentsa eta bizimodua mantentzeko nahikoa autonomia gorde zuten. Egoera zeharo aldatu egin zen ehun urte beranduago, bisigodoek baskoien kontrako kanpaina-militarrak aurrera eraman zituztenean, baskoi batzuk erromatarren mendekoak izaten jarraitzen zutelako eta mendialdeko baskoiak zakuraketak egiten hasi zirelako behealdeko beraien bizilagunen lurretan.

## II. Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko Erdi Aroko genero historiografikoak

Ezagupen historikoaren oinarrian, hiru iturri-mota ditugu: testu narratiboak, testigantza dokumentalak eta aztarna arkeologikoak. Lehen taldearen barruan kronika-iturriak nabarmentzen dira, iraganeko zenbait kontakizunen berreraiketa koherenteak egitera zuzentzen direnak. Baina, ez ditugu, besterik gabe, onartu behar beste historialari batzuek kontatzen dituzten gertakarien inguruan eman dituzten azalpenak. Kronikagile bat ez da inoiz guztiz inpartziala; egilearen ikuspuntua, helburua, egileak kontatzen duenarekin duen lotura, etab. kontuan hartu behar dugu. Kronikak arretaz eta ahal den zentzu kritiko handienarekin irakurri behar dira[30].

Euskal Herria Erdi Aroan aztertzeko erabil ditzakegun kronikak talde ezberdinetan banatzen dira: alde batetik, kronika orokorrak izango ditugu. Batez ere, hispaniar lurraldeko kronikak dira eta hiru epealdi bereizten dira: lehen kontakizun kronistikoak (V-IX. mendeak), hispaniar historiografiaren ziklo klasikoa (IX-XIII. mendeak) eta gaztelar zikloari dagozkien hispaniar kronikak (XIII-XV. mendeak); bestetik, kronikak partikularrak daude. Hauek Euskal Herriarekin lotuagoak dauden kontakizunak dira. Azkenik, Aro Berriko kronikagileak daude, euskal Erdi Aroko testigantza zahar eta bereziak jaso zituzten zenbait kronikagile moderno.

Gaur egun, testigantza dokumentalei eta aztarna arkeologikoei kronikei baino garrantzi handiagoa ematen zaie, kronikak bigarren maila batean utziz. Hala ere, izaera politiko eta instituzionaleko historiografian kronikek betetako paper garrantzitsua ukaezina da.

Edonola, gure lanaren aztergaia aipatutako kronika horiek izango dira. Bi taldetan sailkatu ditugu: alde batetik, egile klasikoen eraginez euskaldun barbaro, basati eta gerrazalearen irudiarekin jarraitzen duten lanak izango ditugu. Izan ere, sustrai klasikoak nabarmenak izango dira eta eredu klasikoen funtsezko eragina ukaezina da: Salustio, Suetonio, Tito Livio, Tazito (eta honen eskutik, Tuzidides) eta egile klasiko gehiagoren itzala soma daiteke Erdi Aroko zenbait lanetan eta kasu batzuetan, ahaleginak egiten dira estiloa zaintzen eta latin zuzena erabiltzen. Bestetik, gatazka eta bando gerrateei buruzko kronikak izango ditugu.

### II. 1. Egile klasikoen eragina: barbaro euskaldunak

Historian zehar, askotan gertatu da iturri idatzirik gabeko epealdiak egotea, edota ezagutu nahi dugun herriak idatziriko iturririk ez egotea, eta beraien etsaiek beraien buruz idatzitakoaren bidez herri horiek ezagutzera mugatu behar gara. Hori da euskaldunekin V-XII. mendeetan gertatu zena, hain zuzen ere. Ez dugu antzinako euskaldunek idatziriko iturririk, eta beraien etsaiek idatzirikoarekin gelditu behar gara, beste aukerarik ezean, nahiz eta gauza jakina den ez direla oso fidagarriak eta ondorioz, kontu handiz jokatu behar dugula horiek irakurtzerakoan eta aztertzerakoan.

Egile merobingiar, karolingiar eta bisigotiarrek aintzinako euskaldun horien gerrazaletasuna deskribatu zuten, egile klasikoekin hasitako joerari jarraipena emanez. Izan ere, badirudi baskoiek atzerritar konkistatzaileei erresistentzia gogorra

[30] Munita Loinaz (2004: 51-52).

ezarri zietela, eta bide horretatik, beraien izaera barbaro eta gerrazaleari eta *perfidia*ri buruz hitz egin zen. Kontuan hartu behar dugu ere, Orreagako gudua eta gero, 778an, baskoien irudia are basatiago erakutsi zela. IX.-XII. mendeko kronikagileek ere ildo horretatik jarraitu zuten, nahiz eta baskoien ikuspegi horrek ez zuen errealitatearekin bat egiten.

Jarraian, euskaldunei buruzko irudi barbaro hori erakutsi zuten zenbait Erdi Aroko egileren lanak aztertuko ditugu.

*II. 1. 1. San Isidororen lan historikoak*

San Isidorok edo Isidoro Sibiliakoak (560-636) idatzitako lanak lehen kontakizun kronistikoen esparruan kokatu behar ditugu, zehazki, bisigotiarren garaian. Hezkuntza eta formazio oso aberatsak jaso zituen, esparru eklesiastikoan nahiz zibilean, eta Virgilio eta Zizeron bezalako egile klasikoen irakurle amorratua izan zen.

Gotzain hispalense honek eragin handia izan zuten kronikak eta hagiografiak –santuen bizitzak- idatzi zituen. Hiru lan aipatuko ditugu: *De viris illustribis, Etimologiak* eta *Historia de regibus Gothorum, Wandalorum et Suevorum.* Bere lan historikoetan baskoiekin lotutako gai ezberdinak jorratu zituen, hala nola, zenbait errege bisigotiarrek baskoien kontra zuzendutako kanpaina militarrak.

*Historia Gothorum*eko ondorengo testuan Rekaredok baskoien erasoaldiak uxatu egiten dituela kontatzen da:

> Bere indarrak askotan zuzendu zituen erromatarren gehiegikerien aurka eta baita baskoien oldarraldi edo bat-bateko sartzeen kontra ere; operazio hauetan gehiago dirudi bere jendea baliozko modu batean trebatzea zela haren asmoa –borrokalekuko joko bat bailitzan-, egiazko gerra bati ekitea baino[31].

Beste pasarte batean, Gundemarok 610-612. urte aldera baskoien kontra egindako irtenaldia jasotzen du. Horrela dio testuak:

> DCXLVIII. Eran, Focasen inperioaren seigarren urtean, Witerikoren ondotik Gundemarok erreinatu zuen bi urtetan. Honek Baskoinak hondatu zituen espedizio batean, eta beste batean, berriz, soldadu inperialak setiatu zituen. Berezko heriotzaz hil zen Toledon[32].

Suintilak Baskonien kontra zuzendutako kanpainaren berri ere eman zuen Isidoro Sibiliakoak. Honelaxe idatzi zuen:

> Bere erregealdiaren hasieran, Tarragonako probintzia hondatzen zuten baskoien kontra ere kanpaina bat zuzendu zuen. Eta kanpaina horren ondorioz hain izutuak eta beldurrak jota geratu ziren ezarmendu finkorik gabeko herri menditar haiek, ezen, berehala eta errege bisigotuari zor zitzaizkion eskubideak ontzat emango balituzte bezala, beren azkonak eta geziak abandonatu eta eskuak erregurako prestatu ondoren, haren aurrean makurtu baitzituzten beren buruak, bahituriak eskaini zizkioten eta *Ologicus* Gotuen hiria eraiki zuten beren soldata eta lanarekin, haren erregetzara eta bere boterera menperatuko zirela promesa eginez eta aginduko zitzaiena beteko zutela hitz emanez[33].

---

[31] Isidorus Hispalensis, *Hist. Goth.,* 54.
[32] *Ibid.,* 59.
[33] *Ibid.,* 63.

Ikusten denez, Isidoro Sibiliakoak ez du errege bisigotiarren kanpainen kronika hauetan gehiegi esaten baskoiei buruz. Pentsa dezakegu bere helburua ez dela baskoiei buruz hitz egitea, errege bisigotiarren gailentasun militarra eta boterea azpimarratzea baizik.

Bestalde, *Etimologiak* lanean ere idatzi zuen gotzain honek baskoiei buruz. Zehazki, beraien izenaren jatorriaz hitz egin zuen eta aipagarria da nola zati batean baskoiak menditik jaitsiarazi zituztela esaten duen. Izan ere, ezin dugu ahaztu greziar eta erromatarren iritziz mendialdea eta barbaroak lotuak zeudela. Jarraian ikusiko dugu aipatutako testua:

> Vacca Pirineoetatik gertu zegoen hiria izan zen eta bertatik jaso zuten bacceoek izena; pentsatzen denez olerkariak beraien buruz idatzi zuen (Virgilio, *Eneida*, 4, 42-43): Eta bacceoak, lurralde zabal batetik hedatzen direnak. Pirineoetako gailurretako zonalde eguzkitsuetan egon ohi dira. Baskoi izenarekin ere ezagunak dira, baccoiak esango bagenu bezala c bat s bihurtuz. Cneo Pompeyok Hispania menperatu zuenean, bere garaipena lehenbailehen ospatu nahiean, Pirineo mendietatik jaitsiarazi zituen eta hiri batean bildu zituen[34].

### *II. 1. 2. Eginhardoren "Annales Regni Francorum" eta "Vita Karoli"*

Eginhardo 770. urtean jaio zen frankoen lurraldeko ekialdean. Familia aberats bateko kidea zen eta Fuldako monasterioan bere lehenengo ikasketak burutu zituen, hau Erdi Aroko eskolarik garrantzitsuenetarikoa zelarik. Bere emaitza onei esker, 791. edo 792. urteetan Karlomagnoren gorteko eskolara bidali zuten. Karlomagnoren garaian, Eginhardok lan teknikoak, artistikoak eta kulturalak bete zituen. Eraikin inperialen intendentzia eman zioten arkitekturako jakintza ugari zituelako. Karlomagnoren inguruan egonik aristokrazia frankoaren kide bihurtu zen.

Eginhardoren ekintza literarioak gortea utzi ondoren garatu ziren. Denbora luzez pentsatu izan zen 801. eta 829. urteen bitarteko *Annales Regni Francorum* obra Eginhardorena zela. Atribuzio hau monje baten akats baten ondorioa izan zen. Gaur egun argi dago Eginhardok ez zuela inolako loturarik idazki honekin baina, hala ere, oraindik *Annales Eginhardi* izena ematen zaio. *Annales* hauetan baskoiak aipatu egiten dira. Pasarte honetan kontatzen da nola Lupo *dux* baskoiak Karlomagnoren eskuetan utzi zuen, honek beharturik, Hunoldo, Waifreren semea, Akitania eskuratu asmoz egindako bere saioak porrot egin ondoren Baskonian errefuxiatu zena. Pasarte honek, zehazkiago, honako hau dio:

> Bi anaiek (Karlos eta Karlomanek, alegia) beren aitaren oinordeko bezala erresuma banatu zutenean, Akitaniako probintzia –zozketan Karlos erregeari tokatu zitzaiona, bietan zaharrenari- ezin izan zen denbora luzean lasai mantendu, bizirik irauten bait zuten oraindik iragan gerraren oroitzapenak. Zeren eta Hunoldo izeneko bat, tronua amesten bait zuen, probintziarrak asaldatzen aritu bait zen, matxinada berriak prestatzeko. Karlos erregea, berak jaso bait zuen probintzia hori herentzian, haren aurka atera zen, armadaren buru. Baina, bere anaiaren laguntza lortu ezin izan zuenez –honek bere handikiek emandako gomendio txar bati jaramon egin izanagatik-, Duasdives (*Moncontour*) izeneko tokian elkarrizketa bakarra eduki zuen bere anaiarekin; eta, anaia erresumara itzultzen zen bitartean, Angoulêmerantz abiatu zen, Akitania-ko hiria berau, eta hemendik, leku guztietatik tropak iritsi ondoren, Hunoldo iheslariaren aztarnak jarraituz joan zen, ia-ia atxilotu zuelarik. Erregearen armada non egon zitekeen ezkutatua ongi baino hobeto jakiteak salbatu zion bizitza Hunoldori; eta, behin Akitania utzi ondoren, Baskoniara abiatua zen, han seguru egongo zela pentsatuz. Lupo izeneko bat zen, orduan, Baskoinen *duxa*, eta honen *fedeari* bere

[34] *Ibid., Etimologiak,* IX, 2, 107-108.

> pertsona gomendatzeko zalantzarik ere ez zuen eduki Hunoldok. Erregeak, baina, berehala bidali zion mezu bat hari, iheslaria entrega ziezaiola aginduz, eta guzti hori, agindutakoa betetzen ez bazuen Baskoniaren kontra militarki arituko zela mehatxatuz, eta desobedientzia hori amaitzen ez zen bitartean ez zuela etsiko gehituz. Izuturik erregearen mehatxuekin, denborarik galdu gabe entregatu zizkion Lupok Hunoldo eta honen emaztea, honetaz gainera agindutako guztia beteko zuela ere promesa eginez. Erregeak, bere aldetik, eta bidalitako mezulariak itzultzen ez ziren bitartean, Fronsac izeneko gaztelua eraiki zuen Dordoña-ren alboan. Mezulariak itzuli zirelarik, iheslaria atxilotu ondoren eta gaztelua prest zegoenez, bere erresumara itzuli zen.[35]

Eginhardok *Vita Karoli* izeneko obra idatzi zuen. Idazki honen data ez dago oraindik oso finkatua Eginhardok ez duelako aipatzen ez obran ezta beste inskribu batzuetan ere. Burututako ikerkuntzen arabera, lana Karlomagnoren heriotzaren ostean idatzi zen, ziurrenik Eginhardo Seligenstadtera erretiratu zenean. Gutxi gorabehera, 829. eta 836. urteen artean idatzia dagoela uste da.

*Vita Karoli*k garrantzi handia dauka Karlomagnori buruzko detaile guztiak aipatzen dituelako, ez ditu bakarrik batailak eta garaipen militarrak kontatzen, baizik eta Karlomagnoren irudi fisiko eta psikologikoa ematen du ere. *Vita Karoli* honen konposaketaren oinarri argia Suetonio da.

*Vita Karoli* Erdi Aroko lehenengo biografia laikoa da. Honen protagonistaren irudia goraipatzen da bere garrantzi historikoagatik eta deskribatzen da, Eginhardoren begien bidez, Erromako zesarrak bezala. Eginhardoren azalpenetan badirudi Karlomagnoren ekintza indibidualak historia bideratzen dutela eta horregatik dauka hainbesteko garrantzia bere bizitza idatzia egotea.

*Vita Karoli*ko zatirik inpertsonalenak gerrari buruzko atalak dira. Eginhardok iturriak laburtzen eta sinplifikatzen ditu. Laburtzeko nahian nolabaiteko akatsak burutzen ditu, iturriak arinegi irakurtzearen ondorioz beharbada. Ekintza militarrak azaltzerako orduan bigarren mailako plano baten geratzen dira eta ez dute irakurlearen atentzioa deitzen beste pasarte batzuk bezala. Hori bai, obraren exekuzioan, Suetonioren biografien eskemen eraginez, ekintza militarrak eta Karlomagnoren konkistak lehenengo lekuan doaz, epigrafe monumental luze baten antzera.[36]

*Vita Karoli*ren hitzaurrean, Eginhardok azaltzen ditu obra hau idaztearen arrazoiak, batez ere pertsonalak, eta helburuak. Testu honetan zehar ideia berdina errepikatzen da, garaiko erregerik nagusienaren oroitzapena bizirik mantentzea. Errege hau bertutez betea deskribatzen du behin eta berriro obra osoan: ekintza militar eta diplomatikoentzat gaitasun ezin hobea, fede sakona, esku zabaltasuna, tolerantzia eta espirituaren handitasuna.

Deskribapen hau garaiko egoerarekin azaldu daiteke. Garaiko biografietan protagonista goraipatzen zen eta garaiko panegirikoek Karlomagnoren irudia goraipatzeko betebeharra zeukaten. Testuinguru honetan, eta Eginhardok Karlomagnorengan zeukan miresmena kontutan hartuz, obra hau ulertu daiteke.

Hitzaurrean ere, obra hau idaztera bultzatu zioten bi arrazoi pertsonal aipatzen dira. Alde batetik, Karlomagnorenganako esker ona dago, berarekin oso ondo portatu zelako eta bien artean nolabaiteko adiskidetasun maila batera heldu zirelako. Bestalde, ekintza hauen guztien lekuko izanik, hauek azaltzearen behar

[35] Larrañaga (1992: 110-111).
[36] Eginhardo (1999: 21).

morala dago. Obra osoan ez da antzematen egilearen nahia ospea eta garrantzia hartzeko.

Obra honetan erabilitako iturriei dagokionez, alde batetik berak Karlomagnorekin bizitako ekintzak daude. Eginhardo, 40 urtez, Akisgranen bizi izan zen erregea eta bere familiarekin. Ondoren, Ludoviko Pioren idazkaria izanik, Karlomagnoren dokumentu sekretu askotara heldu zen, hala nola, testamentura. Ekintza militar, politiko eta administratiboei dagokionez, *Annales Regni Francorum* obra erabili omen zuen.

Esan dugun bezala obra honen estruktura edo eskema Suetonioren modeloa edo oinarria jarraituz egin zen. Eginhardok Suetonioren biografiak ondo ezagutzen zituen. *Vita Karoli* egiteko Suetonioren biografiak kontutan hartu zituen, batez ere, Augustorena, ez bakarrik idazkerari dagokionean, baita obraren eskemari dagokionean ere. Suetonio oinarritzat hartzearen zergatia ulertu daiteke Eginhardoren Karlomagno Erromako zesarrekin berdintzeko nahia kontutan izanik. Horrez gain, garai honetan autore klasikoen eskemak kopiatzea ospe handiagoa ematen zien obrei. Honetaz guztiaz gain, Eginhardok ikasitako eskolan, Fuldako monasterioan, Suetonioren obraren lehenengo argitalpena zegoen eta horretatik beste kopia guztiak egi ziren. Horrek ere eragina izan behar izan zuen gure autorearengan. Hala ere, nahiz eta Suetonioren eredua jarraitu Eginhardok obraren sarreran adierazten du bere maisua historiarako eta adierazpen literariorako Zizeron izan zela. Kontutan izan behar dugu garai honetan klasikoen eredua kopiatzen zela eta klasiko bakoitza helburu batentzat kopiatzen zela. Ildo horretatik pentsa dezakegu Zizeron adierazpen literariorako oinarri bezala hartu zuela eta Suetonio biografo bezala eredutzat hartu zuela.

Eginhardok ez zuen Suetonio eredu historiografiko edo estetiko bezala bakarrik kopiatu, ikuspuntu politikoek ere eragin handia izan zutelako, batez ere, Karlomagnoren irudi historikoaren ezaugarrietatik eratorria. Errege frankoak bere errege ibilbidea bukatu zuen Akisgranen, 800. urteko gabonetan bere burua Erromatarren enperadore izendatuz. Errege karolingioarekin antzinako Inperioaren herentzia lotzea biografoaren lana zen. Zentzu honetan, Eginhardok Suetoniorengan erakusten duen fideltasunaren zergati nagusiena Karlomagno eta antzinako enperadoreen artean ondorengotza ezartzea da, hots, Karlomagno antzinako enperadoreen ondorengoa zela justifikatzea.

Aipatutako elementu hauek guztiak ez dira oso erabilgarriak Karlomagnoren figura ondo ulertzeko, baina erabili daitezke etsaienganako tratua ulertzeko, batez ere, baskoien kasuan.

Eginhardoren obran baskoiak birritan agertzen dira aipatuak, behin, Akitaniako gerran eta, beste baten, Orreagan. Kontutan izan behar dugu obraren helburua Karlomagnoren irudia goraipatzea dela eta ez baskoiak deskribatzea. Bi pasarte hauetan Eginhardok argi uzten du baskoien izaera bilaua. Baskoien deskribaketa biak gerra testuinguruan agertzen dira bi kasuetan, beti Karlomagnoren kontrako etsai bezala. Baskoien inguruko lehenengo aipamena Akitaniako gerrarekin lotua dago. Pasarte honetan Luporen, baskoien *dux*aren, menpekotasuna argi geratzen da (*Annales*ei buruz hitz egin dugunean aipatu dugun bezala). Aipamen honetan badirudi Lupok *fides*-a sinatzen duela Karlomagnorekin, hots, fideltasuna zin egiten dio. Honen inguruko pasarteari dagokionez:

> Karlosek burututako gerra guztietatik Akitaniako izan zen bere aitak hasi zuena eta oraindik ez zena bukatu, hasi egin zuen lehenengoa izan zen, uste zuelako azkar garaituko zuela; hau gertatu zen bere anaia oraindik bizirik zegoenean eta honi laguntza eskatu zion. Nahiz ete bere anaiak laguntzarik ez eman Karlosek gerra hasi zuen. Era horretan, Hunoldo, Waifredoren heriotzaren ostean Akitania okupatzen eta gerrarekin jarraitzen saiatu zena, Akitania uztera behartua izan zen eta Vaskoniara alde egin behar izan zuen. Karlosek ezin zuenez ihesaldi hua onartu, Garona gurutzatu zuen eta ordezkarien bidez Lupori, baskoien dukeari, iheslaria bueltatzea eskatu zion. Hau egiten ez bazuen Karlos armekin sartuko zen hauen lurraldean. Lupok, erabaki on bat hartuz, ez zuen Hunoldo bakarrik bueltatu, baizik eta, bera ere menderatu zen, probintzia guztiarekin batera, Karlosen buruzagitzapera.[37]

Karlomagnoren biografiaren bederatzigarren atalak edo kapitulua ere aipagarria da, honetan, Orreagan gertatutakoa kontatzen delako. Horrez gain, garrantzi handia dauka Eginhardok beste bataila edo ekintza militarrak baino zehazkiago azaltzen duelako Orreagako gudaldi hau. Gainera, kapitulu honetan Roldani, *cantares de gestako* heroiari, aipamena egiten zaiolako.

Kapitulu hau Orreagako gertakizunetara guztiz dedikatua dago eta uste da hain zehazki azaldu zuela frankoen porrota justifikatzeko. Kontatzen duenaren arabera ez zen berdintasunean egindako bataila izan, baizik eta tranpa bat izan zen eta baskoien *bilaukeria* agirian geratzen da:

> Sajoien aurka etengabe, eta ia atsedenik gabe borrokatzen zen bitartean, mugako lekurik estrategikoenetan goarnizioak kokatu ondore, Hispainia-ra abiatu zen eskura zeuzkan indar guztiekin; eta, Pirinioak iragan eta gero, eta aurkitu zituen gotorleku eta gaztelu guztiak menperatu zituenean, gudalosteak oso-osorik eta ukitu gabe zeuzkala itzuli zen, salbuespen batekin: Auñamendien gailurrean bertan, itzulerako bidean jadanik, Baskoinen zitalkeria bere larrutik ezagutu behar izan zuen. Zeren eta, armada lasai-lasai zihoanean, ilara luzean, pasabidearen estuasunak eskatzen zuen bezala, Baskoinak, mendiaren gailurrean zelatan zeudelarik –pasabideko beste inon baino itxiagoa bait da han basoa, eta aproposa, beraz, lekua tranpak jartzeko- eta goitik beherantz etorriz, sakanerantz bultzatu zuten azken-azkenean zihoan bagajea eta baita aurrekoen babes modura erretagoardian zihoazen tropak ere. Eta behin batailan gureekin sartu zirenean, azkeneko gizona ere hil egin zuten, eta harrapakina lortu ondoren, gauaren iluna lagun, sakabanatu egin ziren bizkor-bizkor. Eginkizun honetan beren alde eduki zuten Baskoinek ez bakarrik armamentuaren arintasuna, baita guztia gertatu zeneko lekuaren taiuera berezia ere: Frankoei, aitzitik, kontra gertatu zitzaien –Baskoinak baino askoz ere gutxiago eta ahulago izateraino- bai zeramaten armamentuaren astuntasuna, baita etsaiak baino beherago kokatuak egotea ere. Bataila honetan hil ziren Egiardo seneskala, Anselmo konte palatinoa eta Roldan, Bretainia-ko markako prefektua ere, beste askoren artean. Eta porrot honek ezin izan zuen berehala mendekatua izan, zeren eta etsaiak, erasoa burutu ondoren, halako moldez sakabanatu bait ziren, ezen non bilatu eta aurkitu zitezkeen jakiteko aztarnarik ere ez zutela utzi.[38]

Pasarte honetan argi geratzen da egileak frankoak justifikatu nahi dituela Baskoiek tranpatitzat eta bilautzat hartuz eta frankoen egoera ezkorra azpimarratuz. Alde batetik, oso leku txarrean kokatuak daude, leku estua delako eta baskoiak goian daudelako. Horrez gain, armadurak aipatzen ditu, nola frankoenak baskoienak baino astunagoak diren.

Baskoiak direnez tropa frankoak erasotzen dituztenak, autorearentzat, Lupok sinatutako *fides*a hausten dutela argi geratzen da, Orreagako bataila baskoien *bilaukeriaren* froga da.

---

[37] Eginhardo (1999: 63-64).
[38] Larrañaga (1992: 112).

Eginhardok baskoiei atxikitzen dien *bilaukeria* ez da karolingioen asmakuntza bat, baina Antzinate Berantiarrean hedatu egiten da kanpoko egoera izendatzerako orduan. *Bilaukeria* hitza basatiei lotua dago. Basatitzat hartzen dira Erromarentzat atzerritarrak diren lurraldeak edo herriak, zibilizazioetatik urrun daudenak eta ondorioz, ez dituztenak *fides*ak ulertzen. Ondorioz, *bilaukeriatik* hurbil daude. Kontutan izan behar dugu *bilaukeria* ez dagoela bakarrik baskoietara lotua baizik eta herri basati guztietara. Eginhardok frankoak zibilizazioaren eredu bezala azaltzen ditu baina Antzinate Berantiarrean frankoak barbarotzat hartu ziren eta erromatarrek *bilaukeria* hitza erabili zuten hauek izendatzeko.

Autore klasikoek barbaroen irudia irakurleei erakusteko testuinguru basati bat deskribatzen zuten. Eginhardok gauza bera egin zuen Karlomagnoren biografia honetan. Eginhardok baskoien lurraldeari *Waskonia* deitzen dio, Garona ibaitik haratago dagoena. Eginhardok lurralde hau errebelde eta Karlomagnoren etsaien gotorlekutzat hartzen du. Baskoiak, Eginhardoren azalpenetan, Karlomagnok sortutako *oikoumene* printzipiotik at daude, *oikoumene*aren ekintzak *fides*ari lotuak daudelako. Baskoiek *fides*a behin eta berriro hausteak politikoki Inperio Karolingioaren haustura suposatzen du.

Eginhardok Orreagako batailaren testuingurua zehatz-mehatz deskribatzen du baskoien lurraldearen ingurune basatia azpimarratzeko. Lehenengo eta behin, baskoiak lurralde menditsuan kokatzen ditu. Mendia, berez, leku beldurgarri eta arriskutsua da zibilizatuentzat. Baskoien mendiak, beldurgarritzat hartzen zirenak, Pirinioak ziren. Eginhardok *saltus*ean kokatzen ditu, *saltus*a *ager*aren kontrako alde ez zibilizatua delarik. Hala ere, ikuspuntu hau ez da berritzailea, antzinateko klasiko batzuek ere Pirinioak beldurgarritzat eta basatitzat hartu zituzten.

Bigarrenik, baskoiak murgiltzen diren lurraldea basoz betea dago, hots, baskoien lurraldea era ezkorrean deskribatzen da. Iturri karolingioetan, arazoa da baskoiek tranpen bidez eraso egin zietela frankoei, haien lurraldea ezagutzen zutelako eta jakintza hori erabili zutelako erasotzerako orduan. Horrez gain, Eginhardok kapituluaren bukaeran adierazten du frankoak ezin direla mendekatu baskoietaz azken hauek tranpa bukatu eta gero sakabanatzen direlako. Ekintza honek ikuspuntu ezkorra bultzatzen du hauen okultismoa azpimarratuz.

Azkenik, Eginhardok nolabait, Waskoniaren existentzia ezeztatzen du. Seguruenik, frankoek Waskoniako lurraldea ezagutzen zuten, baina ez populazioa bizi zen gotorlekuak. Badirudi, Eginhardoren Waskoniak frankoentzat ezagunak diren espazio populatuak ez dituela. Horrela, Eginhardorentzat baskoiak ezarri gabeko herria dira.

Espazioaren barbarotasunaz aparte, Eginhardok baskoiak barbarotzat hartzen ditu gerra egiteko eragatik. Frankoak *exercitus* eran antolatzen dira eta baskoiak, aldiz, *turba* edo *multa* eran, hots, antolatu gabe daude, multzoka doaz. Horrez gain, frankoak gerra irekia bultzatzen dute, baskoiak aldiz ezkutuka erasotzen dute.

Gai honi buruz, hots, Orreagako Guduari buruz, J. M. Lacarrak egindako ikerketek Eginhardok deskribatutakoa zalantzan jartzen dute. Honen arabera, garrantzi gehiegi eman zitzaion Iruñako harresiaren suntsiketari eta Orreagako tranpa honen kokalekua ez dagoela guztiz finkatua. Uste da Iruñea aldeko baskoiak

izan zirela erasotzaileak. Ikertzaile ugari saiatu dira aztertzen nola baskoiak menderatuak eta bakezaleak izatetik barbaro eta erasotzaileak izatera pasatu ziren.

Ikerketen arabera, sarrazenoek enbaxada bat egiten zuten Hispainian. Ibn al-Arabi eta beste sarrazenoek paktuak egin nahi zituzten frankoen erregearekin. Karlomagno Hispainiara joatea erabakitzen du zenbait hiri eskuratzeko nahiarekin. Iruñatik igaro zenean hiria erasotu zuen. Ebro pasatu ondoren Zaragozara heldu zen eta zenbait gatibu hartu eta Iruñara bueltatzen da, bertako harresia suntsituz. Pirinioetako tontorrean, baskoiak erasotu egiten dute; atzetik erasotzen dute, ejertzitoa desordenatuz. Nahiz eta frankoak gehiago izan eta arma hobeagoak izan, galdu egiten dute inguruneagatik. Bataila honetan buruzagi gehienak hil egin ziren eta erasotzailek, ingurunea ezagutzen zutenez, banatu eta ezkutatu ziren. Erregea oso minduta sentitzen da, musulmanekin bat egiten du, eta oraingoan, baskoiak dira benetako etsaiak.

Eginhardok gerra jarraitzen duela adierazten du. Honek ez du Karlomagno eta sarrazenoen arteko harremana aipatzen ezin duelako Enperadore Kristaua fedegabeekin harremanetan aurkeztu.

Ikertzaileek ez dute ulertzen zergatik Eginhardok Orreagako ekintza hau azaldu zuen bere obran eta ez zuen ekintza hori enperadorearen bizitzatik ezabatu. Beste historialari batek azaltzen du hau, Astronomoa izan zen bere *Vita Hludowici imperatoris* obran. Honen arabera Karlos Hispainiara joan zen sarrazenoen kontra borrokatzera, Kristoren laguntzarekin. Hispainiako asuntoak bukatu zirenean, etxerako bueltan zihoala, erretagoardiako tropak hil egin zizkioten. Karlosen egoera ez zen oso ona, garaitua izan zen hegoaldean eta iparraldean. Hispainiako espedizioak Inperioa arriskuan jarri zuen. Karlosek garaipen hau pertsonaltzat hartu zuen eta horregatik bere garaikideek Orreagari buruz asko hitz egin zuten.

Lacarraren obraren[39] ondorioen arabera, Karlomagno ez zen Zaragozara joan lur konkistak egiteko helburuarekin, baizik eta, musulmanek eskainitako zona politiko batzuen menpekotasuna eskuratzera. Hedakuntzaren ideiala alde batera utziz, etxerako bidea moral baxuarekin egin zen. Pirinioetan banatuak sartu ziren frankoak bi ejertzitotan, bueltan ere berdina egin zuten. Nahiz eta bi ejertzitoen buruan buruzagi oso gaituak jarri, elkar hartzea ez zen oso ona eta morala oso baxua zeukaten.

Bi kolomen buelta oso azkar egin zen eta oso giro txarrean. Ikuspuntu honetatik ulertu daiteke Iruñaren suntsipena eta geroko tropen erasoa. Ekintza honetan ez ziren nagusi izan iparraldeko baskoiak. Uste da Lupo *dux*ak bidalitako tropak izan zirela.

Gertakizun honen zurrumurrua asko hedatu zen Inperioko lurraldeetan, nahiz eta gorteak zurrumurrua isilarazteko ahaleginak egin.

Azkenik, IX. mendean musulmanen ekintza izan zelaren legendak indarra hartu zuen, etsai gogorrago bat aipatu nahiean.

Guzti honen ondorioz, argi eduki behar da baskoien historia egiterako orduan Eginhardoren obra ez dela oso iturri zehatza eta objektiboa bere helburua

[39] Lacarra (1983: 89-91).

Karlomagno goraipatzea zelako eta ez benetan gertatu zena kontatzea. Hala ere, Orreagako gaia oso eztabaidatua izan da.

*II. 1. 3. Ravenako anonimoa*

Goi Erdi Aro goreneko kronika historikoak ez dira gehiegi eta ez dira oso aberatsak Euskal Herriari buruzko datuei dagokionean. Hiru genero nagusi bereiztu ohi dira: bidaien narrazioak eta liburu geografikoak; gutun epistolarrak; eta, azkenik, hagiografia edo santuen bizitzak. Kontuan hartu behar dugu iturri horiek esaten dutena beti ez dela fidagarria.

Goi Erdi Aroko bidaien narrazio eta liburu geografikoen testuinguruan, egile ezezaguna duen *Ravenako anonimoa* aipatu behar dugu. Kosmografia horrek *De Geografica* izena jaso izan du ere. Bertan, VI. mendean ezagutzen zen munduaren berri ematen da. Egun ezagutzen den eskuizkribu zaharrena XIII. mendekoa da, baina pentsatzen da obra VII. mendean idatzi zela.

Gure aztergairako interesatzen zaiguna bi zatitan banatutako Baskoniari buruz hitz egiten duela da: zati kontinentala ("Guaskonia" edo Baskonia) eta zati penintsularra ("Spanoguaskonia" edo Hispanobaskonia). Testuak ikusiko ditugu:

> (…) Egunaren bederatzigarren orduan dago espainiarren aberri oso entzutetsua. Egunaren hamargarren orduan dago Galletiako aberria edo (*vel*) espainiar-baskoiena, eta Galletia horrek goian aipaturiko Espainiarekin mugatzen du. Egunaren hamaikagarren orduan dago baskoien aberria, aspaldian Akitania deitzen zena[40].
>
> Bestalde Britaniaren ondoan, ozeano-litoralaren lerroan, kokatzen da Guaskonia izeneko aberria, antzinako jendeek Akitania izendatzen zutena. Filosofo askok deskribatu zuten Guaskonia hau, nik irakurritakoen artean, aipatu Athanaridus hura… Gotuen filosofoak. Baina ez zuten guztiek berdin izendatu aipatu aberri hori…; baina nik aipatu Guaskonia horren hiriak eta ibaiak Athanaridus haren arabera izendatu ditut. Filosofoek Akitania hau oso emankorra bezala aipatu izan dute, era guztietako hornizio eta jatekotan. Guaskonia honetan hainbat hiri egon zirela irakurtzen dugu, horietatik batzuk izendatzea atsegin zaigularik, esate baterako, Buturicas (Bourges) / Arivernis (Auvergne) / Argentine / Limodicas (Limoges) / Pictavis (Poitiers) / Mediolano / Santinis (Saintes) / Gilissima (Angoulême) / Petiagroris (Perigord) / Aginnis (Agen) / Caturtium (Cahors) / Rodingis (Rodez) / Albigi (Albi) / Bordicalon (Bordele). Eskualde berean, badira hiriak beste aldean ere, esate baterako, Blavia / Tholosa / Luci / Cantilia / Langlo / Blivida / Bagaridon. Ibai asko zeharkatzen dute Guaskonia hau, horien artean aipatzekoak direlarik Ligeris (Loira), Galia eta Akitania zatitzen dituena, eta Cares / Angulis / Alere / Icara / Crosa / Vicenna / Bicera / Dronona / Ulta / Garruna (Garona), horietatik batzuk ozeanoan isurtzen dituztelarik beren urak.
>
> Era berean, Guaskoniaren ondoan (itsas-kostaldearen lerroan) aurkitzen da Spanoguaskonia, filosofo horiek berek Guaskonia izendatzen dutena aurrekoa bezala (?). Baina guk, Eldebaldusi jarraituz, esan bezala, Spanoguaskonia deitzen diogu. Eta Spanoguaskonia horregatik esan zuten filosofoek aberri oso ongi defenditua zela, hiri aldetatik mendi garai batzuen babesa baitauka eta laugarren aldean aipatu ozeanoa. Spanoguaskonia horretan hiriak bazirela irakurtzen dugu eta horietatik batzuk aipatzea atsegin dugu, esate baterako Lacura (Lectoure) / Autis (Auch) / Censeramus (Couserans) / Combinias (Comminges) / Bigorrias (Bigorre) / Elusa (Eauze) / Vasatis (Bazas) / Landinorum / Aguisla / Vestianum / Sacer / Sacerons. Spanoguaskonia hori, beste batzuen artean, ibaiok zeharkatzen dute, alegia, Medulla… ozeanoan isurtzen direnak[41].

[40] *Ravennatis anonymi Cosmographia,* I, 3.
[41] *Ibid.,* IV, 40-41.

### *II. 1. 4. Alfontso III.aren kronika*

IX.-XIII. mendeen artean, kronika hispaniarren ziklo latindarra garatu zen. Lau mende horietan zehar, kroniken gai nagusia errege kristauen ekintza birkonkistatzaileak izan ziren. Euskal Herriari dagokionean, informazioa ugaritu zen eta zehatzagoa bihurtu zen, baina era oso esporadikoan beti ere. Kronika aipagarriak idatzi ziren epe horretan, hala nola, *Kronika Albeldensea* eta *Rodako genealogiak.* Ziklo latindar horretako beste lan aipagarri bat, eta gure lanerako oso baliogarria suertatzen dena, *Alfontso III.aren kronika* da.

IX. mende bukaera eta X. mende hasiera aldera[42] idatzitako kronika da *Alfontso III.aren kronika.* Alfontso III.ari "Handia" goitizena eman zitzaion bere erregealdian zehar lortu zuenarengatik: bere erreinuaren mugak handitu zituen; Leon, Gaztela eta Portugaleko lurrak birpopulatu zituen; kondeak jarri eta kendu zituen Galizian, Portugalen, Gaztelan, Laran, Bierzon, etab.; tenpluak eraiki zituen Oviedon, Ourensen, Coimbran eta Santiagon. Irakurtzeko zaletasun handia izan zuen eta liburutegi garrantzitsua osatu zuen. Gainera, giro kultural aberatsaz inguratu egin zen.

Ez dakigu ziur Leongo Alfontso III.a erregeak (866-910) idatzi zuen kronika edo idaztea agindu zuen. Wambatik Ordoño I. aren arteko erregealdiak kontatzen dira, 672. urtetik 866ra. Kronika horren bi bertsio ezagutzen dira: "Rotensea" eta "Sebastianena" edo "Obetensea". Edonola, esan beharra dago nahiko antzekoak direla bi bertsioak.

*Alfontso III.aren kronikan* gure lurraldeari erreferentzia egiten dion pasarteetako batean, Wamba erregeak (672-680) etengabe erreboltatzen ziren baskoiak nola menperatu zituen jasotzen da. Ikus dezagun pasarte hori:

> Asturiarrak eta baskoiak, sarritan errebeldian altxatuak, maiz garaitu zituen Wambak eta bere inperiora azpiratu[43].

Aipagarria da Arabaren lehen aipamena izen horrekin kronika honetan egiten den aipamena dela. VIII. mendean aipatzen da Araba, Alfontso I.aren erregealdiaren testuinguruan. Era berean, Bizkaiko jaunaren lehen aipamena ere kronika honetan egingo da. *Alfontso III. aren kronika* bezalako lanak oinarritzat hartuz, Araba eta Bizkaia nuklearrei buruz eta lurralde horiek beraien biztanleen esku beti egon zirelari buruz hitz egin da. Ikus dezagun testua:

> Hura hilik (Favila, alegia), Alfontso hautatu zuen errege herri osoak, eta hark, Jainkoaren laguntzarekin, erresumaren agintea beregain hartu zuen. Etsaien ausardiari aurre egitea lortu zuen une oro. Bere anaia Fruelarekin zenbait espedizio antolatuz hainbat hiri hartu zituen militarki, adibidez, Lugo, Tuy, Oporto, Anegia (?), Braga metropolitanoa, Viseo, Chaves, Ledesma, Salamanca, Numancia (gaur egun Zamora deitzen dutena), Avila, Astorga, Leon, Simancas, Saldaña, Amaya, Segovia, Osma, Sepulveda, Arganza, Clunia, Mave, Oca, Miranda, Revenga, Carbonera, Hablaos, Cenicero eta Alesanco, bere gaztelu, herri eta herriskekin. Aldi berean, ezpataz hil zituen arabe guztiak, baina kristauak berarekin eraman zituen aberrira. Orduantxe populatu ziren Asturias, Primorias, Liebana, Trasmiera, Sopuerta, Karrantza, Bardulia (orain Gaztela esaten diotena) eta Galiziako itsasaldea; zeren eta Araba, Bizkaia,

---

[42] Orokorrean, 884. urte aldera idatzi egin zela onartzen da.
[43] *Alfontso III.aren kronika,* 1. Bertsio rotensea.

> Aizona (?) eta Orduña betidanik bai baitakigu bertako biztanleen menpean egon izan direla, Iruñea eta Berrueza (hots, Deyo) bezalaxe[44].

*Alfontso III.aren kronika*ren beste pasarte batean, Fruelak (757-769) baskoien kontra borrokatu zuela eta Munia arabarrarekin ezkondu zela kontatzen da. Munia hori gerra-esklabu bat zen eta Alfontso II.a Garbiaren ama izan zen. Honela dio pasarteak:

> DCCLXLV. Eran (757), Alfontsoren heriotzaren ondotik, tronuan bere seme Fruelak jarraitu zion. Borondate gogorreko pertsona izan zen hau. Garaipen asko lortu zituen. Etsai kordobarrarekin Pontubio esaten dioten lekuan, Galiziako probintzian, borrokatu zuen eta han berrogeitamalau mila kalder hil zituen; era berean, zalditeriaren general bat atxilotu zuen, Aumar izenekoa, leku hartan bertan burua moztu ziona. Errebelioan altxatutako baskoiak garaitu zituen. Eta bere emaztea ekarri zuen handik, Munia izenekoa, eta honengandik eduki zuen Alfontso bere semea. Armetan altxa zitzaizkion Galiziako herriak ere garaitu egin zituen. Eta probintzia osoa, bete-betean, harrapatu zuen[45].

Lurralde honi dagokion kronika horretako hurrengo berrian Alfontso II.ak, Mauregato usurpatzaileak erresumatik bidali ondoren, bere ahaide arabarren etxean babesten dela jasotzen da, 783-788. urte aldera. Jarraian pasarte hori ikusiko dugu:

> Silo hil ondoren, jauregiko handiki guztiek, Adosinda erreginarekin bat eginik, erregetzara jaso zuten Alfontso, aitaren tronuan. Baina Mauregato bere osaba, Alfontso handiak neskame batengandik eduki zuena, harropuztu egin zen eta Alfontso erregea bota egin zuen erresumatik. Honek, iheska, Araba aldera jo zuen eta bere amaren senideen artean babestu zen. Mauregatok sei urtez gorde zuen usurpatutako erregetza. Berezko heriotza eduki zuen, 826. Eran[46].

Aipatuko dugun *Alfontso III.aren kronika*ko azken pasarte honetan baskoiek Nepoziano usurpatzaileak Ramiro I.aren aurka prestatutako konjuran parte hartu zutela esaten da, 842. urte aldera asturiar lurretan. Honela dio testuak zehatz-mehatz:

> DCCCLXXXI. Eran (842), Alfontsoren heriotzaren ondotik, Ramiro izan zen hautatua tronurako, Bermudo printzearen semea, zeina probintzia barduliarrean baitzegoen, hain zuzen ere, emaztea bilatu asmoz. Bere ausentzia horretaz baliatuz, Nepozianok jauregiko kondea izaki, tronua lapurtu zion. Baina Ramirok bere loba Alfontso mundu honetatik joana zela eta Nepozianok tronua kendu ziola jakin zuen bezain laster, Lugora pasatu zen, Galiziako hirira, eta probintzia osoko armada bere aldera ekarri zuen. Laster batean Asturiasen sartu zen eta Nepoziano irten zitzaion bidera, asturiar eta baskoien talde batzuren laguntzaz, Narcea ibaiaren zubiaren ondoan; baina berehala, bere jarraitzaileen laguntza galdu zuelarik, ihesari eman zion, eta Escipion eta Sonna izeneko bi kondek, Primoriaseko lurraldean atxilotu zutenean, bere ekintzen ordainetan merezi zuena jaso zuen: ikusmenez gabeturik, monastegi batean sartua izan zen[47].

X. mendearen bukaera aldera eta XI. mendearen hasiera aldera, *Alfontso III.aren kronika*k jarraipena izan zuen Sampiroren obran. Leondar korteko pertsonai

---

[44] *Ibid.,* 14. Bertsio rotensea. Bertsio obetensea edo Sebastianenak zenbait aldaketa ditu; kasurako, aipagarria da zerrendan *Uelegia Alabense* agertzen dela, Veleiarekin (Iruñea) lotu izan dena.
[45] *Ibid.,* 16. Bertsio rotensea. Bertsio obetenseak zertxobait handitzen du Muniari dagokion berria: “Errebeldian altxatutako baskoiak garaitu eta menperatu zituen. Eta baskoien harrapakinetik Munia izeneko neskatila bat gorde ziezaiotela aginduz, harekin lotu zen errege-ezteietan, beragandik Alfontso semea edukiz”.
[46] *Ibid.,* 19. Bertsio rotensea. Bertsio obetenseak ez dio xehetasun interesgarririk gehitzen bertsio honi.
[47] *Ibid.,* 23. Bertsio obetensea. Bertsio rotensean ez da pasarte hau jasotzen.

bat izan zen Sampiro hori, eta Bermudo II.aren (984-999) eta Alfontso V.aren (999-1028) laguntzarekin, Astorgako gotzain izatera iritsi zen.

*II. 1. 5. Liber Sancti Iacobi – Codex Calixtinus*

Hispaniar kroniken latindar zikloko bidaien narrazioa da Aymeric Picaudek 1144 inguruan idatzitako *Liber Sancti Iacobi* (batzutan *Codex Calixtinus* ere deitua). Badirudi eliz-gizona izan zela Picaud, kanonigoa zehazkiago. Pentsa dezakegu gizon kultua zela, beraz. Poitiersen jaio zen, non bere lanbidea eliz-gizon bezala bete zuen. Teoria historiografiko batzuen arabera, Compostelako gotzainaren laguna zen eta hura izan zen, hain zuzen ere, Picaudi ospea eman dion obra idaztea eskatu ziona.[48]

1089. urte aldera, Aymeric Picaud mendebaldeko Europako eliz-gizonen artean arrunta zen bidaiari ekin zion: Finisterrerainoko erromesaldia Santiago apostuluaren hilobia ikusteko asmoz. Bidai horretan, garaiko ohitura zen legez, eta seguruenik eskatu egin ziotelako, ezagutu zituen lurraldeei buruz idatzi zuen aipatutako *Codex Calixtinus*ean. Helburua bide berdina burutuko zuten erromesentzat gida bat idaztea zen. Izan ere, testuinguru horretan, Santiago Bidea erromes moduan egiteko ohitura indartzen ari zen. Santiago apostuluaren kondairaren inguruan sortu zen bidea.

VII. mendean jaio zen Santiago apostuluaren kondaira Frantzian. Esaten zenez, Santiago apostuluak Iberiar Penintsula kristautu zuen eta hil zenean, bere jarraitzaileek bere gorpua Penintsulara eraman zuten bertan lurperatzeko. Kondaira hori hedatzen hasi zen eta VIII. mendean Penintsulara iritsi zen. Beato Liebanakoak zabaldu zuen kondaira, Santiago kultu nazional bihurtuz.

VIII. mende bukaeran eta IX. mende hasieran, Oviedoko erresuma krisian zegoen. Kasualitatez, Santiagoren hilobia aurkitu zuten (benetan, erromatarren garaiko sueboen sarkofagoa zen). Hilobiaren inguruan, egur eta buztinezko eliza txiki bat eraiki zuten. Baina, ondoren, interesatzen zitzaielako, apezpikutza Compostelan aldarrikatu zen eta asturiar estiloko harrizko eliza eraiki zen. Erromesaldia hasi zen horrela. Leku egokia zen, erromatar galtzadaren bukaeran zegoelako.

Lehenak erromesaldian joaten pertsonaia aberatsak izan ziren (Frantzia aldeko apezpikuak, printzeak, nobleak, etab.). Horiek, pixkanaka, jende arrunta erakarri zuten. Bideak, iparraldeko erresuma kristauak elkartzen zituen; beraz, botere-guneak biltzen zituen. Merkataritzarako bidea ere izan zen: ostatua, hornidura, etab. behar zen. Europa aldeko (Frantzia, Flandes, etab.) produktuak eta Al-Andaluseko produktuak ziren.

Santiago bidea kokaleku bihurtu zen eta inguruan, hiri berriak sortu ziren. Hiri horiek feudalismoan sartuak egon ziren; batzuk jaun baten menpe egon ziren eta beste batzuk jaurgo kolektibo bezala funtzionatu zuten.

Aymeric Picaud erromes moduan Santiagora joan zenean, XII. mendeko euskal lurretako biztanleak ezagutu zituen. Deskribatzeko orduan Pirinioez Iparraldeko *bascli* (baskoiak) eta Pirinioez Hegoaldeko *nauarri* (nafarrak) bereizi zituen, baina hizkuntza eta ohitura berberak partekatzen zituztela aipatuz. Edozein

[48] Picaudi buruz ikus Bilbao (1994: 62-66).

kasutan nahiko gaizki hitz egin zuen guztietaz. Baskoien eta nafarren lurretatik pasatzea benetan arriskutsua zen bide bezala eta bertako biztanleak barbaro, basati eta zibilizatugabeak bailiran deskribatu zituen. Ikuspegi klasikoaren arabera ulertzen zuen barbariea, zibilizazioaren kontrakoa bezala. Baina elizgizon frantsesak egindako deskribapen horrek ez du XI. mende bukaerako eta XII. mende hasierako Euskal Herriko errealitatearekin bat egiten. Arrazoi ezberdinak aipatu dira Aymeric Picauden jarrera hori ulertzeko, hala nola, Europaren iparraldeko eta hegoaldeko biztanleen arteko ohiko liskarren ondorio zela, egileak erabili zituen iturriak zaharregiak zirela, edota VIII. mendean gertatutako Orreagako guduaren ondorioz baskoiek Europan zehar irabazi zuten fama txarraren emaitza zela[49].

Picaudek gure lurretako orduko biztanleei egozten zien barbaro izaeraren oinarrian zegoen ezinezkoa zela, bere ustez, basko eta nafarretaz fidatzea. Adibide moduan aipa dezakegu Picaudek nafar (*nauarrus*) etnonimoaren jatorria *non verus* zela idatzi zuela, hots, “ez egiazkoa”. Baskoien eta nafarren barbarieaz hitz egiteko frogak ere zeuden elizgizon frantses horren aburuz, herri horien hizkuntzan, ohituretan, etab. Aipagarria da, euskal hizkuntzaren glosario txiki bat jaso zuela. Ikus dezagun pasarte bat:

> SANTIAGO BIDEAN DIREN LURRALDEEN IZENEI ETA HERRIEN EZAUGARRIEI BURUZKOA
>
> Santiago bidean, Toulouseko ibilbidetik hain zuzen ere, Gaskoniako lurraldea aurkitzen da lehenen, Garona ibaia zeharkatu ondoren; gero, Somporteko mendatea zeharkatu ondoren, Aragoiko lurraldea eta ondoren nafarrena, Argako Zubiraino eta are harantzago.
>
> Garaziko Mendietako ibilbidetik ordea, Tourseko lurraldearen ondoren, poitoutarren lurraldea dator, aberats eta emankorra, ondasun oroz betea. Poitoutarrak gizon adoretsu eta gerrarako iaioak dira, oso trebeak gerran arkua, geziak eta lantzekin, gudazelaian bipilak, lasterketetan oso bizkorrak, janzkeraz dotoreak, begitarte arraikoak, hitz egitean zuhurrak, sariak ematen eskuzabalak, ostatua eskaintzeko ateak zabalik dituztenak.
>
> Gero Sainteseko lurraldea dago; gero, Garona ibaiaren itsasadarra igaro ondoren, Bordeleko lurraldea, ardo bikain eta arrain ugarikoa, baina larre-hizkuntza duena. Larre-gizonak bide dira Saintesekoak euren hizkuntzarengatik, baina Bordelekoak are larrekoagoak.
>
> Gero Bordeleko Landak datoz, hiru egun nekagarriko bidea. Ondasun orotan urria da lur hau, ogirik, ardorik, haragirik, arrainik, urik eta iturririk gabea, herri gutxi dituena, laua, hareatsua, ugaria ordea ezti, artatxiki, artaxehe eta txerritan. Menturaz udan zeharkatzen baduzu lur hau, babestu zure aurpegia herriak *guespe* “erlabio” edo *tauones* “separa” deitu ohi dituen euli izugarrietatik, ugari baino ugariago baitira han. Eta kontu handiz begiratzen ez baduzu non zapaltzen duzun, laster sartuko zara belaunetaraino han ugari den itsas harean.
>
> Lurralde hau igaro ondoren, Gaskoniako lurra dator, ogi zuri eta ardo beltz bikain ugarikoa, baso eta zelaiez eta ur oneko iturriak dituzten ibaiez ondo hornitua. Gaskoiak hitzontzi, berritsu, isekari, lizun, mozkorti, jatun, txarto jantziak eta bitxi gabekoak dira, gerrara ohituak ordea, baina behartsuekin abegitsuak oso. Mahairik gabe jan ohi dute suaren inguruan eserita, eta edalontzi bakarretik edan ohi dute guztiek. Jan eta edan, oparo egiten dute, txarto janzten dira eta lotsagarriro egiten dute lo guztiek batera lasto batzuen gainean, zikinean hain zuzen ere, etxeko guztiak ugazaba eta ugazabandrearekin batera.

---

[49] Torregaray (2001-2002: 430).

Lurralde honetatik irtetean, Santiago bidetik noski, bi ur-laster daude Sordeko Donibanetik hurbil, hain zuzen ere bat eskuinetara doana eta bestea ezkerretara, bat *gauer* "erreka" deitzen zaiona eta bestea *flumen* "ibaia". Biak ere ezin dira inola ere txaluparik gabe zeharkatu eta biziki gaitzetsi behar dira hemengo bateltzainak, ibai hauek estu-estuak izanik ere txanpon bana eskatu ohi baitute haatik beste aldera eramaten duten gizon bakoitzeko, hala txiroa nola aberatsa izanik, eta lau txanpon zamariengatik, are indarrez era lotsagarrian eskatuz. Gainera hauen ontziska txiki-txikia izaten da, arbola bakar batez egina, zaldiak ozta-ozta hartzen dituena. Horra sar zaitezen menturaz uretara eror, eta hobe izango duzu beraz zaldia zeure atzetik eramatea, aho-uhaletik helduta, txalupatik kanpo, uretatik. Beraz ez sartu txalupara beste askorekin batera, pisu handiegia hartzen badu laster izango da hondoratzeko zorian eta. Gainera bateltzainek askotan, sarrera ordaina hartuta, hain erromestalde handia sartzen dute, non irauli egiten baita txalupa eta erromesak uretan ito. Horrekin maltzurki pozten dira bateltzainak, hildakoek utzitakoaz jabetzen baitira.

Gero Garaziko Mendietatik hurbil baskoien lurraldea dator [egungo Ipar Euskal Herriko lurraldea], itsasertzean iparralderantz Baionako hiriarekin. Mintzaira basatikoko lurra da, ohiantsu eta menditsua, ogi, ardo nahiz bestelako janaririk gabekoa, sagarrak, sagardoa eta esnea ez bada.

Lur honetan, Garaziko Mendietatik hurbilean hain zuzen ere, Ostabat izeneko herrian, Donibane Garazin eta Donazaharren, biziki gaitzetsi behar diren bidesari-biltzaile gaiztoak daude. Erromesen bidera ateratzen dira bi edo hiru astamakilarekin, zuzengabeko zergak indarrez kenduz. Eta ibiltariren batek, eskatzen dizkioten moduan eman nahi ez badizkie txanponak, astamakilez astintzen dute eta daukan guztia kentzen diote, mehatxatuz eta barruko galtzetaraino arakatuz. Izugarriak dira eurak eta izugarri, landugabe eta basatia bizi diren lurra; hauen begitartearen eta euren mintzaira basatiaren izugarritasunak ikaratu egiten ditu ikusten dituztenen bihotzak. Legez merkatarien zergak baino ezin har ditzaketen arren, erromes eta bidazti ororengandik ere hartzen dituzte zuzengabe. Lege onean zernahirengatik lau edo sei txanpon jaso behar dituztenean, zortzi edo hamabi hartzen dituzte, bi halako hain zuzen.

Horregatik eskatzen eta erregutatzen dugu bidesari-biltzaile hauek, Aragoiko Erregea eta hauengandik zergen dirua hartzen duten gainerako aberatsak eta guzti hau onartzen duten gainerakoak, hots, Raimundo Zuberoakoa, Bibiano Garamondarra, San Migeleko Bizkondea eta etorkizuneko hauen oinordetza osoak, aipatu bateltzainekin batera eta Arnaldo Giniako eta etorkizuneko oinordetzarekin, eta bateltzain horiengandik zuzengabe zergaren dirua hartzen duten aipatu uretako jaunekin, orobat horiei jakinaren gainean aitortza nahiz eukaristia eskaintzen dizkieten edota eliz otoitza egiten dieten edota elizan onartzen dituzten apaizekin batera, gogotik eskumikatuak izan daitezela, hala bakoitzaren lurretako gotzain-hirian nola Santiagoko basilikan erromesen aurrean, hoben-neke luze agerikoaren bidez damutu eta neurriko zergak jar ez ditzaten bitartean. Eta anatemaren azpatak jo dezala maitasunez nahiz diru bila horiei hoben hau barkatu nahiz diezaien edozein elizburu. Jakin beharrekoa da bidesari-biltzaile horiek ez dutela erromesengandik batere zergarik hartu behar, eta aipatu bateltzainek ez dutela bidesari bezala obolo bat baino hartu behar lagun biko aberatsak izanez gero jakina, eta zaldiarengatik txanpon bakar bat, baina txiroengandik ezer ez. Eta gainera itsasontzi handiak izan behar dituzte zamariak eta gizonak zabal sartzeko bestekoak.

Oraindik lurralde baskoietan, Santiago bidetik, mendi oso garai bat dago *Portus Cisere* (Port de Cize-Garaziko Mendatea) deitzen dena, edo Espainiako atea hantxe dagoelako edo mendi honetatik zehar garraiatzen direlako lurralde batetik bestera beharrezko gauzak. Zortzi miliakoa da goranzko bidea eta beste zortzikoa beheranzkoa. Izan ere hainbestekoa da bere garaiera non zerua jotzen duela baitirudi, eta igotzen duenari zerua bere eskuarekin uki lezakeela iruditzen baitzaio. Honen gailurretik Britainiar Itsasoa eta Mendebaldekoa ikus daitezke eta hiru herrialderen mugak, hain zuzen ere Gaztela, Aragoi eta Frantziarenak. Mendi honetako tontorrean Karlos Handiaren Gurutzea deitu ohi den lekua dago, Karlos Handiak, bere armadarekin batera Espainiarantz zihoala, bidea ireki zuelako aspaldi aizkora, pikotx, aitzur eta bestelako tresnen laguntzaz eta han lehenbizi jaunaren gurutzearen seinalea egin eta gero, belaunikaturik Jainkoari eta Santiagori egin zielako otoitz Galiziara

begira. Honegatik erromesek han belauniko jarri Santiagoren herrira begira eta ohiturari jarraituz otoitz egiten dute eta bakoitzak Jaunaren gurutzearen bandera bat sartzen du lurrean. Mila gurutzeraino aurki daitezke han eta horregatik Santiagoren lehen otoitz-leku gisa hartzen da hau. Kristautasuna Espainiako lurretan erabat zabaldu baino lehen mendi honetan nafar eta baskoi gaiztoek Santiagorantz zihoazen erromesei lapurretan egiteaz gain, asto gainean bezala ibili ohi zitzaizkien gainean eta hil egiten zituzten.

Mendi honen ondoan iparralderantz Valcarlos (Luzaide) deituriko harana dago, non Karlosek berak hartu baitzuen ostatu bere armadarekin, bere borrokalariak Orreagan hil zituztenean. Santiagorantz doazen erromes asko ere hemendik igarotzen dira, mendia igo nahi ez dutenak.

Gero mendi honetatik beheranzkoan ostatu-eritegia eta eliza daude, non Erroldan heroi boteretsuak bere ezpatarekin hiru kolpetan goitik behera erdibitu zuen harkaitza baitago.

Ondoren Orreaga dator, behinola Martsilio erregea, Erroldan, Oliberos eta beste borrokalari batzuk berrogei mila kristau eta mairurekin batera hil ziren gudaldi handia gertatu zen leku hain zuzen ere.

Haran honen hurrengo, nafar lurraldea dator, ogi eta ardo, esne eta ganadutan aberatsa. Nafarrek eta baskoiak itxura eta ezaugarri berdinak dituzte, janariak, jantziak eta hizkuntzari dagokionean hain zuzen, baina begitartea zuriagoa dute baskoiek nafarrek baino.

Nafarrak belaunetarainoko oihal beltz laburrekin janzten dira, eskoziarren erara, eta *lauarcas* “abarkak” deitzen dituzten oinetakoak erabiltzen dituzte, ondu gabeko larru iletsuz eginak, oinetara lokarriz lotuak, oinazpiak soilik inguratu eta gainerakoa agerian uzten dutenak. Ilezko gainjantzi beltz batzuk erabiltzen dituzte ordea, luzeak, ukalondoetarainokoak, azpilduradunak longainen antzera, *saias* deitzen dituztenak.

Zinez itsusi janzten dira eta itsusi jan eta edaten dute. Nafar etxeko guzti-guztiek, hala jopuak nola ugazabak, hala neskameak nola ugazabandreak, jateko guztia lapiko bakarrean nahasita jan ohi dute, koilararekin barik bakoitzak bere eskuekin, eta edan edalontzi bakarretik edaten dute. Jaten ikusiko bazenitu, jaten ari diren txakur edo txerritzat hartuko zenituzke.

Berbetan entzungo bazenitu, adausika ari diren txakurrekin oroituko zinateke, hizkuntza erabat basatia baitute: Jainkoari *Urcia* deitzen diote, Jainkoaren Amari *Andrea Maria,* ogiari *ogui,* ardoari *ardum,* haragiari *aragui,* arrainari *araign,* etxeari *echea,* etxeko jaunari *iaona,* etxeko andreari *andrea,* elizari *elicera,* apaizari *belaterra* esan nahi baita *pulcra terra* “lur ederra”, gariari *gari,* urari *uric,* erregeari *ereguia,* Santiagori *Iaona domne Iacue.*

Herri basatia da hau, beste herri guztietatik ezberdina ohituretan eta eran, zeinnahi gaiztokeriaz betea, kolorez beltza, itxuraz maltzurra, gaiztoa, okerra, soilorra, hitzik gabekoa eta ustela, lizuna, mozkortia, bortizkeria orotan iaioa, izugarri eta landugabea, makur eta zitala, fedegabe eta errukigabea, anker eta kalapitaria, batere dohainik gabea, bizio eta maltzurkeria guztietan ikasia, getarren eta mairuen parekoa gaiztotasunean, gure herri frantsesaren etsaia arlo guztietan. Txanpon bakar bategatik hiltzen du frantsesa, ahal badu, nafarrak edo baskoiak.

Hango eskualde batzuetan, Bizkaian eta Araban hain zuzen, nafar gizonezkoek andrazkoei eta andrazkoek gizonezkoei, lotsariak erakusten dizkiete elkarri, berotzen diren bitartean. Gainera haragikeria lohian lotzen dira abereekin nafarrak; hesgailua zintzilikatzen omen die nafarrak mando emeari eta behorrari gibelaldean, berak baino ez izateko hartarako bidea. Gainera musu likitsak ematen dizkio andrearen eta mando emearen aluari. Horregatik gaitzetsi egin behar ditu nafarrak heziketadun orok.

Gudazelaian ordea kementsutzat jotzen dira, gazteluak erasotzeko nekaezintzat. Hamarrena ordaintzen zintzoak omen dira, aldareetako opariak

eskaintzen iraunkorrak, nafarrara elizara doan bakoitzean ogiaren, ardoaren, gariaren edo beste opagairen baten eskaintza egiten baitio Jainkoari.

Noranahi doala nafarra edo baskoia, adarra eraman ohi du idunetik zintzilik ehiztariak bezala eta *auconas* “azkonak” deitzen dituen bi edo hiru jaurtigai eskuetan. Etxera sartu edo irtetean miruak bezala egiten du txistu ahoarekin eta leku ezkutuan edo bakartian lapurretan egiteko gordeta egon eta lagunei isilean deitu nahi dienean hontzaren modura kantatzen du edo otsoaren erara egiten du ulu.

Eskoziar jatorrikoak direla esan ohi da, hauen antzekoak baitira ohiturak eta tankerari dagokionean. Julio Zesarrek hiru herri, hots, nubiarrak, eskoziarrak eta buztandun kornuallestarrak bidali omen zituen Hispaniara zergak ordaindu nahi ez zizkiotenez herri hispaniarrak menderatzera, gizonezko denak ezpataz hil eta andrazkoak soilik uzteko bizirik aginduz. Hauek lurralde hartara itsasoz iritsi zirenean, itsasontziak apurtu eta dena suntsitu zuten suaz eta ezpataz, Bartzelonako hiritik Zaragozaraino eta Baionatik Oca Mendietaraino. Ezin izan zituzten muga hauek zeharkatu, gaztelakoek elkarturik hauei aurre eginez euren mugetatik kanpora jaurti baitzituzten. Najera, Iruñea eta Baiona bitartean dauden itsasaldeko mendietara heldu ziren hauek ihesean, itsasbazterrera hain zuzen, Bizkaia eta Arabako lurraldeetara. Hemen bizitzen geratu eta gotorleku asko eraiki zituzten, gizonezko denak hil, hauen emazteak indarrez harrapatu eurentzat eta hauengandik umeak sorrarazi zituzten, zeintzuei nafarrak deitu baitiete gero atzetikoek eta horregatik *non uerus* “ez benetakoa” bezala ulertzen da *nauarrus* “nafarra”, esan nahi baita benetako ez den jatorritik edo garbia ez den etorkitik sortua. Naddaver izeneko hiri batetik ere hartu zuten hasieran izena nafarrek; hiri hau euren aurreneko eskualdean dago eta San Mateo apostulu ebanjelariak bihurtu zuen jainkoagana bere irakaspenez.

Hauen lurraldearen ondoren, Oca oihana igarota, Burgoseko bidean hain zuzen, Espainiako lurraldea dator, hots, Gaztela eta Campos. Lurralde hau altxorrez betea da, oihal eta zaldi indartsutan aberatsa, ogi, ardo, haragi, arrain, esne eta eztiari dagokionean emankorra, egurrik gabea ordea, gizon gaizto eta aihertsuz betea.

Gero galiziarren lurraldea dator, Leoneko eskualdea eta Irago eta Cebreiro Mendietako mendateak igarota. Lurralde hau oihantsua da, ibai, zelai, fruta-arboladi bikainak, fruitu onak eta iturri gardenak dituena, hiri, herri eta soro gutxikoa, eskasa gari-ogi eta ardotan, ugaria zekale-ogi eta sagardotan, emankorra ganadu eta zamari, esne eta ezti, itsasoko arrain handi eta txikiei dagokienean, urre, zilar, oihal, basa-larru eta bestelako ondasunetan aberatsa, are ugaria mairu-altxorretan. Gainerako herri espainiar hezigabeen aldean hobeto egokitzen dira ohituretan galiziarrak gure Frantziako herrira, haserrekor eta liskarti izanik ere[50].

Pasarte honetan Aymeric Picauden aurreiritzi kulturalak nabarmen gelditzen dira. Picaud Ipar Frantziakoa zen eta berak idatzitakoan antzematen da nola zenbat eta hegoalderago joan, bere aurreiritziak areagotu egiten diren, nafarrekin bere aurreiritziak gorengo mailara iritsi arte. Elizgizon frantses honen “anti-nafarrismoa” argia da; bera frantsesa izaki, ondo ezagutzen zituen nafarrak eta herra izugarria zien, beraiekin izandako arazoen ondorioz.

Picaudek zeharka ukitzen duen eta oso aipagarria den gaia euskaldunen kristautzearena da. Lacarraren arabera, kristautasuna hiritik landara zabalduz joan zen. Euskal Herrian hiri gutxi zeuden, eta gainera, V. mendeko inbasioen ostean, asko suntsiturik gelditu ziren. Ordura arte, ez dira ezagutzen komunitate kristauak euskal lurretan. V.-VIII. mendeen artean, hiri bizimoduak jasandako atzerakadaren ondorioz, ez dirudi kristautasuna gehiegi zabaldu zenik lurralde honetan zehar, VI. mendean Iruñean apezpiku-egoitza ezartzearen salbuespenarekin. Testigantza godo

[50] Aymeric Picaud, *Liber Sancti Iacobi-Codex Calixtinus*, V, 7. kapitulua. Gidor Bilbaoren euskarazko itzulpena (1994).

eta frankoek euskaldunek kristautze-prozesuari egindako erresistentziaz hitz egiten digute. IX. menderako, gune eusko-kristauak argiago ikusten dira: Araba eta Leireko zonak, kasurako. X. mendean, kristautasuna ekimen pribatuen bidez zabaldu zen, batez ere, Araban eta Nafarroan zehar. Monastegiak izan ziren kristautze-prozesua zuzendu zutenak. XI. eta XII. mendeetan, kristautasunak aurrera egiten jarraitu zuen; kristautze-prozesuak garapen garrantzitsua izan zuen landa-eremuetan, gotzainen autoritatea gailendu zen eta kristautasuna Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian zehar zabalduz joan zen. Edonola, badirudi denbora luzez elkarbizitzen egon zirela eusko-kristauak eta eusko-paganoak, sinesmen ezberdinak euskal lurretan mantenduz. Zenbaiten ustez, XV. mendearen bukaeraraino jar daiteke zalantzan euskaldunen kristautzea[51].

Jarraian ikusiko dugun testuan, frankoen eta nafarren arteko etsaitasuna islatzen da. Picaudek Nafarroako zenbait ibai eta erreka edateko egokiak ez direla kontatzen du, ur gazia dutelako. Era berean, nafarren asmo txarra azpimarratzen du. Ikus dezagun pasartea:

SANTIAGO BIDEAN AURKITZEN DIREN IBAI ON ETA TXARREI BURUZ. CALIXTO, AITA SANTUA

> Port de Cize eta Somportetik Santiagora honako ibaiak daude. Somporten jatorria dauka Aragoi deitutako ibai osansuntsua, Espainia ureztatzen duena. Port de Cizetik, berriz, askok Runa deitzen duten ibai osasuntsua ateratzen da eta Iruñea ureztatzen du. Puente la Reinatik Arga pasatzen da, baita Runa ere. Lorca deitutako leku batetik, bere ekialdeko aldetik, Salado deitzen den ibaia pasatzen da. Hor ez edan ez zuk, ezta zure zaldiak ere, hilgarria baita. Gure Santiagorako bidaian, labanak zorrozten ari ziren bi nafar aurkitu genituen ibai horren ertzean eserita; ur hori edan eta hil egiten ziren erromesen zalditeriak larrutzen zituzten laban horiekin. Galdera egin genien, eta gezurra esanez, ur hori edateko ona zela erantzun zuten. Horrela, gure zaldiak edaten jarri genituen, eta berehala, horietako bi hil egin ziren, eta nafarrek segituan larrutu zituzten.
>
> Lizarratik Ega pasatzen da: bere ura gozoa, osasuntsua eta oso ona da. Los Arcos deitutako herrixkatik oso kaltegarria den ura dago. Eta Los Arcosetik urrutiago lehen ospitalaren ondoan, hau da, Los Arcos eta ospitale beraren artean, ur hori edaten duten gizon eta piztientzat hilgarria den ur-korrontea aurkitzen da. Torres deitutako herritik, Nafarroan, bertan edaten duten gizon eta animalientzat osasuntsua ez den ibaia igarotzen da. Gero, Cuevas deitutako hiribildutik aurrekoa bezain kaltegarria den ibaia igarotzen da. Logroñotik ibai izugarria pasatzen da, Ebro deiturikoa, ur osasuntsukoa eta arrain ugari dituena. Lizarratik Logroñora aurkitzen diren ibai guztiak gizonek eta piztiek edateko kaltegarriak dira eta bertako arrainak jateko kaltegarriak dira[52].

Horrelako testuak irakurtzerakoan, galdera bat egin behar diogu beti geure buruari: testua fidagarria da? Ikusitako testu honetan, adibidez, aipamen faltsuak daude. Aymeric Picaudek aipatzen duen Runa ibai hori, kasurako, aipamen faltsu bat da. Zentzu kritiko handiz jokatu behar dugu, egilearen testuingurua, helburua, etab. kontuan hartuz.

Bere obraren beste pasarte batzuetan, Aymeric Picaudek Iruñeako ostalariei buruz idatzi zuen, nafar horiek erromesei lapurtu egiten zietela aditzera emanez. Ikus dezagun adibide bat:

---

[51]Lacarra (1971).
[52]Aymeric Picaud*, Liber Sancti Iacobi-Codez Calixtinus,* V, 6. kapitulua.

> Jaunaren berpizkundeko 1100. urtea zen, Guillermo de Poitou kondearen printzerrian, Luis frantsesen errege zelarik, poiteviar herria inbaditu zuen izurrite hilgarri batek, familia osoak hilerrira eraman zituelarik. Orduan gizon batek, hilkortasun horrekin izutua eta zigor hori ekidin nahiean, Santiagora Espainiako lurretatik joatea erabaki zuen. Eta bere emazte eta bi haurrak behorrean eramanez, Iruñeako hiriraino iritsi zen. Baina han bere emaztea hil egin zen eta bere ostalari zuzengabeak gizon harek eta bere emazteak ekarri zituzten baliabide guztiak bereganatu zituen. Emaztearen heriotzaren ondorioz guztiz lur jota eta dirua eta haurrak eramateko erabilitako behorra galduta, haurrak eskutik hartu eta bere bidea kostata jarraitu zuen. Eta samin eta kezka izugarrian murgildurik zihoala, asto indartsu bat zeramatzan gizon ohoragarri batekin aurkitu egin zen. Harek, gizonari gertatutako zorigaitz guztiak entzun ostean, erantzun zion: “Zure zoritxarrak ikusita, nire astoa utzi egingo dizut, oso ona baita umeak Compostela hiriraino eramateko, nongo bizilaguna naizen, bertan astoa itzultzearen truke”.
>
> Astoa jaso ondoren eta umeak bertan igo ondoren,erromesa Santiagoren hilobira iritsi zen. Azkenean, basilikaren txoko batean gauez belatzen ari zela,apostulua agertu zitzaion eta esan zion: “Ez nauzu ezagutzen, ene anaia?”. Gizonak ezetz erantzun zuen. “Ni naiz -ihardetsi zion-, Kristoren Apostulua, Iruñeako lurretan nire astoa utzi egin nizun. Orain, berriz utziko dizut astoa zure etxera itzuli arte, eta zure ostalari iruindar maltzur hori, zurea zena kentzegatik, bere aulkitik erori eta zorte txarra izango du; horrela jakinarazten dizut, eta halaber jakinarazten dizut nire bidean dauden hostalarari bidegabe guztiak, erromesen, hil edo bizien, jabetzak bereganatzen dituztenak, betirako zigortzen ditudala, jabetza horiek elizentzat eta hildakoen sufragioa behar dutenentzat izan behar baitira”. Erromesa hitz egiten ari zionaren oinak musukatzeko makurtu zen eta Apostulua desagartu zen.
>
> Ondoren, erromesa, pozik Apostulua ikusi izanagatik, Compostelatik atera zen astoarekin eta bere haurrekin, eta Iruñeara iristean, bere hostalaria bere etxeko aulkitik erori ondoren eta lepoa bihurritu ondoren hil egin zela jakin zuen, Apostuluak esan bezala (...)[53].

Aymeric Picauden kasua oso argia da egile klasikoen eragina antzemateko. Elizgizon frantsesak, egile greziar eta latindarrek erabiltzen zuten barbaroaren kontzeptu berdina erabiltzen du. Beraien ohitura basatiak, hizkuntza ulertezina, jantziak, orrazkera, izaera lapurretazale eta gezurtia, etab. deskribatu zituen. Baina, berriz azpimarratuko dugu, esan bezala, irudi hori ez dela garaiko euskaldunen errealitatearekin identifikatzen.

### *II. 1. 6. Historia Compostelana*

*Historia Compostellana* izenarekin ezagutzen da E. Flórezek 1765ean *Espainia Sakratua*ko XX. liburukian lehen aldiz argitaratutako obra; zehazki, *Historia Compostellana siue de rebus gestis D. Didaci Gelmirez, primi Compostellani archiepiscopi* izenburupean argitaratu zen, baina berezko autoreek beste izen bat eman zioten: *registrum.* Edonola, Diego Gelmirezi buruzko kontakizunak biltzen dira bertan. Gizon hori Konpostelako gotzaina izan zen 1100. urtetik eta leku berdineko artzapezpiku 1120tik, Meridako elizaren duintasun metropolitanoaren lekualdaketa lortu ostean, bere heriotzera arte, 1140an. *Historia Compostelana*k 1100etik 1139ra arteko gertakizunak jasotzen ditu, beraz, Gelmirezen urteak gotzain moduan eta artzapezpiku bezala, bere heriotzera arte, jasotzen ditu. Badirudi, Gelmirezen ekimenez idatzi zela obra hau, Santiagoko elizaren mesedetan berak egindako lan guztia, elizaren jabetzak eta eskubideak idatziz bildu nahi baitzituen.

---

[53] *Ibid.,* IV, 6. kapitulua.

Ez dakigu ziur noiz jaio zen Gelmirez, baina XI. mendearen bigarren erdialdean izan zen. Dirudienez, Galizian zuen jatorria eta familia errespetagarri bateko kide zen. Seguruenik, nahiko goiz bideratu zuten karrera eklesiastikora. Konpostelako katedralan ikasi ostean, Alfontso VI.aren gortean egon zen lanean; Galiziara itzultzean, Santiagoko elizari lotutako betebehar ezberdinak izan zituen, hala nola, notarioa, idazkaria, konfesatzailea, etab. 1096an diozesiko administratzaile izendatu zuten eta lau urtez bete zuen kargu hori, 1100eko uztailaren 1ean Konpostelako gotzain izendatua izan arte. Ordutik bere heriotzera arte, konpostelar sedean egon zen lanean, hasiera batean gotzain bezala eta artzapezpiku bezala ondoren. Gotzain moduan, Gelmirezen ardura nagusia bere sedea artzapezpikutza bihurtzea izan zen, Santiagoko elizaren izaera apostolikoa kontuan hartuta, bidezkoa zena bere ustez. Urracaren erreinaldian Konpostela artzapezpikutza bihurtzea negoziatu eta lortu zuen, bere biziko garaipen handiena izan zelarik.

*Historia Compostelana*ren autoreei dagokionean, gai oso eztabaidatua izan dela esan beharra dago; hala ere, idazleak Gelmirezen oso hurbileko pertsonak izan zirela defendatzerakoan bat egiten dute ikertzaile guztiek. Gainera, gai hau aztertzen jardun duten gehinek hiru autore onartzen dituzte: Nuño edo Munio Alfonso, Santiagoko elizako altxorzaina; Hugo, Santiagoko elizako kanonigo eta arzedianoa; eta, azkenik, Giraldo edo Gerardo maisua, kanonigoa hau ere. Autore posible gehiago aipatu izan dira, hala nola, Pedro delako bat, Rainerio, Pedro Marcio, etab. Baina, kasu hauetan, ikertzaile guztiak ez daude ados. Obra hau noiz idatzi zen zehazterakoan desadostasunak daude ere; data ezberdinak aipatu izan dira, baina argi dago XII. mendearen hasieran izan zela. *Historia Compostelana*k idazle klasikoak erabili zituen iturri bezala; batzuek nabarmentzeagatik, Zizeron, Virgilio, Salustio, Ovidio, Horazio, San Agustin, etab. aipatuko ditugu.

Gure lan honen aztergaiari begira, *Historia Compostelana*ko ondorengo pasartea ikusiko dugu:

> (...) Orduan, pontifize-arropak kendu ondoren, bi zerbitzarirekin batera, indigena batez lagundurik gainera, zeinak euskaldunen hizkuntza eta urrutiko bideak ezagutzen zituen, Pirineoetatik sartu zen eta handik Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Asturiasetik pasa zen, Espainiako azken haitzen kontra jotzen duen itsasoaren ondoan, batzuetan zaldiz eta beste batzuetan oinez.
>
> Urrutiko lurralde menditsu horietan hizkuntza ezezaguna hitz egiten duten gizon menditarrak bizi dira, edozein gaiztakeri egiteko gai direnak, eta ez da batere arraroa lurralde hain desatseginetan gizon basati eta menperaezinak bizitzea, bide horretatik arrokak, sasiak eta basamortuak baitaude. Gainera itsasoak bertan bere besoak zabaldu zituen probintziak banatzeko eta bertatik ibiltzen direnak itsas-labar handiekin aurkitzen dira (...)[54].

Pasarte honetan aurreko kasuetan aipatutakoa antzematen dugu; hau da, egile klasikoekin jaiotako eta Erdi Aroko egileekin jarraitutako antzinako euskaldunei buruzko ikuspegi barbaro eta basati hori nabarmena da. Ikusitako pasarte honetan baskoiak arriskutsuak, basatiak eta menperaezinak zirela esaten da, zonalde menditsuetan bizi zirela (garaiko testuinguruan, basoak iradokitzen zuen beldurra kontuan hartu behar dugularik) eta hizkuntza ulertezina hitz egiten zutela. Beraz, antzinarotik zetorren barbaroen klitxe guztiak euskaldunei aplikatzen jarraitzen zen.

[54] Falque (1994: 337-338).

## II. 2. Gatazka eta bando gerrateei buruzko kronikak

Egile klasikoek Erdi Aroko egileengan izan zuten eraginaren ondorioz antzinako euskaldun basati horien irudia erakusten zuten kronika, biografia eta bidai narrazio batzuk ikusi eta aztertu ostean, Erdi Aroan garatu ziren beste kronika mota bat aztertzera sartuko gara, euskal lurretan gertatutako gatazka eta bando gerrateen gaia landu zuten kronikak, hain zuzen ere. Testuinguru honetan, bi kronika komentatuko ditugu: Alonso de Palenciaren *Enrike IV.aren kronika* eta Lope Garcia de Salazarren *Bienandanzas e Fortunas.* Baina, kronikak ikusi aurretik, ukitzen duten gaia, bando gerrateak eta gatazkak euskal lurretan, aztertuko dugu.

“Bandoen arteko borroka” esan zitzaien Euskal Herriko nobleek Azken Erdi Aroko mendeetan izan zituzten liskarrei. Nolanahi ere, hori baino askoz gauza konplexuagoa izan zen. Ez zen bakarrik izan nobleen arteko gatazka bat, oñaztarren eta ganboarren artekoa, gizonen gaineko eragin handiagoa nork izango, errenta berriak nork eskuratuko, etab., orobat izan zen liskar multzo bat, elkarren artean oso desberdinak ziren gizarte taldeak aurrez aurre jarri zituena, bai nekazaritza ingurunean eta bai hiribilduetan, eta Erdi Aroaren amaierako gizarte gatazkaren eta askotako aldeen erakusgarri izan zena[55].

Gatazkaren jatorria eta arrazoiak argitu nahiean, liburu asko argitaratu dira eta interpretazio oso ezberdinak plazaratu dira. J. L. Banús y Aguirrek, adibidez, erromatarren aurreko garaian kokatzen du bi bandoen arteko zatiketa, barduliarrek eta karistiarrek, abeltzainak lehenak eta nekazariak bigarrenak, Gipuzkoan finkatu zutenean bizilekua. Alfonso de Otazuren ustez, berriz, ahaide nagusien arteko gatazkaren gakoa lurralde garaietan bizi ziren herri artzain eta abeltzainen (oñaztarren) eta kostaldeko herri merkatari eta marinelen (ganboarrak) arteko liskarrak dira, Euskal Herriko ahaide nagusien borrokek jaunen eta nekazarien arteko borroka estaltzen zutelarik. E. Fernández de Pinedoren ustez, borroka haiek zerikusia zuten zailtasun ekonomikoak zituen garai hark, Errekonkistaren gelditasunak edo diruaren debaluazioak nekazariengan, elizgizonengan edo jaunen klaseko beste kide batzuengan sortua zuen gabeziarekin. Izan ere, ahaide nagusien arteko borrokak areagotu egin ziren nagusi zen taldearen zailtasunak larritu egin zirenean, euskal nobleziako familia taldeen errenta mailak behera egin zuenean eta gizarte osoak XIV. mendeko beheraldiaren ondoriak jasan zituenean. Egoera horren baitan kokatu behar da alderditan bildu ziren leinuen jarduera; alderdi horiek modu jakin batera kokatuta zeuden geografiaren aldetik eta elkarren kontrako interes ekonomikoak bide zituzten, baina, aldi berean, elkarri aurre egiteko gauza ziren, bai alderdi berean eta bai leinu berean ere, dela eliza baten zaindaritza eskubideagatik, burdinola batengatik, nekazarien errentagatik, udaleko ofizioengatik, etab[56]. J. A. García de Cortázarrek hiru gatazka mota bereiztu zituen: lehenik eta behin, nekazarien eta nobleen arteko gatazka, nobleek nekazariei eskatzen zitzaizkien zergak areagotu zituztelako XIV. mendeko beheraldiaren aurrean; bigarrenik, nobleen eta hiribildu edo hirietako biztanleen arteko gatazka; eta, azkenik, nekazaritza giroko nobleek beraien artean zuten gatazka. Era berean, ezin dugu ahaztu gatazka horiei loturik, liskar gehiago garatu egin zirela.

Jarraian, saiatuko gara gatazka horien ezaugarriak azaltzen, jaunen erasoaren ikuspuntutik lehenago eta jaunen aurkako jazarraldiarenetik gero.

---

[55] Díaz de Durana Ortiz de Urbina (1998: 170).
[56] Díaz de Durana Ortiz de Urbina (1998: 170).

1300 urte inguruan, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko familia nobleek ziurtatua zuten beren nagusigoa ohiko bideei esker: ondarea kontzentratzea ezkontza bidez eta lurrak, auzo lurrak edo burdinolak indarrez hartuz, indarrez kenduz edo erosiz. Errentak ugaritu egin zituzten. Noble talde hori oso heterogeneoa zen, gizon aberats gutxi batzuk nabarmentzen ziren (Haro, Velasco, Mendoza, Aiala, Gebara, Salazar, etab.), baina gehienak noblezia txikiko familiak ziren, eta familia horietatik sortu ziren leinuetako ahaide nagusiak, batez ere, Gipuzkoan eta Bizkaian. XIV-XV. mendeetan, leinuak elkarren aurkako bi alderdietan bildu ziren: oñaztarrak eta ganboarrak[57].

Leinu bakoitzak talde jendetsua bildu egiten zuen, ahaide nagusi bat buru zuela. Leinuetan biltzen ziren ez bakarrik maila ezberdinetan odol loturak zituztenak, baita taldeko edo bakarkako mendetasun loturak zutenak ere; diru kopuru baten truke, ahaide nagusiaren babesa izaten zutenak ere zeuden; eta, azkenik, ahaide nagusiari lotuak egoten ziren ere justiziatik ihesi babes bila zebiltzanak, nekazariek eta hiribilduetako jendeek salatutako indarrezko ekintzen egileak, alegia.

Demografiaren beheraldiak eta bere ondoriek, Errekonkista gelditzeak, diruak izan zituen gorabeherek, nekazariak pobretzeak, etab. kalte handiak eragin zieten jaunen errenta iturriei. Ahaide nagusiek baliabide guztiak erabili zituzten beren errenta maila mantentzeko eta errenta berriak eskuratzeko. Baliabide erabiliena nekazarien gaineko presioa areagotzea izan zen, ohiko zergak eta errentak igoz eta zerga eta errenta berriak indarrez ezarriz.

Jauntxoek segituan jo zuten indarkeriara, nekazarien, elizgizonen, hiribilduen eta beren parekoen kontrako indarkeriara. Leinuen eta nobleen alderdien arteko borroka, oñaztarren eta ganboarren artekoa, beren klasekoei ondasunak kentze hura, alegia, ez zen, beraz, interpretazio horretan, beren errenten jaitsiera konpontzeko beste bide bat baizik, beste katebegi bat besterik ez gizartean zuten nagusitasunari eusteko sortu zituzten borroken katean[58]. Gertakizun odoltsuen katea Euskal Herrian zehar zabaldu zen, haran bakoitzera, eskualde bakoitzera, lurralde bakoitzera, eta batez ere, Gipuzkoara eta Bizkaira. Borroka horiek, batzuetan, aurrez-aurreko guduak izaten ziren, baina gehienetan, matxinadak, iskanbilak eta zigorrezko edo mendekuzko erasoak izaten ziren, erreketak, lapurretak eta hilketak egiteko helburua zutenak eta talde txikiek eginak; borroka horiek izaten ziren, gainera, odoltsuenak.

Ahaide nagusien borrokak hiribilduetan ere islatu ziren. Noblezia txikiko leinuek hiribilduetan bizileki hartu zutenean, harresi barrura eraman zituzten landako liskarrak eta gatazkak.

Ikusirik jaunen nagusikeriak ez zuela ekarri ordainketa derrigortuaren tasaren igoera, lapurretak eta pertsonen aurkako indarkeria baizik, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko nekazariak eta hiribildu eta hirietako jende xeheak askotan jazarri ziren jaunen kontra, noiz gogorrago, noiz arinago, eta orokorrean beren helburuak bete zituzten, lortu baitzuten jaunek ekonomiaren beheraldia bitartean ezarri zizkieten betebehar astunenetatik itzurtzea eta ahaide nagusiak, azkenean, garaitzea. Hiribilduetako udalak kontrolatzeko lehian ari ziren talde oligarkikoek lortu zuten gailentzea ez bakarrik ahaide nagusiei, baita herri xeheari ere. Talde gisa sendotuz

[57] Díaz de Durana Ortiz de Urbina (1998: 170-171).
[58] Díaz de Durana Ortiz de Urbina (1998: 172).

joan ziren ahala eta koroaren laguntza tinkoari esker, errege-erregina Katolikoen laguntzari esker bereziki, talde horiek, azkenean, nagusitasuna lortu zuten; errege-erregina Katolikoek euskal lurraldeak baketu baitzituzten azkenik, hirietako alderdiak deseginez eta hiribilduetako talde oligarkikoek hermandadeen zuzendaritzatik egiten zituzten ekintzak akuilatuz[59].

Horrela, kronika horiek idatzi zireneko testuinguruari buruz zertxobait azaldu ostean, aipatutako bi kronikak aztertuko ditugu jarraian.

*II. 2. 1. Alonso de Palenciaren kronika*

XIII.-XV. mendeetan, gaztelera nagusitu zitzaion latinari ohiko hizkuntza bezala eta hori esparru historiografikoan islatu zen. 1270. urte aldera, Alfontso X.a Jakintsuarekin kronika hispaniarren ziklo berria hasi zen: gaztelar zikloa. Hizkuntzaren aldaketa eta obraren garrantzia azpimarratu behar ditugu epealdi horretan. Historiografia ondorengo erreinaldiak kontatzen hasteko oinarri bihurtuko da, batez ere, politikari dagokion informazioa emango delarik.

XIII. mende bukaeratik, errege gaztelar-leondar bakoitzak bere kronikagile ofizialak izan zituen, kronikagile horiek erregeen bertuteak goraipatzen eta exageratzen zituztelarik, gerra-garaipen handien berri emanez, etsaiak kritikatzeko aukerak galdu gabe.

Kroniken unibertsalitatea galduko da. Izaera nazionala ondo azpimarratuko da, espainiarra bisigodoen garaiko Hispania eta Hispania erromatarrarekin lotuz. Hori izango da, hain zuzen ere, XV. mendean errege-erregin Katolikoekin gorengo mailara iritsiko den Penintsulako aberri komunaren jatorria.[60]

Iraganeko kontakizunak egiterako orduan, izaera kritikoa gutxi garatua egongo da oraindik.

Euskal Herriari egiten zaizkion erreferentziak, kroniketan Bizkaiko jaunei behin eta berriz egiten zaizkien erreferentziekin lotuak daude. Hainbat kronika eta kronikagile aipa ditzakegu, hala nola, *Alfontso X.aren kronika*, Pedro Lopez de Ayalaren kronikak, Mosen Diego de Valeraren *Memorial de diversas hazañas* edo Hernando del Pulgarren *Errege Katolikoen kronika.*

Testuinguru honetan, eta gure aztergaiari begira, Alonso de Palenciak idatzitako *Enrike IV.aren kronika* aipatu beharra dugu. XV. mendearen erdialdean, baina XII. mendeko Aymeric Picaud frantsesaren antzera, lurralde anarkiko bati buruz hitz egiten du: lapurretak, bandolerismoa, etab. Bidaiariekiko euskaldunek erakusten zuten hospitalitatea beraien interesen araberakoa zela zioen. Euskaldun batzuk gerlari onak zirela idatzia utzi zuen, eta lurralde honetako hizkuntza eta ohiturei buruz ere idatzi zuen[61]. Euskal lurretan bizitzen ari ziren gatazka eta bando gerrateen inguruan, “Era ya en muchos la queja de los atropellos de vizcaínos y guipuzcoanos” esan zuen. Kronikagileak kontatzen duenez, adibidez, 1457ko udaberrian, Enrike IV.a erregeak egun batzuez Gasteizen bizitzen egon zen, handik Gipuzkoan sartu eta bakea ezartzeko probintzian, gaizkileentzat aterpe ziren zenbait

[59] Díaz de Durana Ortiz de Urbina (1998: 173-174).
[60] Munita (2004: 66-68).
[61] González Mínguez (1999).

dorre eta etxe botatzea aginduz. Horrela, denbora batez bakea mantentzea lortu zen. Horrela dio testuak:

*Viaje de D. Enrique a Vizcaya y a las fronteras de Navarra.-Entrevista de los reyes y de las reinas.-Pactos de la alianza contraída*

Después que los dos agentes de corrupción, el marqués de Villena y el arzobispo de Sevilla, concertaron aquel falso sosiego de las turbulencias, marcharon todos a Vitoria, ciudad amena y de campiña muy fecunda, donde el Rey había resuelto pasar la Cuaresma: mas apenas llegando dejó allí a la Reina con los cortesanos y toda la recámara, y él partió para los estrechos valles de Vizcaya y Guipúzcoa. En ellos habitan los vascos, muy semejantes en lengua, traje y costumbres a los navarros, guipuzcoanos y vizcaínos, aunque con la diferencia de no dedicarse a la navegación, que tanto ejercitan los dos últimos pueblos, escasos de frutos de la tierra y sin más vino que el que pueden llevar de Navarra o de la Vasconia. Los habitantes del norte de esta región difieren en costumbres y lengua, pues mientras los más próximos a las faldas del Pirineo imitan a los vascongados y navarros, los que ocupan las orillas del Garona o Gironda y los campos de Gascuña tienen grandes semejanzas con los franceses. Unos y otros indígenas aventajan a éstos en esfuerzo guerrero, por más que César afirme serles superiores los belgas.

Navarros, vizcaínos y vascos viven desgarrados por sangrientas banderías y eternas e implacables rivalidades en que consumen los de Vizcaya y Guipúzcoa las riquezas que sus expediciones marítimas les procuran, como los navarros y vascos los abundantes frutos que su tierra produce. Todos ellos se entregan al robo y tratan de engrosar las fuerzas de sus partidos en juntas y convites entre sus parciales, en que gastan la mayor parte de su tiempo. No obedecen las leyes ni son capaces de regular gobierno; su idioma y sus costumbres con ningún otro pueblo tienen semejanza; sólo en la avaricia igualan, si no superan, a los más ávaros, que aun entre padres e hijos es corriente la usura. A las veces conceden amigable hospitalidad a los viajeros; pero siempre sedientos de su oro, asáltanlos con frecuencia en su penosa marcha por los bosques, y, como reclamando su compasión, pídenles un generoso donativo o su bondadosa liberalidad con humildes palabras, que truecan en amenazas de atravesarleas con sus ballestas o saetas si no acceden a sus peticiones. Luego, satisfechos por lo general con unas cuantas monedas, no sólo se consagran a la seguridad del dadivoso, sino que además se ofrecen a acompañarle por un trecho del camino para que no caigan en manos de otros salteadores que, cuando son del mismo bando, préstanle segura escolta y le acompañan cortésmente. Llegados a su hospedaje, todos restauran las fuerzas en su mesa, y a falta de vino, que en el país tiene alto precio, el huésped viajero ha de cuidar de almentarlos abundante y opíparamente con sidra y pan exquisito. Pero todas estas faltas las disimulan con el pretexto de su antiguo abolengo del singular esfuerzo de su ánimo y de su consumada destreza.

Era ya en muchos antigua la queja de los atropellos de vizcaínos y guipuzcoanos; creyó D. Enrique acallarla con sólo su llegada, y como aficionado a la rusticidad, se presentó ante aquellos hombres montaraces por naturaleza, confiado en el antiguo deseo de los vascongados de contemplar la majestad del Soberano, que jamás habían visto en aquellas escabrosidades y en lo sombrío de aquellas selvas, antros y gargantas.

Así fue que el solo nombre del Rey arregló las diferencias, y sin mérito por parte del que los visitaba, reprimió todas las rivalidades. Enmudeció toda la provincia, y sometióse a la obediencia, temerosa del castigo;[62]

Pedro de Velasco, Haroko kondearen, eta Pedro Manriqueren, Treviñoko kondearen, arteko gatazka ikusiko dugu jarraian, Alonso de Palenciak egindako bandoen arteko gatazken kronikaren adibide moduan. Horrela dio testuak:

[62] Palencia, Alonso de, *Crónica de Enrique IV,* I, IV. liburua, IX. kapitulua.

*Causas de la rivalidad entre D. Pedro de Velasco, conde de Haro, y su hermano don Pedro Manrique, conde Treviño.*

Gran discordia surgió en este tiempo entre D. Pedro de Velasco, conde de Haro, y D. Pedro Manrique, conde de Treviño, cuyas causas, no poco graves, tuvieron origen aquí como en las demás partes del reino, en la maldad del Rey, pues desde el principio del mundo, en ninguna historia ni documento se lee haber existido jamás persona tan ambiciosa de las honras como D. Enrique amigo de su propia ignominia; que así en su reino como fuera de él érale grata la abyección y complacíase en el abatimiento del trono. Los avaros magnates, conocedores de esta su condición, esforzábanse por irle menoscabando en provecho propio la amplitud de sus dominios, y él no oponía la menor resistencia a sus codiciosas miras.

